

Joseph Conrad

Ilunbeen bihotzean

euskaratzailea: Iñaki Ibañez

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Iñaki Ibañez.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1991

Jatorrizkoaren data: 1902

Joseph Conrad euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=196>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1659>

SARRERA

Joseph Conrad (1857-1924) ez ohizko idazlea izan zen. Bere bizitzaren lehen erdia ezagututa inork ez zuen asmatuko bigarren erdiak hartu behar zuen norabidea. Marinel izateko erabakia hartu eta gero (lehor aldekoak izaki, familiakoak harri eta zur utzi zituelarik), lanbide horretan goren mailaraino ailegatu, adin helduago batean hura bertan behera utzi eta idazteari ekin zion. Idatzi, gainera, arrotz zuen hizkuntza batean, berandu ikasia eta ordura arte lanabes gisa baino erabili ez zuena. Hala eta guztiz, idazle bezala ere karrera egiten du eta hortik ogibidea atera ez ezik, bere izena narratzaile handien zerrendan sartzeraino ere iritsi zen. Bere bizitzan hain desberdinak diren bi erdi horiek, ostera, oso lotura estua dute elkarrekiko, beraz, idazlea hobeki ezagutzen da zer nolako gizona izan zen ezaguturik.

Józef Teodor Konrad Korzeniowski (berandua-go izena aldatu eta Joseph Conrad deituko zen, ingelesaren ahoskera txarra ezin jasan zezakee-

lako) 1857. urtean jaio zen Berdyczów-en (Ukrainian) aitoren semeen familia baten baitan. Txiki-txikitik nazionalismo zapalduaren izpiritu gartsua ezagutu zuen Errusiaren (baita ere Austria eta Prusiaren) menpeko Polonia batean, nazio bezala desagertzearino iritsi eta jendearen bihotzean eta gogoan baizik iraun ez zuena. Aita, Apollo Korzeniowski, Errusiaren aurkako errebol-tari militantea zuen, eta aldi berean, erromanti-ko idealista, itzultzailea eta antzerki nahiz oler-kien egilea. 1861ean familia osoa Warsaw-era aldatzen da, bertan mamitzen ari baitzen gero eta azkarrago erresistentziazko mugimendu nazionalista, 1863ko matxinadan gauzaturik porrot egingo zuena. Horren ondorioz, Apollo atxilotu eta Vologda-ra (Errusiako ipar ekialdera) erbesteratu zuten, emaztea eta lau urteko seme bakarra berarekin batera eramanez. Ama bere-hala eta aita lau urte geroago hiltzen zaizkiola, osaba kontserbadore baten tutoretzapean geldit-zen da hamaika urteko haurra zen Józef, eta lehenengo aldiz joaten da eskolara.

Nobelagile bezala, irudimenean baino gehia-go oroimenean oinarrituta idatzi zuenez, haur-

tzaro horrek bereziki markatu zuen. Harrigarria gertatzen da, hala ere, idazteko erabili zituen gaietatik Poloniako haurtzaro hori bazter uztea, *Prince Roman* narrazioa eta beste bakan batzuk salbuetsita. Sorpresa hori konfirmatu egiten da *Under Western Eyes* (Mendebaldearen begiradapean) idazlanean Errusiako giroa azaltzean nola-baiteko trebetasun falta bat nabari zaiola egotzen zaionean. Badirudi inkontzienteki haurtzaroa estali nahian edo ibili zela.

Beste maila sakonago batean, ordea, haurtzaro horrek nabarmenki eragin zion bere obra guztian. Idazle bokazioa bera aitaren literaturzaletasunetik letorkioke. Abentura eta erromantizismorako zaletasuna ere, seguru aski, aitaren izaerari zor dio. Gai obsesibotzat dituen deserrotzea eta identitate pertsonalarena, besteak beste, Polonia zatituan, erbestean, umezurtean, egoitza egonkorren faltan, bere adineko lagunik ezean egon daitezke funtsaturik. Azkenez, narrazio politikoetan agertzen duen idealismo iraultzailea, intriga partidista, korrupzioa eta tirania, dudarik gabe, nazionalismo amorratua eta zapalkuntza bortitzezko giro batean bizi iza-

nik horiei buruz gogoeta egindako pertsona batengandik datoz.

Hamalau urte zituela, ikasketak utzi eta Marsellara aldatu zen marinel sartzeko asmo sendo-arekin. Han zenbait bidaia egin zituen marinel bezala, bizitza desordenatua eraman, arma kontrabandoko negozio batean harrapatu zuten, jokoari eman, bere burua hiltzen saiatu... Urte horietako lekukotza *The Arrow of Gold* (Urrezko gezia) eta *Tremolino* dira.

1878an bizitza berregitea erabaki eta Ingala-terrara abiatu zen, bertan, lanaren poderioz itsa-sontzietako ofiziale tituluak eskuratu eta, azke-nik, Britainiako Itsasgintzako Kapitain bilakatu zen. Britainiako nazionalitatea bereganatu eta lehen bidaiak egin zituen Ekialdera. Merkatarit-zako marinel gisako urte horiek esperientzia aberatsekoak izan bide ziren, izan ere, horiek hartu baitzituen bere narratzaile lanbidearen itu-ri agorrezintzat eta ia bere obra guztia espe-rientzia horien laburpen gisara har daitezke.

Urte guzti horietan nobelagilea bere materia-la eta bere hizkuntza literario berria hausnartzen ari dela, honako lan hauek ageri dira, besteak

beste: *Youth* (1898) (Gaztetasuna), *The Nigger of the Narcissus* (1897) (Narcissuseko beltza), *Typhoon* (1902) (Tifoia), *Almayer's Folly* (1895) (Almayerren eromena), *An Outcast of the Islands* (1896) (Irletako baztertutako bat), *Lord Jim* (1899) eta *The Rescue* (1919) (Salbamendua).

Idazteko premia benetakoa, aldiz, ustekabean etorriko zitzaion 1889an, anartean nabigatzen eta esperientziak biltzen segitu zuelarik. Horien artetik Kongo belgikarrean (edo zehazkiago Leopoldo II.aren Kongon) izandako esperientzia dramatikoak gero askok eta askok bere maisulantzat jo izan duten *Heart of Darkness* (1899) (Ilunbeen bihotzean) ekarriko zuen.

Idazle profesional bezala oztopo asko gainditu behar izan zituen. Berandu ikasitako hizkuntza bat erabiltzeaz gain, idaztea bera ere izugarri kostatzen omen zitzaion, baina aparteko seta erakutsiz lortu zuen liburuak erregulartasunez ateratzea.

Liburuak, oro har, kritikaren aldetik ondo hartuak izan ziren, baina irakurlekoaren aldetiko arrakasta nekez etorri zitzaion, *Chancerekin* (Patua), etorri ere 1912an. Paradogikoki, arra-

kastaren ondoko garaia beheralditzat jotzen da, salbuespen batzuk kenduta, *The Shadow Line* (1916) (Itzalaren marra), esaterako. Berak erregulartasun berdinarekin produzitzen segitzen du, baina bizitasuna eta kritika zorrotzerako ahalmenak galduz. Errekonozimendu publikoa lortu zuen eta 1924an sir tituluari uko egiteko luxua permititzen da. Urte berean hilko zen Bishopsbourne-n, Canterbury-tik gertu.

Idazle karreraren hiru etapa antzematen zaizkio:

1895etik 1989ra bitartekoa, edo *Almayer's Folly*tik *Youthera* artekoa. Ikasketa aldia, bai idazteko ohitura falta zaiolako, bai hizkuntza arrotz baten erabilera literarioa egiten duelako. Hegoaldeko Itsasoetan izandako esperientzietan oinarritua, gehienbat. Hautatutako inguruen izpiritua komunikatzeko trebetasun nabaria. Deskripzioen exajeraziorako joera (inoiz erabat kenduko ez zitzaiona) eta pertsonaien karakterizazioan halako ahultasun bat. Hasiera-hasieratik agertutako kezkak: nortasunaren krisialdia, alienazioa, bakardadea, deserrotzea, identitatearen galtzea.

1899tik 1911ra bitartekoa, edo *Heart of Darkness*etik *Under Western Eyes*era artekoa. Heldutasun aldia, eta orduantxe burutzen ditu gaur maisulantzat ditugunak. Inguruak berdintsuak dira: Ekialdea (*Lord Jim*, *Victory*) eta itsasoak (*The Secret Sharer* (Partaide sekretua), *Chance*). Gero beste paraje batzuk ere hartzen ditu, baina gehienak, Ingalaterra kenduta (*The Secret Agent* (Agente sekretua)) urruneko lurraldeetan kokaturik daude: Afrikan (*Heart of Darkness*), Hegoamerikan (*Nostramo*) edo Errusian (*Under Western Eyes*). Dena den, aurrera egin ahala giroak protagonismoa galtzen du eta pertsonaiek indar handiagoa hartzen dute. Nobela guzti horiek aurretik erabiltzen zuen gai berbera sakontzen dute: azalez abenturazko kontakizunak badira ere, mamiz nortasun isolatuaren krisialdia nabarmentzen dute.

1912tik 1924ra bitartekoa, edo *Chancetik The Rover*era (Pirata) artekoa. Beharbada, osasun makaleko gizona izaki, karga emozional gehiegizkoagatik edo ezkortasunaren mailarik gorenera iristeagatik, kontua da, ahalmenen ahultze bat nabari zaiola. Azken aldi honetako

narrazioak sinplistagoak dira eta nostalgia lauso batez estaliak. Hala ere, erdipurdiko lanen artean, salbuespen batzuk ere badaude, hala nola, *Chance* eta *The Shadow Line*.

Conraden teknika narratiboak oso berezkoa du fikzioari berari darion ahots narratzailea, esperientziarekiko hurbiltasuna damaiona. Horrela Conradek errealitatearen ikuspegi problematikoa agertzen digu, ez unibokoa edo dogmatikoa. Denboraren tratamenduan ere aitzindari bilakatzen da, sentrazioen eta gertaeren denbora aldaketa eginez, lotura logikoak ezabatuz eta horiek aurkitzera irakurlea behartuz. Horrela, fikzioko mundua objektibatu egiten du eta errealitateko mundura hurbildu.

Conradek lau narraziotan erabiltzen du Marlow pertsonaia (*Youth, Heart of Darkness, Lord Jim* eta *Chance*), itsasontzi ingeles bateko kapitaina, bere historia pertsonala kontatzeko, eta horrekin oso gustura sentitzen denez, esperimentazioak egiten ditu eta gero eta paper konplexuagoa ematen dio.

Pertsonaia hori narrazio teknika berri bati ekiteko erabiltzen du, narrazioaren barruko

narrazioa, alegia, idazleari narratibotik kanpo kokatzeko aukera ematen diona eta horrela errealismo handiagoa erantsi. Marlow, ordea, ez da marinel arrunt bat. Marlowek badirudi ez dela hezur-mamizko pertsonaia bat, jarrera moral bat sinbolizatzen du, Conradena, alegia. Berak ematen dituen iritziak dira istorioari esanahia damaiotenak.

Marlowen jarrera, bestalde, anbiguotasunez eta zalantzez betea dago. Narrazioaren harian egiten dituen etenak errelatoari bizitasuna eta egitasuna emateko ez ezik, emozio bizien adierazetasuna agertzeko eta komentarioak amaitu gabe uzteko ere erabiltzen ditu, halatan, anbiguotasuna areagotuz.

Heart of Darkness 1898. eta 1899. urte bitartean idatzi eta *Blackwood's Magazine* argitaratu zen lehenbiziko aldiz atalez atal 1899ko otsailetik martxora bitartean. Liburu moduan 1902an argitaratu zen *Youth* eta *The End of the Tether* (Mendearen amaiera)-rekin batera.

Heart of Darkness, Conraden lan gehienak bezala, erdi autobiografikoa da. Gizon sentibera honek Kongon izandako esperientziaren gainean

jaso zituen inpresioak azaltzen ditu. Azalezko errelatoaren azpian giza emozioei buruzko azterketa konplexu bat garatzen da. Conraden gai obsesiboak azaltzen dira: giza bakardadearen arazoa eta gizakiaren borroka izadiaren indar kontrolaezinen aurka. Baina kasu honetan bere ezagutza zuzenaz baliatzen da mendebaldeko zibilizazioak landugabeko lurralde hau kolonizatzean burututako gehiegikeriak salatzeke, edo ironia garratzez kritikatzeko, bederen. Conradek berak 1902ko edizioaren sarreran zioenez: «*Heart of Darkness* gertatutako esperientzia bat da, baina egitasunetik pixka bat harantzago eramana (eta pixka bat bakarrik), nire ustez guttiz zilegi den asmo batekin, alegia, irakurleen buruetara eta bihotzetara ekartzekoa. Gai ilun horri beldurgarrizko doinu bat eman behar zitzaion, berezko tonalitate bat, airean zintzilik geldituko zen —hori espero nuen— dardara etengabe bat, azken nota jo ondoren belarrian grabaturik jarraituko lukeena».

Conradek kontatzen duen gertaera egitura aldetik oso sinplea da, hitz gutxitan esanda, Marlowek, bere bapore txikiaren kargu, barrualdeko

lurrean oso gaixorik dagoen merkataria bat errelebatzeko asmoarekin Kongo ibaian gora egiten duen bidaiaren kronika litzateke. Hala eta guztiz ere, narrazioaren indar guztia pertsonaiengan datza, Marlow eta Kurtzengan nagusiki; horien gainean dago Conradek ezartzen dien gogoeta moral hertsia zama. Conrad kezkatzen duen gaia giza bakardadea da, eta gizabanakoak bere isolamenduan gainditu behar duen nortasun frogak.

Conrad deskripzioaz baliatzen da gehienbat amesgaiztoen edo, hobeto esanda, aluzinazioen mundu horretan sar gaitzen. Marlow, bere sensazioen bitartez, giroa eraikitzen doa, gero eta hertsia eta zakarragoa den giroa, gure zentzumenei dei berezi bat eginez. Ikusmenari ematen dio garrantzia, batik batik, argi eta itzalezko joko etengabe bat erabiliz, batzuetan luminoteknikatik gertu dagoena, halatan errelatori mugikortasuna eman eta teknika narrazioaren elementurik eraginkorrenetako bat bilakatuz. Conradek hitz bakoitza neurtzen du, bere irudien efektua graduatzen du, askotan irudi kaleidoskopikoak, bestetan sinkopatuak, baina beti ere

estilizatuak, giro estugarri bat sortzeko. Tamesi-
sen bokalean hasten da eta bertan amaitzen,
oihan ikaragarri eta etengabe baten sarean
harrapaturik. Liburu honetan, beraz, ez dago
berezko hasierarik, ez amaierarik, zeren amaie-
ra hasierara bueltatzea baita, zibilizazioaren
hasierara eta Londoneko gauera.

Conrad, hizkuntza ingelesa adierazpide
bakartzat hartu bazuen ere, literatura frantzia-
rraren ezagutzaile eta miresle handia izan zen,
bereziki tradizio errealistako Flaubert eta Mau-
passantenak eta «le mot juste» lantzen zuten
eskolako partaidea. Hala ere, bere odolaren
determinismoa indartsuagoa zen eta, azken
batean, espresionismo erdi europarraren tradi-
ziotik zetorkion suhartasun espresiboa eta «hitz
justua»ren bilaketa itsua, biak batera erabiltzen
zitzen.

Conradek tentsio emozionalari eusteko iru-
dien trinkotzea eta elkar gainkatzea nahastean
datzan artificio bat erabiltzen du, erritmoari arre-
ta berezia eskainiz, kontakizunaren tentsioari
batasuna ematearren. Horretarako ez du zalan-
tzarik izaten elkarrizketa eta deskripzioa bat egi-

terakoan, subjektu eta esaldi sinkopatuak txandakaturik joko konplikatu bat egiten, batzuetan ispilu deformatzaileen efektua sortaraziz.

Conradengan eraginik handiena izan duten idazleak Flaubert, Mallarmé eta Henry James izan dira, baina berak ere izan du eraginik zenbait idazlerengan, besteak beste, Graham Green, George Orwell, William Golding (begibistakoa da *Heart of Darkness*ek *Lord of the Flies* (Eulien ugazaba) nobelan duen eragina, eta Luis Borges idazle argentinarrarentzat Joseph Conrad nobelagilerik gorena da. T.S. Eliot olerkariak *Heart of Darkness*en aipu batzuk egiten ditu bere lanetan. Era berean, erakarpen berezia izan du zine zuzendariengan, batez ere Werner Herzog eta Francis Ford Coppolarengan, azkeneko honek Vietnamgo Gerrari buruz burutu zuen *Apocalypse Now* filmeak oinarri sendotzat baitu *Heart of Darkness* nobela.

Hemeretzigarren mendeko azken urtean idatzia, *Heart of Darkness* hogeigarren mendeko lehen nobelatzat har daiteke, duen zalantza eta ambiguitasun giroagatik, konfiantza moralaren galtzeagatik, «fede»rako beharagatik moral

aldeko basatasunaren erdian, subkontzientearen esplorazioagatik eta gizabanakoaren askatasuna konfirmatzeagatik.

Istorioan azaltzen den kolonizazioaren diruzalekeriak eta zapalkuntzak, eta gizonen asmozintzoen, goi idealen eta egiten dutenaren artean dagoen amildegizabalak ikaragarriko garrantzia dute oraindik ere, eta Marlowek «lurraren konkista» deitzen zionak oraindik ere aurrera darrai, eta oraindik «ez da horren gauza polita ber-bertatik ikusten baduzu».

Inperio belgikarrak eta britainiarrak gainbehera egin dute, baina beste batzuek hartu dute haien tokia. Marfil zuriaren ordean petrolio beltza jotzen da «harrapakin» nagusitzat eta «ideia»ri dagokionez, «fede desinteresatua... goraldua izan daitekeen zerbait, eta bere aurrean ahuspeztu eta opariak eskaini» urrunegi dago oraindik. Progresoa da, noski, horietako bat. Guk ondoen ezagutzen dugun ideia ia sakratuak — egiten dugun guztia hobekuntza da eta gizadiak aurrerako mugimendu etengabea du— oraindik ere euskarri bat dauka gizartean; eta progresoa deitzen zaionaren sarraskiez gero eta gehiago

jabetzen eta haien aurrean gero eta lotsatuago sentitzen garen neurrian heldulekua poliki-poliki desagertzen ari da, baina oraindik ez dugu erabat itxi Marlowek garratzasunez deitzen zion «progresoaren zakarrontzia»ren tapakia.

Gizon zintzo askorik ere badago, Kurtz bezalakoak, ideiak aurrera eramateko, baina, berak bezala, haien ideien eta egiten dutenaren artean amildegi zabala dago. Ilunbeak, Marlowek azkenean ikusi zuen bezalaxe, gure inguruan daude, eta gure baitan ere bai. Arazoa zera da, zeinek dauka horiei «eusteko» behar adinako kemena?

Iñaki Ibañez

ILUNBEEN BIHOTZEAN

Nellie, kruzeroko iola bat, oihalen ikararik gabe aingura aldera kulunkatu eta bertan gelditu zen. Ur gora zegoen, ez zebilen haizerik ia-ia eta ibaian behera zihoalarik gauza bakarra egin zezakeen, aingura bota eta ur beherari itxaron, alegia.

Thameseko bokalea gure aurrean hedatzen zen ubide amaiezin baten hasera bailitzan. Ikusmenean zeru-itsasoak joskurarik gabe urtzen ziren elkarrekin eta eremu argitsu hartan itsasgorak bultzaturiko gabarretako oihal onduak, punta zorrotzeko mihise sorta gorritan, barnizaturiko masten islekin geldirik ziruditen. Lainopeak lautada aienakorretan itsasorantz ezabatzen zen behe lurraldearen gainean atsedeten zuen. Airea ilun zen Gravesend gainean eta harantzago oraindik ilunbe goibel batean trinkotua zirudien, geldotasun mehatxagarrian lurbirako hiririk zabalaren eta handienaren gain.

Konpainien Zuzendaria genuen kapitain eta anfitrioi. Guk laurok adeitasunez begiratzen

genion bere bizkarrari brankan itsasaldeari so zegoela. Ibai osoan deus ez zen urtar itxura handiagorik zuenik. Kai gizona zirudien, marinela-
rentzat fidagarritasunaren irudia bera dena. Zail zen imajinatzen lana ez zuela han kanpoan, padura argitsuan egiten, baizik eta bere atzean, beldurgarrizko ilunbearen barrenean.

Gure arteko lotura, beste nonbait esan dudanez, itsasoarena zen. Banantzealdi luzeetan gure bihotzak elkarri lotzeaz gain, eramankor bihurrarazten gintuen besteren istorioekiko berdin konbikzioekiko. Abokatuak —lagun zaharretarik onena— urte asko eta bertute asko baitzitu, berak zeukan ontzi gaineko burko bakarra eta manta bakarraren gainean zegoen etzanda. Kontableak zegoeneko aterata zeukan domino kaxa bat eta fitxekin ari zen arkitekturazko jolasak egiten. Marlow txopan eserita zegoen hankak gurutzaturik, bizkarra gibel mastan etzanda zeukala. Masailak hondoratuak zeuzkan, azalmintza horia, bizkarra tente, aszeta itxura, eta besoak erorita zeuzkanez, esku ahurrak kanporantz, idolo bat zirudien. Zuzendaria, aingura ongi finkatuta zegoela ziurtatu ondoren, txopa

aldera ibili eta gure artera jesarri zen. Hitz bana-ka batzuk trukatu genituen nagiki. Berehala isil-tasuna zen nagusi iatearen gainean. Hargatik edo bestegatik ez genion domino saioari ekin. Pentsakor sentitzen ginen, ezgauza ezertarako, lasai ikusmiratzeko ez bazen. Eguna amaitzear zegoen dirdai bare eta bikain baten soseguan. Ura diz-diz bakean; zerua, garbi-garbi, arrastorik gabeko argi eremu ezta zen; Essexeko paduren gaineko gandua bera ere, ehun garden eta distiratsu bat bezalako zen, barrualdeko baso mui-noetatik zintzilikaturik behe lurraldea toles argiekin estaltzen zuena. Soilik ilunbea mende-baldean, ibaiaren goialdean mehatxatuz, bilaka-tzen zen gero eta ilunago, eguzkiaren hurbilaga-tik suminduta bezala.

Finean, bere erorkera kurbatu eta antzema-nezinean, eguzkia ortzi-mugara abaildu eta zuri bizitik gorri motelera aldatu zen, printzarik gabe eta berotasunik gabe, iraungitzeko zorian balego bezala, gizaide baten gainera mehatxagarri zegoen ilunbe haren ukipenaz herio zauriturik.

Segituan aldaketa bat gertatu zen ur gai-nean, eta baretasuna hain distiratsu ez, baina

sakonago bilakatu. Ibai zaharra zegoen zegoe-
nean geratu zen bere bokale zabalean eguna
amaitzean, bere hegietan bizi zen arrazari men-
dez mende zerbitzu onak eskaini ondoren, lurbi-
rako bazterrik urrunenetara gidatzen duen ubide
baten duintasun patxadatsuan luzatua. Korronte
ohoragarriari begira geunden, ez etorri eta beti-
ko joaten den egun labur bateko jario bizian, bai-
zik oroipen iraunkorren argitasun agurgarrian.
Eta egiazki, deus ez zaio errazagorik, «itsasoari
—esan ohi den bezala— begiramenez eta atxiki-
menduz jarraitu dion» gizon bati, Thamesen
behealdearen gaineko iraganaren izpiritu itzal-
tsua oroitzea baino. Mareak gora eta behera egi-
ten du bere zerbitzu etengabea, zein etxeko
atsedenera, zein itsasoko gudaldietara, garraia-
tu izan dituen gizon eta ontzien oroitzapenez
beterik. Nazioa harro daukaten gizonak oro eza-
gutu eta zerbitzatu ditu berak, sir Francis Drake-
rengandik hasita sir John Frankilenganaino, zal-
dunak denak, tituludunak nahiz titulugabeak:
itsas zaldun errari ospetsuak. Berak garraiatu-
riko ontzi guztien izenak denboraren gauean diz-
diz dagiten harri bitxiak bezala dira, hasi *Golden*

Hindetik, bere sabel borobilak altxorrez beteta itzultzen zena Maiestate Erreginak bisita ziezaiola, eta horrela legenda erraldoitik desagertzeko, eta *Erebus* eta *Terroreraino*, bestelako konkistatarako abiatuak eta inoiz itzuli ez zirenak. Berak ontziak eta gizonak ezagutu zituen. Partituak ziren Deptfordetik, Grenwichtetik, Erithetik, abenturazaleak eta kolonizatzaileak; errege ontziak eta Merkataletxeko gizonen ontziak; kapitainak, almiranteak, Ekialdeko merkataritzan ziharduten «trafikari» ilunak, eta Ekialdeko Indiatako «bitartekari» komisionatuak. Urre bilatzaileak zein ospe jarraitzaileak, denak ziren korrante horretan abiatu, ezpata eskuan, eta askotan zuzia, erresumako boterearen mezulari, su sakratuzko txinparta baten eroale. Zein handitasun ez ote da uretaratu ibai horren beheraldian lurralde ezezagun baten misteriorantz!... Gizonen ametsak, kolonien haziak, inperioen kimuak.

Eguzkia sartu zen; ilunabarra uretara abaildu eta argiak kostaldean zehar agertzen hasi ziren. Chapmaneko faroak, lautada zingiratsu batean jasotako hiru hankadun gauza batek, biziki diridi-

ratzen zuen. Ubidexkan ontzien argiak mugitzen ziren, argizko joan-etorri handia gora eta behera. Eta mendebalderago, ibaiaren goialdean muntrozko hiriaren kokalekua artean parte txarrez markatua zegoen zeruan, ilunbe mehatxagarria eguzkiaren argitan, argitasun beltza izarren azpian.

«Eta hau ere —esan zuen Marlowek bat-batean—, lurbirako ilunbetako toki bat izana da.»

Gutariko bakarra zen artean «itsasoari jarraitzen ziona». Berari buruz esan zitekeen okerrera zen bere mailaren eredugarri ez zela. Marinela zen, baina itsas erromesa ere bai; itsasgizon gehienek, ostera, honela esatea baldin badago, bizitza sedentarioa eraman ohi dute. Izaera etxe-koa dute, eta etxea beraiekin dute beti: ontzia; berdin aberria: itsasoa. Ontzi batek antz handia du beste batekin; itsasoa, berriz, beti bera da. Euren inguruaren aldaezintasunean kostalde arrotzak, aurpegi arrotzak, bizitzaren mugagabetasun aldakorra, irristan igarotzen zaizkie, misteriozko sentrazio batek estalirik ez, baina ezjakintasun apur bat erdeinagarri batez; ezen

itsasgizonari deus ez baitzaio misteriotsuagorik itsasoa bera baino, bere izatearen maistra eta Patua bezain sumaezin. Gainontzean, bere lanorduen ondoren, inoizko paseoaldi bat edo inoizko mozkorraldi bat lehorrean aski du kontinente oso baten sekretua bereganatzeko, eta jeneralean ohartzen da sekretua ezagutzeak pena merezi ez duenaz. Marinelen kontakizunek badute sinpletasun zuzen bat, beren esanahi guztia intxaur kraskatu baten oskolaren barruan sartzeko modukoa. Marlow, ordea, ez zen tipikoa (istorioak kontatzeko joeraz aparte) eta berarentzat pasadizo baten esanahia ez zegoen barnean, mamia bezala, kanpoan baizik, ipuina inguratuz eta bakar-bakarrik agertarazten zuen argiak lainoa agertarazten duen antzera, batzuetan ilargiaren argitasun espektralak agerian jartzten dituen laino harilkatu horien gisara.

Bere komentarioak ez zirudien batere harri-garria. Marlow bezalakoxea zen. Isilean izan zen onartua. Inork ez zuen ezta marmar egiteko ere nekerik hartu; eta geroxeago emeki-emeki esan zuen:

«Aspaldiko aldietan ari nintzen pentsatzen, erromatarrak honantz estreinako aldiz etorri zirenean, orain dela bederatziehun urte; lehengo egunean... Argia sortu zen ibai honetan geroztik —zaldunak esaten dituzue?—. Bai, baina belazean hedatzen den sutea bezala da, oinaztargi bat bezala hodeien barrenean. Gu sugarraren dardaran bizi gara. Iraungo ahal du mundu zaharra jira-biraka dabilen bitartean! Baina atzo bertan ilunbeak zeuden hemen. Imaginatu Mediterraneoko —nola deitzen zaie?— trirreme bikain bateko komandantearen sentimenduak, halako batean iparraldera bidalia, Galia ziztu batean zeharkatua, bere kargura ontzi bat, legionariak, hilabete batetan edo bitan, nonbait, ehunka erai-ki ohi zituzten ontzi txiki haietako bat —gizon trebe pilo bat ere izan behar zuten, alajaina—, irakurtzen duguna sinesten badugu, behintzat. Imagina ezazue bera hemen —munduaren bazterrean bertan, berunaren koloreko itsaso bat, kearen koloreko zeru bat, hauspoa bezain zurruna den ontzi mota bat— eta ibai honetan joanez hornidurekin, edo aginduekin, edo nahi duzuenarekin. Hondar-pilak, zingirak, oihanak, basatiak;

gizon zibilizatu batek jateko modukorik ezer gutxi, edatekorik ezer ez Thameseko ura baizik. Falernoko ardorik gabe, hemen, lehorrera egin gabe. Hor-hemenka kanpamendu militar bat basa lurralde batean galduta, orratz bat bezala lasto meta barruan —hotza, lainoa, ekaitzak, izurriteak, erbestea, eta heriotza— zelatari heriotza airean, uretan, sastrakan. Euliak bezalaxe hilko ziren hemen. Bai, bai; egin zuen. Oso ondo egin ere, dudatu gabe, eta hartaz asko pentsatu gabe, ez bazen beranduago, bere bizialdian egindakoaz harropuzteko, agian. Ilunbeei aurpegi emateko bezain gizon ziren. Eta agian adore ematen zion handik lasterrera Ravenako ontzi flotara mailaz igotzeko abagunea izateak, baldin eta Erroman lagun onak bazituen eta klima gaiztoan bizirik irauten bazuen. Edo pentsatu togaz jantzitako hiritar gazte prestu bat —agian joko zale amorratua, badakizue— hona iristen dena, gobernari, zerga biltzaile edota merkatariren baten segizioan, bere ondasuna berregiteko asmotan. Zingiradi batean lehorreratu, basoetan barrena ibili eta barrualdeko tokiren batean basakeria, basakeriarik ankerrena, bere ingu-

ruan hesten dela nabaritzen du; oihanean, jungalatan eta basagizonen bihotzetan dardaratzen den basatasunaren bizitza misteriotsu guzti hori. Ez dago inolako hastapenik misterio horietarako. Ulergaiztasunaren baitan bizi behar du, arbuigarria ere badena. Eta horrek ere badu lilurarik, berarengan eragina izango duena. Izugarriaren lilura, badakizue, imajinatu damua areagotzea, ihes egiteko irrika, ezinbesteko nahigabea, etsipena, gorrotoa.»

Isildu zen.

«Pentsa —berriro ekin zion beso bat ukondotik altxatuz, esku ahurra kanporantz, eta nola hankak bere aurrean gurutzaturik zituen, Buda baten planta zeukan, predikuan ari zena europarez jantzita eta loto lorerik gabe—. Pentsa, gutako inor ez zen bera bezalaxe sentituko. Salbatzen gaituena eraginkortasuna da, eraginkortasunarekiko debozioa. Baina tipo horiek, ez zuten garrantzi handirik, izan ere. Ez ziren kolonizatzaileak; euren administrazioa ez zen zapalkuntza baizik, hori besterik ez zela susmatzen dut. Haiek konkistatzaileak ziren eta horretarako indar hutsa besterik ez duzu behar, harro egote-

ko moduko ezer ez hori baldin badaukazu, ze norberaren indarra besteren ahuleziatik datorren halabeharra baino ez baita. Eskura zezaketen guztia harrapatzen zuten, harrapatzearen aldera bakarrik. Indarkeriazko lapurreta hutsa zen, hilketa astungarria neurri handitan burutua, eta gizonak itsumustuan joanik, ilunbeei erasotzen dietenei dagokien bezalaxe. Lurraren konkista, azken finean guk ez bezalako azal kolorea edo sudur zapalxeagoa dutenei hura kentzea esan nahi duena, ez da horren gauza polita bertatik ikusten baduzu. Ideiak bakarrik salbatzen du. Ideia bat bere atzean; ez nahikunde sentimental bat, ideia bat baizik; eta fede desinteresatu bat ideiarekiko, goraldua izan daitekeen zerbait, eta bere aurrean ahuspeztu eta opariak eskaini...»

Hitza moztu zuen. Ibaitek suak lerratzen ziren, su ttiki berdeak, su gorriak, su zuriak, elkarri jarraituz, aurrea hartuz, bat eginez, elkarrekin gurutzatuz, gero bananduz poliki nahiz bizkorki. Hiri handiko trafikoa aurrera segitzen zuen ibai lokabearen gainera sakonagotzen zen gauean. Guk ikusmiran jarraitzen genuen, egonarriz itxa-

roten —beste zereginik ez ur gora amaitu artean; baina isilune luze baten ostean, dudamudazko ahotsez zera esan zuenean «Uste dut, adiskideok, gogoan izango duzuela nola behin ur gezatako marinel bihurtu nintzen bolada batean» orduantxe bakarrik jakin genuen, ur beheara hasi aurrez, Marlowen pasadizo badaezpadakoren bat entzutera kondenatuta geundela.

Ez zaituztet gehiegi gogaitu nahi neroni gertatu zitzaidanarekin —hasi zen, ohar horrekin kontalari askok beren entzulegoak entzun nahi lukeenaren ezjakinean egonik, antza, maiz erakusten duten ahulezia berbera erakutsiz—, nahiz eta, nigan izan zuen eragina ulertuko baduzue jakin beharrean zaudeten nola heldu nintzen hara, zer ikusi nuen, nola joan nintzen ibai horretan gora gizagaixo hura estreina topatu nuen lekuraino. Nabigazio tokirik urrunena zen eta nire pasadizoaren helmuga. Bazirudien halako argitasuna sortzen zuela nire inguruko gauza guztietan eta nire pentsamenduen baitan. Nahiko laiotza ere bazen —eta eskasa—, apartekoa ez inolaz ere, ezta oso argia ere. Ez, oso argia ez.

Hala ere, bazirudien haiako argitasuna sortzen zuela.

Aldi hartan, gogoratuko duzue, Londone-tik itzuli berria nintzen, bolada batez Indiako Ozeanoan, Borean eta Txinako Itsasoan igaro ondoren —Ekialdeko asealdi ederra— sei urtez edo, eta alferkerian nenbilen, zuei lanean enbazu egiten eta zuen etxeetara noiznahi sartzen, zuek zibilizatzeko misio zerutarra izango banu bezala. Primeran egon zen denboraldi baterako, baina laster nazkatu nintzen egonean egoteaz. Orduan ontzi bila hasi nintzen —munduko lanik zailena, seguru aski—. Ontziek, baina, begiraturik ere ez zidaten egiten. Eta nazkatu nintzen joko horretaz ere.

Zera, mutikotan mapa zale porrokatua nintzen. Orduak eta orduak ematen nituen begiratzeko Hegoamerika, edo Afrika, edo Australia, eta esplorazioaren aintzetan galtzen nintzen. Aldi hartan hutsune asko zegoen lurraren gainean eta mapan bereziki tentagarria zirudien bat ikusten nuenean (hala ematen zuten denek, baina) behatza gainean ipini eta neure baitan esaten nuen: «Handia naizenean horra joango naiz».

Iparburua zen leku horietako bat, gogoan dut. Bada, egon gabea naiz oraindik eta honez gero ez dut ahaleginik egingo. Dagoeneko xarmarik ez du. Beste leku batzuk Ekuatore inguruan barreiatuak zeuden, latitude guztietan eta bi hemisferioen luze-zabalera guztian. Horietako batean edo bestean izanda nago eta... Beno, ez dugu horretaz hitz egingo. Baina bazegoen bat artean ere —handiena, hutsena, nolabait esanda— tirriatzen ninduen.

Egia esan ordurako jada ez zen hutsune bat. Nire haurtzarotik ibaiez eta aintzirez eta izenez betetzen joan zen. Utzia zion misterio atseginezko hutsune, mutiko bati aintzazko ametsak eragiteko adina zuriune izateari. Ilunbetako toki bat bilakatua zen. Baina bazegoen bertan ibai bat bereziki, ibai handi ahaltsu bat, mapan ikusten zena, sigi-sagako suge ikaragarria zirudiena, burua itsasoan, gorputza atsedenean luze bihurturik herrialde zabal batean barrena, eta isatsa lurraldearen barrenean galtzen zitzaiona. Eta denda bateko eskaparatean mapari begiratzen nionean liluratu egiten ninduen sugeak txoria bezala, txori ttiki leloa. Gero gogoratu zitzaidan

bazegoela enpresa handi bat, Konpainiabat, ibai horretan merkataritzan ziharduena. Arraiopola! Pentsatu nuen neurekiko, ezin dute ur geza handi horretan merkataritzan jardun ontzi klase-
ren bat erabili ezean. Baporeak! Zergatik ez saiatu horietako baten kargu egiten? Fleet Streeten aurrera jarraitu nuen baina ezin ideia hori burutik kendu. Sugeak txoratu egin ninduen.

Kontutan eduki merkatal sozietate hori Kontinenteko enpresa bat zela; baina senide mordo bat daukat kontinentean bizi direnak, merkea delako eta ez omen da dirudien bezain gogaikarria.

Aitortu beharra daukat aspergarri izaten ere hasi nintzaiela. Jokabide hura gauza berria nuen, benetan. Gauzak horrela lortzen ez nago ohituta, badakizue. Ni beti neure bidetik eta neure kabuz joaten nintzen norabait joateko asmoa nuenean. Neronek ere ez nuen sinetsiko; baina gero, aizue, nolabait sentitu nuen haraino heldu behar nuela, aldez edo moldez. Bada, aspergarri izan nintzaien. Gizonek esan zuten: «Ene lagun maittea» eta ez zuten ezer egiten. Gero —ezetz sine-tsi?— emakumeekin saiatu nintzen. Nik, Charlie

Marlowek, emakumeak baliarazi nituen lanpostu bat eskuratzeko. Alajaina! Beno, ikusten duzue-nez, ideiak erakarri egiten ninduen. Banuen izeba bat, arima maitagarri sutsu bat. Idatzi zidan: «Zoragarria izango da. Zuregatik edozer gauza egiteko prest nago, edozer gauza. Ideia bikaina da. Administrazioko jaun goren baten emaztea ezagutzen dut, baita ere gizon bat influentzia handikoa...» etab. etab. Bost ahalak egitera deliberatuta zegoen, harik eta ni ibai bapore bateko patroizendatzen ninduten arte, nire nahia hori baldin bazen, behintzat.

Karguaz jabetu nintzen, noski, azkar asko jabetu ere. Agi zenez, Konpainiak albistea jasozuen, bere kapitainetako bat hilik gertatu zela indioekin izandako liskar batean. Hortxe nuen aukera eta horrekin batera joateko irrika areagotu egin zitzaidan. Hilabete askoren buruan, gorputik gelditzen zena berreskuratzen ahalegindu nintzenez, orduantxe aditu nuen gatazka, hain zuzen, oilo batzuei buruzko gaizki ulertze bategatik piztua zela. Bai, bi oilo beltz. Freslevenek—hala zuen izena tipoak, Danimarkakoa bera—pentsatu omen zuen tratuan iruzur edo egin zio-

tela; hortaz, ontzitik lurreratu eta herrixka hartako buruzagia makila batekin jipoitzen hasi omen zen. Bada, ez zitzaidan batere harritu hura entzutea, ezta bidenabar jakitea ere Fresleven hura bi hanka gainean egundo ibili den gizasamerik goxoena eta lasaiena zela. Halakoxea zela dudarik ez da; baina urte pare bat edo baziren kanpoan zela kausa nobleari emana, badakizue, eta atzenean seguru aski bere buruarekiko begirunea nola edo hala berresteko beharra nabaritu zuen. Hala, bada, gupidagabeki makilatu zuen agure beltza, anartean beretar gizaldra handi bat berari begira zegoela, harri eta zur, harik eta norbaitek —buruzagiaren semea omen— zaharraren auhenak entzuteaz etsiak hartuta, gizon zuriari lantza batekin zitzada beldurtia jo zion arte, eta jakina, aise sartu zen soin-gurutzean barrena. Gero herri osoa oihanera ezkutatu zen, era guztietako ezbeharrak etorriko zirelakoan, eta beste aldetik, Freslevenen gidaritzapeko baporea ere ibairatu egin zen, izu gaiztoak harturik, mekanikaria buru zela, uste dut. Geroztik inor ez omen zen Freslevenen gorpuzkinez asko arduratu, ni neu iritsi eta bere ordeztatu nint-

tzen arte. Ezin nuen, bada, horrela utzi; baina azkenez neure aurrekoarekin topatzeko abagunea suertatu zitzaidanean, bere saihetsen arte-tik hazten zen belarra hezurak estaltzeraino bezain luzea zen. Hantxe zeuden denak. Naturaz gaindiko izakia inortxok ere ez zuen ukitu behin erori zenez gero. Eta herrixka inor gabe zegoen; etxolak zabal-zabal eta beltz, usteltzen eta guttiz okertuta hesitu eroriaren barruan. Ezbeharra etorria zen, dudarik gabe. Jendea desagertu egin zen. Izu laborriak sastraka aldera uxatu zituen gizonak, emakumeak eta haurrak, eta inoiz ez ziren itzuli. Oiloen azkenaz ere ezer ez dakit. Pentsatzen dut progresoaren kausak harrapatuko zituela, nolana ere. Zena zela, aintzazko egitate hura medio jabetu nintzen karguaz, berau neureganatzeko itxaropena izaten hasi baino ere lehenago.

Ero moduan ekin nion prestamenak egiteari eta berrogeita zortzi ordu baino lehen Kanala igarotzen ari nintzen nagusiei neure burua aurkeztu eta kontratua sinatzeko. Ordu gutxiren buruan hiri batera heldu nintzen, betiere hilobi zuritu bat gogorarazten didana. Aurreiritzi bat,

zalantzarik gabe. Ez nuen eragozpenik izan Konpainiaren bulegoak aurkitzeko. Hiriko gauzarik handiena zen eta topatu nuen mundu guztiak aho betean aipatzen zuen. Itsasoaz bestaldeko inperio bat gobernatu behar omen zuten eta dirutza handiak egin merkataritzarekin.

Kale mehar eta mortu bat itzalpe betean, etxe handiak, ezin konta ahala leiho estalki veneziarrekin, hilerriko isiltasuna, belarra harri tartean ernetzen, arkupe ikusgarriak ezker eta eskuin, atal biko atetzar astunak erdi zabalik. Horietako zirrikitu batetik barruratu nintzen, eskobaturiko eta apaindurarik gabeko ezkaratz bat, basamortua bezain elkorra igo eta topatutako lehenengo atea zabaldu nuen. Bi emakume, bata lodia, liraina bestea, lastozko aulki apal banatan eserita, artile beltzarekin ehuntzen. Emakume liraina zutitu eta zuzenean nigana ibili zen —artean ehuntzen begiak apaldurik— eta bere bidetik kentzea pentsatzen hasita nengoe-la, sonanbulu batekin egingo litzatekeen bezala, orduantxe burua altxa eta so egin zidan. Bere soinekoa guardasolaren oihala bezain leuna zen; hitzik gabe jiratu eta bere atzetik eraman nin-

duen itxaron gela bateraino. Izena eman nuen eta ingurunera begiratu. Zurezko mahai bat erdian, aulki arruntak horma guztien kontra, mapa handi distiratsu bat izkina batean, ortzadarraren kolore guztiekin markatua. Gorria kopuru handian zegoen —atsegina ikusteko edozein unetan— erakusten baitu hor taxuzko lana ari dela burutzen, urdin mordoa, berde pixka bat, laranja zipriztinak eta zerrenda more bat Ekialdeko kostaldean, progresoaren aitzindari alaiek beren zerbeza motel alaigarria non edaten duten adierazteko. Ni, ordea, ez nintzen haietako ez batera ez bestera joango. Hori koloreira nindoan. Hilda erdialdean. Eta hantxe zegoen ibaia, liluragarri, hilgarri, suge baten antzera. Hara! Ate bat zabaldu, idazkari baten buru urdin baina begitarte errukiorrekoa ageri eta behatz zuzen argal batek santutegira sarrarazi ninduen. Argi motela zegoen, eta idazmahai gotor batek gela erdia betetzen zuen. Eraikuntza horren atzealdetik lebitaz jantzitako lodikote zurbil baten irudia azaldu zen. Gizon handia bera. Bost oin bete t'erdiko luzera zuen, hala bota nion, eta milioi asko ibiltzen zituen eskuartean. Bostekoa

eman zidan, hala uste dut, lausoki marmaratu, nire frantsesa ontzat eman zuen. *Bon Voyage*.

Berrogeita bost bat segundoren buruan berriro itxaron gelan aurkitu nintzen idazkari errukiorrarekin, eta honek, goibeltasunez eta urrikaltasunez, zenbait agiri sinarazi zidan. Uste dut konprometitu nintzela, besteak beste, merkatal sekreturik ez plazaratzera. Beno, hori egiteko asmorik ez dut.

Pixka bat ondoezik sentitzen hasita nengoen. Zuek badakizue ni ez nagoela horrelako zeremoniatara ohituta, eta giroan bazegoen zerbait mehatxagarria. Zera bezala, konspirazio batean parte hartzera sartu banintz bezala, ez dakit, oso zuzena ez zen zerbait; eta pozik nengoen irten izanagatik. Beste gelan bi emakumeek kartsuki ehuntzen zuten artile beltza. Jendea ailegatzen ari zen, eta bietan gazteena atzera eta aurrera zebilen hura sarrarazten. Zaharra aulkian eserita zegoen. Painuzko bere zapatila lauak berontzi baten gainean ezarrita zeuden eta katu bat zegoen bere magalean etzanda. Buruan halako gauza txuri almidoiztatu bat zeukan jantzia, garatxo bat masailean eta zilarrezko euskarridun

antiojuak sudur puntari itsatsiak. Antiojuen gaineratik begi eman zidan. Soaren goxotasun bizi ezaxolatiak asaldatu egin ninduen. Aurpegi inozo eta alaiko bi gazte barrura gidatuak ari ziren eta berak jakituriazko begirada arduragabe berbera bota zien. Bazirudien haietaz, eta nitaz ere, dena zekiela. Halako sentsazio arraro batek hartu ninduen. Itxura misterioetsua eta patu txarrekoa zuen. Handik urrun nengoela maiz pentsatu nuen bi emakume haietaz, Ilunbetako atea zainduz, artile beltzarekin ehunduz hil-jantzi epel baterako bezala, bata barrura sarraraziz, etengabe sarraraziz ezezagunerantz, bestea aurpegi alai inozoak aztertuz bere begi zahar arduragabeekin. *Ave!* Artile beltzaren ehule zaharra. *Moritururi te salutan!* Berak so egindako askok ez zuen bera inoiz berriro ikusi, erdiak ere ez, gehienera jota ere.

Medikuari bisita falta zen artean. «Formalitate hutsa» segurtatu zidan idazkariak nire zoritxar guztietan guztiz bat zetorkidalako aire batekin. Hala bada, sonbreirua ezkerreko bekainaren gainera okertuta zeraman tipo gazte bat, enplegaturen bat, pentsatzen dut —negozioan bazeu-

den enplegatuak, antza, nahiz etxe hura herioaren hiriko etxe bat bezain isilik egon— eskaileran nonbaitetik azaldu eta gidatu ninduen. Itxura baldresa eta moldakaitza zuen, jakaren besoak tintaz zikinduta, eta gorbata handi harroa bota zahar baten muturraren antzeko bere kokotsaren azpian. Medikuarengana joateko goiztxo zen artean, beraz, zerbait edatea proposatu nion eta berehalaxe pozik baino pozikago agertu zen. Geure bermuten aurrean eserita geundela Konpainiaren negozioak goraiatu zituen eta geroxeago aipatze aldera nire harridura adierazi nion bera harantz ez joateaz. Derrepentean oso hotz eta uzkur agertu zen. «Ez naiz ematen dudan bezain ero, jaulki zien Platonek bere dizipuluei» sententziatu zuen, bere edalontzia deliberamentu sendoz hustu eta altxa egin ginen.

Mediku zaharrak pultsua hartu zidan, beste zerbaitetan pentsatzen ari zela, bistan zen. «Ongi, hara joateko ongi» ahapeka esan, eta gero halako irrika batez galdegin zidan ea burezurra neurtzen utziko nion. Harritu samar baietz esan nion eta orduantxe konpas antzeko gauza bat atera eta atzetik, aurretik eta alde guztietara

tik neurtu zidan, arreta handiarekin oharrak hartuz. Gizon txikia zen, bizarra egin gabea, gabardina antzeko beroki higitu bat zeraman eta oinak zapatilaz jantzia, eta ero kaltegabetzat jo nuen. «Nik beti, zientziaren interesetan, burezurra neurtzeko baimena eskatzen diet hara joaten direnei,» esan zuen. «Eta itzultzen direnean ere bai?» galdetu nion. «Ez ditut inoiz ikusten eta —komentatu zuen—, gainera, aldaketak barre-nean gertatzen dira, badakizu.» Irribarre egin zuen, broma txiki bat izan balitz bezala. «Hara joatekoa zara, orduan. Zoragarria. Interesgarria ere bai.» Begirada aztertzailea bota eta beste ohar bat hartu zuen. «Zure familian inoiz erotasun kasurik bai?» galdegin zidan doinu neutro batez. Erresuminduta sentitu nintzen. «Galdera hori ere zientziaren interesetan al da?» «Zientziarako interesgarria litzateke —esan zuen nire suminduraz ohartzeko— gizabanakoen adimen aldaketak bertatik bertara ikuskatzea, baina...» «Zu alienista zara?» eten nion. «Mediku guztiek izan behar lukete... pixka bat,» erantzun zuen xeblebre hark lasai-lasai. «Nik badut teoria txiki bat, zuek, hara joaten zareten Monsieur horiek

frogatzen lagundu behar didazuena. Hango kolonia bikainaren jabetzatik nire herriak aterako dituen etekinetatik niri dagokidan partea da. Aberastasuna bera besteri uzten diet. Barkatu nire galderak baina zu lehenengo ingelesa zara nire ikuskapenean jartzen dena...» Behingoan segurtatu nion batere eredugarria ez nintzela. «Horrela izatera,» esan nion, «ez nintzen zurekin honela hitz egiten egongo.» «Zuk diozun hori nahiko sakona da eta seguru aski erratua,» esan zuen barre algara batez. «Begira zaitetz sumintzetik, eguzkitan egotetik baino gehiago. Adieu. Nola esaten duzue zuek ingelesez, Eh? Good-bye. Ah! Good-bye. Adieu. Tropikoetan lasaitasuna gorde behar izaten da ezeren aurretik.»... Behatz zuzen aholkulari bat jaso zuen... «*Du calme, du calme. Adieu.*»

Beste gauza bat gehiago zegoen egiteko, nire izeba zoragarriari adio esan, hain justu ere. Garaile aurkitu nuen. Kikarakada bat te hartu — azken kikarakada te itxurazkoa egun askotarako— eta dama baten egongela zer nolako izatea espero zitekeen, lasaigarriro halako itxura zeukan gela batean solasaldi luze patxadatsua izan

genuen sutondoan. Konfiantza horietan hauxe azaldu zitzaidan argiro, agintari gorenaren emazteari eta, gainera, Jainkoak daki zenbat jende gehiagori, gizaseme bikain eta dohatsu agertu ninduela, zorioneko aurkikunde bat Konpainiarentzat, egunero harrapatzen ez den gizon bat. Alajaina! eta ni ibai bapore kaxkar baten kargu egitera nindoan, txilibitu kaxkar bat zeukana gainera! Agi zenez, ordea, ni ere Langileetako bat omen nintzen, L handiarekin, badakizue. Argiaren mezulari antzeko zerbeit, behe mailako apostolu antzeko zerbeit. Horrelako zabor piloa idatzi eta hitz egin zen horri buruz garai hartan, eta andere zoragarriak, berritsukeria guzti haren zalapartan bertan bizi zenez, bere burua eramaten utzi zuen. «Milioika ezjakin horiek euren ohitura ikaragarrietatik erauzi» beharraz mintzo zen, harik eta, zinez diotsuet, nahikoa gogaitu ninduen arte. Arriskatu nintzaion adieraztera Konpainia probetxu bila zebilela.

«Ez ahaztu, Charlie maitea, langilea bere soldataren duin dela,» esan zidan irribarretsu. Bitxia da nola dauden emakumeak errealitatetik

hain urrun. Euren munduan bizi dira, eta ez da inoiz horren antzekorik izan eta ezin inoiz izango. Ederregia baita, izan ere, eta eraikitzeari ekingo baliote, eguzkia sartu aurretik txikituko litzateke. Mundua sortu zenetik gizonok amore emanda bizi izan garen egite madarikaturen bat sortu eta dena lurretik botako luke.

Ondoren besarkada bat eman, franelaz janzteko esan, sarri idazten ez ahazteko, eta abar... eta alde egin nuen. Kanean —ez dakit zergatik— inpostore bat nintzelako sentsazio arraroak asaldatu ninduen. Harritzeko gauza da, nik, alegia, hogeita lau orduko epean, gizon gehienek kalea gurutzatzeko behar dutena baino gutxiago pentsatuta, munduko edozein tokitara abiatzen ohi-tuta nagoenak, une bat izatea, duda-mudazkoa ez dut esango, baina bai nahasmenduzko geldiu-ne bat, afera hutsal honi heldu aurretik. Zuei azaltzeko modurik onena zera esatea da, segun-do pare batez edo, sentitu nintzela kontinente baten bihotzeraino joan beharrean, lurraren bihotzeraino abiatzear nengoela.

Bapore frantses batean itsasoratu nintzen eta frantsesek han dituzten portu madarikatu

guztietan atrakatu zuen, zertarako eta, nik daki-
dala, soldaduak eta aduanako enplegatuak lehor-
rerratzeko, ez besterako. Kostaldea ikusmiratzen
nuen. Ontziaren aurretik lerratuz doan kostaldea
ikusmiratzea enigma batean pentsatzea bezala
da. Aurrez aurre daukazu, irribarretsu, kopetilun,
kilikari, harro, doilor, geza edo basati, eta betie-
re mutu, «Zatoz eta aurki nazazu,» xuxurlaka
bezala. Kostalde hau, ia aurpegirik gabea zen,
izan ere, artean eraketan balego bezala, itxura
goibel eta monotonoa agertzen zuelarik. Oihan
tantai baten ertza, berdearen ilunez ia beltza
zena, apar zuriz azpildua, zuzen zihoan, errege-
laz eginiko marra bat bezala, urrutira, aski urru-
tira, itsaso urdinean barrena, beronen distira
gandu igokari batez lausoturik. Eguzkia kiskalga-
rri, lurrak dirdai eta lurrun jario zirudien. Han-
hemenka ñabardura grisaxka-zurixkak ageri
ziren apar zuriaren baitan, euren ganean bande-
ra bat zabal-zabal, apika. Zenbait mendetako
egoitzak eta orratz buruak baino handiagoak ez
artean hondoko zabalgunek ukitu gabearen
aldean. Aurrera gindoazen poliki, geldituz, solda-
duak lehorreratuz, jarraituz, aduanako enplega-

tuak lehorreratuz zergak biltzeko Jainkoak esku-
tik utzitako basamortu antzeko hartan, han non
latorrizko txosna bat eta bandera masta bat gal-
durik zeuden; soldadu gehiago lehorreratuz,
aduanako enplegatuak babesteko, nonbait.
Batzuen batzuk, erresakarekin ito omen ziren;
hala izan edo ez, nolana ere, ez zirudien inor
bereziki arduratu zenik. Haiek hantxe utzi eta
geuk aurrera segitzen genuen. Egunero berdina
ematen zuen kostaldeak, mugitu ez bagina
bezalaxe; ordea, zenbait portu igaro genituen,
merkatal portuak, hala nola, Gran Bassam edo
Little Popo izenekoak; antzokiko oihal malapar-
tatu baten aurrean jokaturako fartsa gordin
bateko izenak ziruditenak. Bidaztiaren astial-
diak, neure isolamenduak inolako kidetasunik ez
nuen gizon haien artean, itsaso koipetsu eta
naroak, kostaldearen itzaltasun lauak, baziru-
dien gauzen egitasunetik kanpo edukitzen nin-
dutela, etsipen beltz eta zentzugabe bateko una-
duraren barnean. Erresakaren ahotsa, lantzean
behin egiazko gozamina izaten zen, anaia baten
hizketa bezala. Zerbait naturala, bere arrazoia
zuen, esanahi bat zuena. Noizean behin kostal-

detik zetorren txaluparen batek errealitateareki-ko atxikimendu aldi bat eskaintzen zuen. Beltz batzuk ari ziren arraunean. Urrundik haien begietako zuria diz-diz ikus zitekeen. Oihuka, kantari; gorputzak izerdi patsetan; gizon haien aurpegiak maskara irrigarriak bezalakoak ziren; baina hezurak zituzten, giharrak, bizitasun basatia, mugimenduzko indar sendoa, euren kostaldeko erresaka bezain naturala eta egiazkoa zena. Han egoteko aitzakia beharrik ez zuten. Atsedean gozoa hartzen zen haiei begiratu-tuz. Aldi batez sentitzen nuen errealitate xumee-tako mundu baten partaide nintzela artean ere; baina sentazioak ez zuen luze irauten. Zerbait sortu ohi zen hura uxatzeko. Behin batean, oroi-tzen naiz, kostalde parean ainguratutako gerraontzi bat topatu genuen. Txosna bat ere ez zegoen bertan, eta sastraka bonbardatzen ari zen. Agi zenez, frantsesak inguru haietan zituz-ten gerratako batean murgildurik zeuden. Euren ezaugarria trapu baten modura zintzilik; sei ontzako kainoi luzeek beren ahoak agertzen zituzten ontziaren behealde osotik; itsasaldi koi-petsu eta likatsuak aupada nagia eman eta eror-

tzera uzten zuen, haren masta meheak kulunkaraziz. Azkengabeko lur, zeru eta ur eremu huts honetan, hantxe zegoen, ezin ulertuzko moduan, kontinente baten barrenera su eginez. Danba! Joko zuen sei ontzako kanoiak; sugar ttiki bat piztu eta itzaliko zen, ke zurizko bafada xume bat aienatuko zen, jaurtigai ñimiño batek kirrika motela egingo zuen eta deus ere ez zen gertatuko. Deus ere ezin zitekeen gerta. Bazegoen zentzugabekeria kutsu bat jokabidean, komedia beltzezko zentzu bat ikuskizunean; eta ez zen ezabatu itsasontziko norbaitek serio-serio esan bazidan ere han nonbait indioen kanpamendu bat zegoela —etsaiak deitzen zien!— agerritik ezkutatuta.

Hango eskutitzak eman (aditu nuenez itsasontzi bakarti hartan hiru gizon hiltzen ziren egu-nero sukarrak jota) eta aurrera jarraitu genuen. Izen irrigarriak zituzten toki gehiagotan ere por-turatu ginen, non herioaren eta merkataritzaren dantza alaiak oraindik gelditasunezko giro lurtarraz segitzen duen, galdan dagoen katakunba batean bezala; formarik gabeko kostaldean zehar, erresaka arriskugarritz azpildua, Natura

bera ere intrusoak aldentzen saiatuko balitz bezala; sartu eta irten ibaietan, heriozko korronteak bizian, bertako hegiak lokatzez ustelduak, bertako urak basaz lodituak eta mangle bihurrituen menpean, gure aurrean oinazez okertuta ziruditenak, etsipen ezdeus baten zorian. Inon ere ez genuen geldialdi aski luzerik egin hango inpresio xehea jaso ahal izateko, baina itolarri lauso eta hertsiairen sentrazio orokorra areagotu egin zitzaidan. Amesgaitzen aieru arteko pelegri-naia nekoso baten antzekoa zen.

Hogeita hamar egunetik gora joan ziren ibai handiaren ahoa ikusi nuenerako. Gobernuko egoitzaren aurrean ainguratu genuen. Ordea, nire lana ez zen hasiko berrehun bat milia urrunago baizik. Hala bada, ahal bezain laster, hogeita hamar milia goragoko toki baterantz abiatu nintzen.

Itsas bapore txiki batean egin nuen bidaia. Bere kapitaina suediarra zen, eta marinela nintzela jakitean, zubi gainera gonbidatu ninduen. Gizon gazte, lerdin, horail eta zakar bat zen, ilaia zimelekoa eta ibilera herrendua zuena. Kai mixerabletik alde egin genuenean destainaz era-

gin zion buruari hegiri begira. «Hor izanda zaude?» galdetu zidan. «Bai.» esan nion nik. «Jendilaje ederra gobernuko tipo horiek, ezta?» jarraitu zuen ingelesez zehaztasun handiz eta garratzasun nabarmenaz. «Harrigarria da hileko libera batzuen truk zenbait jende egiteko kapaz dena. Zer gertatzen ote zaie horrelakoei herrialde honetan sartzerakoan?» Nik esan nion hura laster ikustea espero nuela. «Bejondeizula!» oihi egin zuen. Zeharka ibili zen herren bat eginenez, begi bat erne aurrera begira. «Ez egon horren ziur —jarraitu zuen—. Lehengoan gizon bat ontziratu nuen kaminoan bere burua urkatu zuena. Suediarra zen, baita». «Bere burua urkatu! Zergatik, Jainkoarren?» garrasi egin nuen. Berak adi-adi begira segi zuen. «Zeinek daki? Eguzkia gehiegizkoa berarentzat, edo herrialdea, agian.»

Azkenez zabalgunek bat ireki genuen. Tontor malkartsu bat agerian, iraulitako lur piloak ur ertzean, etxeak muino baten gainean, burdinazko teilatuekin, eskabazioen nahaspila baten artean edota malkarrean dindilizka. Goragoko ur jauzien burrunba etengabea gailentzen zen biz-

tanduriko hondakizun eszena honetan. Jende mordo bat, beltzak gehienak eta biluzik, xinaurriak bezala mugitzen ziren. Kai mutur bat ibaian barrentzen zen. Eguzkiaren argi itsugarri batek hori dena itotzen zuen aldiro bat-batean dirdaia biziagotzean. «Hor dago zure Konpainiaren estazioa,» esan zidan suediarrek, barrakoi itxuraz pendiz harritsuan zeuden zurezko hiru eraikuntza seinalatuz. «Zure gauzak hor gora bidaliko ditut. Lau kutxa esan duzu? Ondo. Adio.»

Galdara bat topatu nuen txilipurdika belarretan; gero bide zidor bat aurkitu nuen maldan gora zihoana. Saihestu egiten zen harkaitzak zeudelako, baita burdinbideko orgatxo bat ere han zetzalako ahoz behera gurpilak gora zituela. Bat falta zuen. Animalia baten hezurdura bezain hila zirudien gauza hark. Hondatutako makineria atal gehiago topatu nuen, errail herdoilduak pila-turik. Ezkerretara arboladi batek gerizpea osatzen zuen eta bertan gauza ilunbetsuak ahulki eragiten zirela zirudien. Begiak kliskatu nituen, bide zidorrak aldapa handia zuen. Adar batek jo eskuinetara eta beltz jendea korrika ikusi nuen. Danbateko astun eta motel batek lurra ikaratu,

harkaitzetik ke bafada bat atera eta hori izan zen guztia. Ez zen aldaketarik ageri harri azalaren gainean. Burdinbide bat eraikitzen ari ziren. Harkaitza ez zen ez traba ez ezer, baina leherketa zentzugabe horiek ziren burutu beharreko lan guztia.

Tilin hots batek nire atzetik burua itzularazi zidan. Sei gizon beltz errenkadan zetozen, ozta-ozta bide zidorrean gora. Tente eta astiro zebiltzan, buru gainean saskitxo bana bete lur orekan, eta tilintina euren urratsekin batera. Lotsariak zarpail beltzez bilduta zeramatzaten, eta atzealdean haien mutur laburrak alde batetik bestera dantzatzen ziren, buztanak bailiran. Saihets hezur guztiak antzematen nizkien; euren beso-zangoetako hezur giltzak soka baten korapiloak bezala ziren; bakoitzak burdinazko uztai bana lepoaren inguruan, eta denak elkarri lotuta katea batekin, euren artetik dindilizka, erritmoki tilin hotsa ateraz. Malkarretik etorri zen beste eztanda batek kontinentearen barrenera su eginenez ikusi nuen gerraontzia gogorarazi zidan supituki. Ikaragarritzko ahots klase berbera zen; baina gizon haiei, irudimena estuegi lotuta ere,

ezin zitzaien etsaiak deitu. Kriminalak deitzen zitzaien eta bortxatutako legea, lehertzen ziren bonbak bezalaxe, itsasotik zen etorria, ulertezinezko misterio baten modura. Haien bular eskasak denak batera arnaska, indarrean puztutako sudurrak dardarka, begiak zorrozki begira mendi gailurrari. Arrabetera edo pasa zitzaizkidan, begiraturik ere egin gabe, zorigabeko basatiek ohi duten heriozko ezaxola bete horrekin. Lehengai honen atzetik damututako basati bat, laneko indar berrien emaitza, abail eginda paseatzen zen, errifle bat erditik helduta. Uniformeko jakaz jantzita botoi bat falta zitzaion eta bidean gizon zuri bat ikusirik, arma zalutasunez sorbaldaratu zuen. Hori zuhurtzia hutsagatik zen, gizon zuriak urrutira hain antzekoak izaki eta, ezin jakin nor izan nintekeen ni. Berehalaxe sosegatu zen eta keinu zabal, zuri, maltzur batekin, eta bere kargari begiratu, bere enpresa gorenean partaideztat hartzen ninduela zirudien. Azken finean, neu ere parte bat nintzen prozedura goitar eta zuzen haien kausa handian.

Goraka jarraitu ordez, bira eman eta ezkerretik jaitsi nintzen. Nire asmoa, izan ere, mendi

gailurrera igo aurrez gatibu kate hura bistatik
galtzea zen. Badakizue ni, izatez, ez naizela
xamurra; kolpeak eman eta gelditu beharra
suertatu izan zait. Eutsi beharrean gertatu izan
naiz eta oldartu beharrean ere inoiz —eusteko
modu bat baino ez dena— kontu zehatzak atera
gabe, zein bizimodutan murgildurik nengoen,
harexen eskakizunen arabera. Nik ikusia dut bio-
lentziaren deabrua, eta zekenkeriaren deabrua
eta grina gartsuaren deabrua; baina, Arraioa!
Deabru horiek gogorrak, kementsuak eta begi
gorriak ziren, gizonak menderatu eta goberna-
tzen zituztenak, gizonak diotsuet. Aitzitik, mendi
magal honetan nintzelarik barrundatu nuen
lurralde hartako eguzkiaren argi itsugarriaren
pean deabru maskal, hantuste eta begi epel bat
ezagutu behar nuela, eromen zikoitz eta urrikal
gabekoa. Zein malmutza izan litekeen, gainera,
zenbait hilabete beranduago eta hainbat milia
aurrerago bakarrik ezagutuko nuen. Lipar batez
abisu batek ikaratuta bezala geldirik egon nin-
tzen. Azkenik, aldapa jaitsi nuen, zeharka, iku-
siak nituen zuhaitzen aldera.

Albora utzi nuen zulozabal artifizial bat, mal-dan egiten norbaitek jardun zuena, zein helburu-ekin ez dakit, hori asmatzen ezinezko gertatu baitzitzaidan. Zernahi zela ere, ez zen harrobi bat ez hondardi bat. Zulo bat besterik ez zen. Zerikusia izan zezakeen kriminalei egitekoren bat emateko desira filantropikoarekin. Ez dakit. Gero amildegi estu-estu batera erortzeko zorian egon nintzen, pitzadura bat mendian, hori baino gehiago ez zena. Deskubritu nuen inportazioko drainatze hodi mordo bat bertara iraulkatua izan zela. Bat ere ez zegoen puskatu gabe. Gurarizko txikizio funsgabea zen. Atzenean zuhaitzen azpiraino heldu nintzen. Gerizpetik pixka bat ibiltze-ko asmotan nintzen, baina bertara ordukoxe Infernuren bateko zirkulu malapartatuan oina ezarri nuela iruditu zitzaidan. Ur lasterrak hurbil zeuden eta burrundara etengabe, berdin, bor-borkari eta jariotsuak soinu misteriotsu batez gaineztatzen zuen basoko gelditasun ituna, ez brisa ikararik, ez hosto firfirarik, bultzarazitako lurbiraren abiadura gaitza supituki entzungarri bilakatu bailitzan.

Irudi beltz kuzkurtuak, etzanak, eseriak, zuhaitzen artean, enborren kontra jarriak, lurrari atxikiak, erdi ageriak, erdi estaliak argi motelean, oinaze, abandonu eta etsipenaren jarrera guztietan. Malkarrean beste mina batek zapart egin eta horren jarraian lur azalaren ikara arin bat gertatu zen nire oinpean. Lanak aurrera egiten zuen. Lana! Eta hau zen langileetako batzuk hiltzera bakartu zireneko lekua.

Geldi-geldiro ari ziren hiltzen, oso argi zegoen. Haiek ez ziren etsaiak, haiek ez ziren kriminalak, haiek ez ziren lurreko ezer orain; ezer ez, eritasunaren eta ahuleriaren itzal beltzak baizik, erdi ilunbe berdexka hartan nahas-mahasean zeutzanak. Kostaldeko bazter orotatik aldi baterako kontratuen legaltasun osoarekin erakarriak, ingurune arrotzean galduak, etxekoaz bestelako janarekin elikatuak, gaixotu egiten ziren, ezgaitu, eta orduantxe gizartetik bakantzen eta atsedend hartzen uzten zitzairen. Agoniazko irudi horiek airea bezain libre ziren eta hori bezain finak ia-ia. Zuhaitzen azpian begien dirdira bereizten hasi nintzen. Orduan, behera begiraturik, aurpegi bat ikusi nuen neure eskuaren ondo-

an. Hezur beltzek besaburu bat zuten zuhaitza-
ren kontra luze eratzanik eta astiro-astiro beta-
zalak jaso eta hondoratutako begi handi hutsek
so egin zidaten, halako izpi itsu, zuri bat, betzu-
loen sakonean emeki itzali zena. Gizonak gaztea
zirudien, mutiko bat ia, baina horiekin zaila da
esaten, badakizue. Gauza bakarra egitea burura-
tu zitzaidan, patrikan neuzkan ene suediar mai-
tearen ontziko gaileta bat eskaini, alegia. Beha-
tzek poliki-poliki haren gainean itxi eta heldu
egin zioten: ez zen beste mugimendurik, beste
begiradarik izan. Lepo inguruan bilbe zurizko zati
bat lotuta zeukan. Zergatik? Non ote zuen esku-
ratu? Zer ote zen, ezaugarri bat, apaingarri bat,
kuttun bat ala ekintza propiziatorio bat? Ideiaren
batekin nolabait lotua ote zegoen? Itxura zirrara-
garria zuen bere lepo beltzaren inguruan itsaso-
az bestaldeko hari zurizko zati hark.

Zuhaitz beretik gertuan beste bi eskutada
angelu zorrotz zeuden hankak uzkuratutik. Bata,
kokotsa belaunen gainean jarria, ezerezari modu
eramanezin eta negargarrian begira zegoen;
bere anaia mamuak bekokia makurtuta zeukan,
ahidura gaitzak gainditua bezala; eta inguruma-

rietan beste batzuk zeuden barreiatuak pot egin-
dakoen postura bihurri guztietan, sarraski edo
izurrite bati buruzko koadro batean bezalaxe. Ni
anartean zutik nengoela, horroreak laztuta,
kreatura haietako bat bere esku-belaunen gai-
nean altxa eta lau hankan joan zen ibaira edate-
ra. Eskutik miazkatu zuen, gero eguzkitan eseri,
zangoak bere aurrean gurutzatuz, eta handik
pixka batera bere buru iletsua bular hezurrera
erortzen utzi zuen.

Ez nuen gehiago gerizpean alfer ibili nahi eta
presaka estaziorantz abiatu nintzen. Eraikuntze-
tatik hurbil nengoenean gizon zuri batekin topo
egin nuen, hain janzkera ustekabez dotorea
zuen, non hasieratik halako ikuskari moduko-
tzat jo bainuen. Lepo almidoiztatu tente bat,
eskumutur zuriak, alpakazko jaka argi bat, gal-
tza elurtsuak, gorbata argi bat, eta bota betu-
neztatuak ikusi nituen. Sonbreirurik ez. Ilea
arrailatua, zepilatua, gantzutua, esku zuri handi
batek oraturiko marra berdedun guardasol baten
azpian. Liluragarria zen, eta idazluma bat zeu-
kan belarri gainean.

Mirakulu honen eskua estutu eta Konpainia-
ren kontabilitate burua zela ikasi nuen, baita ere
kontu liburu guztiak estazio honetan eramaten
zirela. Momentu bat atera omen zen «eguraste-
ra», esan zuenez. Esateko modu horrek harriga-
rriko doinu bitxia zuen, bulegoko bizitza seden-
tarioa iradokitzen zuena. Tipo honen aipamenik
ere ez nizueke inolaz egingo baldin eta garai har-
tako oroipenekin hain lotura estuan zegoen gizo-
naren izena lehenengo aldiz bere ezpainenatik
entzun izan ez banu. Gainera, tipo horri errespet-
tua nion. Bai; errespetua nien bere lepokoei,
bere eskumutur zabalei, bere ile zepilatuari.
Bere itxura, zinez, ile-apaindegiko maniki batena
zen; baina hango lurraldeko etsipen handiaren
artean bere itxurari eusten zion. Hori da nortasu-
na izatea. Bere lepo almidoiztatuak eta bular
zutak izaeraren lorpenak ziren. Ia hiru urte ziren
kanpoan zela; eta beranduago, hain era apai-
nean janzteko nola moldatzen zen galdegin nion
gogoari ezin eutsiz. Gorritasun izpi bat izan eta
umilki esan zuen: «Estazio inguruko emakume
indio bati erakusten aritu naiz. Zaila izan da.
Lanari gorroto dio.» Gizon honek, beraz, beneta-

ko zerbait erdietsia zuen. Eta ezin hobeki antolatua zeuzkan bere liburuetara zegoen emana.

Estazioan gainerako guztiak nahastuta zeuden: buruak, gauzak, eraikuntzak. Oin lehertuekiko beltz hautseztatuen errenkadak heltzen eta joaten ziren; fabrikako gauzaki uholde bat, kotoi merkea, kristalezko alea eta latoizko haria ilunbeen barrenera bidaltzen zen, eta itzuleran marfil zirrista polit bat etortzen.

Estazio hartan hamar egunez itxaron behar izan nuen, luzaz, horratio. Hesituaren barruko etxola batean bizi nintzen, baina nahaspilatik aparte egotearren batzuetan kontu eramailearen bulegoan sartzen nintzen. Etzaniko oholez eraikia elkarri hain gaizki josiak baitzeuden, gizona bere idazmahai altura makurtzen zenean lepotik orporaino eguzkiaren errainuzko zerrenda estuez zeharkaturik geratzen zen. Ikusi ahal izateko leiho estalki handiak zabaldu beharrik ez zegoen. Beroa ere bazen barruan; eulitzarrek burrunbaka ankerki, eta ziztadak ez, baina sasadak ematen zituzten. Ni normalean lurrian esertzen nintzen, eta berak bizkitartean, narriogabeko itxura zuela (eta pittin bat urrinztatua

ere bai), aulki garai batean igota, idatzi egiten zuen. Noizbait ere zutitzen zen pixka bat ibiltzeko. Gurplekiko ohe bat ezarri zutenean, bertan gizon eri bat etzanda (barrualdetik ekarritako agente elbarriren bat), gizalegezko sumindura agertu zuen. «Eriaren intziriek arreta galarazten didate —esan zuen—. Eta hori gabe gaitz da benetan idazketa okerretatik libratzen klima honetan.»

Behin batean zera komentatu zuen bururik altxa gabe: «Barrualdean Mr Kurtzekin topatuko zara dudarik gabe.» Galdegin niolarik zein zen Mr Kurtz, esan zuen lehen mailako agente bat zela; eta ikusirik nire dezepzioa informazio horren aurrean, zera gaineratu zuen geldiro, bere luma utziz: «Gizon aparta da.» Ondorengo galderek erasan zioten Mr Kurtz orduan garrantzi handiko estazio baten kargu zegoela marfilaren jatorrizko herrialdean. «Barren-barrenean. Beste guztiek adina marfil bidaltzen digu berak bakarrik...» Idazten hasi zen berriro. Gizon eri larriegi zegoen intzirika ari ahal izateko. Euliek burrunbaka bake lasaian.

Supituki berbaro gero eta ozenago bat izan zen eta tirriki-tarrakako pauso hots handia. Karabana bat zen iritsia. Ahots zakarrezko zalaparta bortitza lehertu zen oholez bestaldean. Garraiari guztiek batera hitz egiten zuten, eta iskanbilaren erdian agente buruaren ahots penagarria aditu zen «gainditua» negarti hogeigarren aldiz egun hartan... Bera poliki jaiki zen. «Hau istilua hemen dagoena!» esan zuen. Gizon eriarri begiratzeko astiro zeharkatu zuen gela eta itzuleran, hau esan zidan: «Ez du entzuten.» «Zer! Hilda?» galdetu nion asaldatuta. «Ez. Oraindik ez.» erantzun zidan lasai-lasai. Gero, buruari eragiten estazioko esparruan zegoen zurrunbiloa seinalatu: «Kontuak zuzen idatzi behar dituzunean basati horiek gorrotatzeraino iristen zara, biziki gorrotatzeraino, baina.» Pentsakor geratu zen pixka batez. «Mr Kurtz ikusten duzunean — jarraitu zuen— nire partez esaiozu hemen dena —begirada azkar bat bota zion idazmahaiari— primeran dabilela. Ez zait gustatzen bere Erdi Estazio horretara karta egiterik, gure mezulari hauekin inoiz ez dakizu eta zeinen eskuetara iritsi daitekeen.» Begira-begira jarri zitzaidan lipar

batez bere begi xamur, irten haiekin. «Bai, gora iritsiko da, oso gora —ekin zion berriro—. Luze gabe norbait izango da Administrazioan. Goian dauden haiek —Europako Kontseilukoek, badakizu— hala izatea nahi dute.»

Bere lanera itzuli zen. Kanpoko zarata isildua zegoen, eta geroxeago, irteten ari nintzela, ate ondoan gelditu nintzen. Eulien etengabeko burrunbaren artean, etxeratzekoa zen agentea itolarrian eta sorgor zetzan; besteak, aldiz, bere liburuen gainera makurtua, kontu zuzenak idazten zituen transakzio guztiz zuzenei buruz; eta ate ondoko mailatik berrogeita hamar oin bete beheago herioaren basoko adaburuak ikus nitzakeen.

Biharamunean azkenik estazio hartatik irten nuen hirurogei gizonak osatutako karabana batekin berrehun miliatako ibilaldia burutzera.

Alferrik da zuei hartaz ezer kontatzea. Bidexkak, bidexkak, nonahi; zapaldutako bidexka sare bat landa hutsaren gainetik hedatua, belar luzean zehar, belar errean zehar, basoetan zehar, amiltoki ospeletatik jaitziz eta igoz, beroak kiskalitako muino harritsuetatik igoz eta jai-

tsiz; eta bakardadea, bakardadea, inor eza, txabola bat ere ez. Biztanleak aspalditik ziren hanka eginak. Izan ere, baldin eta beltz misteriotsu pilo bat mota guztietako iskilu beldurgarriez armatuta, halako batean Deal eta Gravesend bitarteko errepidean abiatuko balitz, bertakoak ezkereskuin harrapatuz bere garraio astunak eraman ditzaten, bada, pentsatzen dut ingurumarietako abeltegi eta landetxe guztiak azkar asko hustuko zirela. Hemen, aitzitik, bizitokiak ere desagertu ziren. Hala eta guztiz ere, herrixka abandonatu batzuetatik igaro nintzen. Badago patetikoki umekeriazkoa den zerbait belarrezko hesien hondakinetan. Egunez egun, neure atzetik hirurogei oin pare huts nituela zanpatuz eta herrestatuz, pare bakoitza 60 libratako fardel banaren azpian. Kanpamendua ezarri, afaria prestatu, lo egin, kanpamendua jaso, bideari lotu. Lantzean behin garraiari bat hilda zerbitzuan, belar luzean botata bide bazterrean, aldamenean urontzi huts bat eta bere makila luzea. Isiltasun handia inguruan eta gainean. Noizbaiteko gau lasai batean agian danborren dardara urruna, motel-duz, ozenduz, dardara hedakorra, geldoa; soinu

harrigarria, deigarria, adierazkorra eta basatia; eta agian herri kristau batean kanpai hotsak ahalako esanahi sakona zuena. Behinola gizon zuri bat, uniformearen botoiak askatuta, bidean kanpatua Zanzibar ximelen eskolta armatu batekin, oso abegikor eta alaia, mozkorra ez esateagatik. Bidea zaintzeaz arduratzen ari zen, adierazi zuenez. Ezin esan biderik edo zaintzarik ikusi nuenik, non eta erdi adineko beltz baten gorpua, kopetan bala zulo bat, hiru milia aurrerago estropezu egin nuena, hobekuntza etengabetzat hartzen ez den. Neuk ere bidelagun zuri bat banuen, tipo txarra ez zena, baina lodi xamarra izaki eta, aldapa bero galdatan konortea galtzeko ohitura gogaikarria zuena, itzal edo ur arrastorik txikienetik hamaika miliatara, hain justu ere. Aizue, nekagarria da, gero, bere onera etortzen ari den gizon baten buru gainean zeure jakari guardasol modura eutsi behar izatea. Ezin gogoari eutsi behin galdetu gabe zer egiteko asmotan zen hara etorria. «Dirua egiteko asmotan, noski. Zer uste duzu ba?» esan zuen, zaputz. Gero sukarrak hartu eta makila batetik zintzilikaturiko ohe-sare batean garraiatu behar izan zuten. Bederatzi

arroako pisua nola baitzuen, behin eta berriz jardun nuen errietan garraiariekin. Errebelatu egiten ziren, ihesari ematen, gauez ezkutuan alde egiten nork bere fardelarekin: egiazko matxinda bat. Arrats batean, bada, hitzaldi bat botanien ingelesez keinuekin lagundurik, horietako bat bera ere galtzen ez zutela aurrean neuzkan hirurogei begi pareek, eta biharamun goizean abiarazi egin nituen ohe-sarea aurretik, arazorik gabe. Handik ordubetera tramankulu osoa sistrakan hondatuta aurkitu nuen: gizona, ohe-sarea, aieneak, gehiegikeria, izugarrikeria. Maki-latzak bere sudur gaixoa harramazkatua zion. Irrikitzen zegoen nik norbait akaba nezan, baina han gertuan garraiarrien arrastorik ere ez zegoen. Medikuz zaharra etorri zitzaidan gogora: «Zientziarako interesgarria litzateke gizabana-koen adimen aldaketak bertatik bertara ikuskatzea.» Zientifikoki interesgarri bihurtzen ari nintzela nabaritu nuen. Hori dena, ordea, ez dator harira. Hamabosgarren egunean ibai handia berriro begietaratu zitzaidan eta Erdi Estazioraino herrenka heldu nintzen. Urlo batean zegoen sasiz eta basoz inguratua, alde batetik basatza

kirastunezko ur bazter polit bat zeukana, eta beste hiruetatik ihizko hesi barregarri batez itxia. Sarreratzat ez zuen ebakidura zabar bat besterik, eta aski zen tokiari lehen begiratu bat ematea erreparatzeko deabru maskala zela zirko hura zuzentzen zuena. Eraikuntzen artetik gizon zuriak azaldu ziren, eskuan makila bana zutela, niri geldiro inguratuz begiratu bat ematera, eta ondoren bistatik noranahi ezkutatu ziren. Haietako batek, bibote beltza zuen tipo gizen, erretxin batek, zein nintzen esan bezain laster, hitz jario handiz eta hariari gehiegi lotu gabe jakitera eman zidan, nire baporea ibaian hondoratuta zegoela. Ni zur eta lur nengoen. Zer? Nola? Zer-gatik?. Ez, «ondo» omen zegoen. «Zuzendaria bera» ere han omen zegoen. Dena zuzen. «Mundu guztia primeran portatu zen, primeran!» «Lehenbailehen —esan zuen asaldatuta—, zuzendari nagusia ikustera joan behar duzu. Zain daukazu eta!».

Urperatze horrek zeukan benetako garrantzia ez nuen berehalakoan ikusi. Orain uste dut ikusten dudala, baina ez naiz ziur; ez erabat ziur bederen. Afera hura, izan ere, inozoegia baitzen

—horrekin pentsatzen dudanean— halabehar hutsa izateko. Hala ere... Baina tenore hartan eragozpen gogaikarri bat bezala bakarrik agertzen zen. Baporea urpean zegoen. Bi egun lehenago omen ziren ibaian gora abiatuak berehalako presaldi batean, zuzendaria ere ontzian zela, borondatezko patroï baten kargu, eta kanpoan hiru ordu egin gabeak zirela ontziari harrien kontra krosko azpia arrakalatu eta hegoaldeko hegitik hurbil urperatu omen zen. Neure baitan galdetu nuen zer egin behar ote nuen han, ontzia galduta nuenez gero. Egia esan, banuen nahikoa zeregin neure manupekoa ibaitik atoan ateratzen. Biharamunean bertan ekin behar izan nion. Horrek eta konponketek, atalak estaziora ekarri nituenean, hilabete batzuk eraman zituzten.

Zuzendariarekin izan nuen lehen elkarrizketa bitxia izan zen. Ez zidan esertzekorik ere eskaini goiz hartan neure hogeï miliatako ibilaldia egin da nengoela. Arrunta zen bai gorputzez, bai aurpegiz, bai gizalegez, baita ahotsez ere. Garaiera erdikoa zen eta gorpuzkera normalekoa. Begiak, ohizko, urdintasunekoak, nabarmenki hotzak zituen beharbada, eta begiraldia, egiazki, aizko-

ra bezain zorrotz eta astun eror eraz zezakeen norberaren gainera. Baina aldi horietan ere bere izatearen gainerakoak hartarako asmoa ezeztatzen zuela zirudien. Osterantzean bakarrik zeukan ezpainetako imintzio adierazezin, lauso bat, barre-iduri antzeko zerbait ezkutua, ez barre-iduria; gogoan dut, baina ezin dut azaldu. Ohar-kabea zen, barre-iduria, alegia; hala ere, zerbait esan eta berehalaxe biziagotzen zitzaion pixka batez. Bere hitzaldien amaieran agertzen zen, hitzei itsatsitako zigilu bat bezala, esaldirik hutsalenaren esanahia guztiz aztergaitz bihurtzeraino. Merkatarari arrunt bat zen, gazte-gaztetatik alderdi honetan enplegatua; besterik ez. Obeditu egiten zitzaion, nahiz maitagarria ez izan, ez beldurgarria, ez eta errespetagarria ere. Gogaikarria zen. Horixe bera! Gogaikarria. Ez fidagaitza justuki, gogaikarria baizik, besterik ez. Ideiarik ere ez duzue zein eraginkorra izan daitekeen halako... halako... gaitasun bat. Jeniorik ez zuen antolamendurako, ez ekimenerako, ez eta eratasunerako ere. Hori begi-bistan zegoen estazioko egoera negargarriaren antzeko gauzetan. Ez zuen ez ikasketarik, ez adimendurik. Bere

maila etorri egin zitzaion. Zergatik? Beharbada sekula gaixotzen ez zelako... Hiruna urteko hiru alditan zerbitzatu zuen han... Gorputzen porrokaldi orokorraren erdian osasunez garaile izatea, botere klase bat delako, berez. Baimenarekin etxera joaten zenean gehiegikeria izugarriak egiten zituen, panparroikeriaz. Marinela lehorrean —baina alde batekin— itxuraz bakarrik. Ondorio hori bere inoizko solasetik atera zitekeen. Deus ere ez zuen sortzen, egunerokotasunari eusteko gauza zela, besterik ez. Hala ere, gizon handia zen. Handia zen gauza txiki honengatik, ezinezkoa zela esatea, hain zuzen ere, halako gizona zerk kontrola zezakeen. Berak ez zuen sekretu hori inoiz agertu. Bere baitan ezertxo ere ez zegoen, agian. Halako susmo batek gogoeta eragiten zuen, ze han ez baitzen kanpoko trabarik. Behin batean, eritasun tropikal batzuek estazio-ko «agente» gehientsuak etzanaraziak zeuzkate-nean hauxe esaten entzun zitzaion: «Hona datorenen gizonak ez luke errairik eduki behar.» Adierazpen hori bere-berea zuen barre-iduri harekin zigilatu zuen, bera jagole zegoen ilunbeen barrenera zabaldutako ate bat bailitzan. Zerbait ikusi

zenuela iruditzen zitzaizun, baina zigilua ipinita zegoen. Otorduetan gizon zuriek esertzeko lehentasunagatik izan ohi zituzten liskarrez aspertu zenean, izugarrizko mahai borobil bat egin zezaten agindu zuen, eta hartarako etxe berezi bat eraiki behar izan zuten. Huraxe zen estazioko jantokia. Bera non esertzen zen, han zegoen mahaiburua, gainerakoak nonahi zuden. Batek nabaritzen zuen horixe zela bere konbikzio aldaezina. Ez atsegina ez desatsegina zen. Barea zen. Bere «mutilari» —kostaldeko beltz gazte asebeste bati— gizon zuriak lotsagabeke-riaz tratatzen uzten nion, bere begien aurrean bertan.

Ni ikusteaz bat hasi zen hizketan. Bidean luzaro ibilita nengoen. Ezin zuen itxaron. Ni gabe abiatu behar izan zuen. Ibaiaren goialdeko estazioetan txanda aldaketa egin beharra zegoen. Zegoeneko hainbeste atzerapen izan baitziren, ez zekien zein zegoen hilik, zein bizirik, nola mol-datzen ziren, eta abar, eta abar. Nire azalpenei ez zien arretarik jarri eta, zigilatzeko lakre zati batekin jolasean ari zela, behin eta berriz errepi-katu zuen «oso egoera larria, baina oso larria»

zela. Estazio garrantzitsu bat arriskuan zegoela zurrumurrua zebilen, eta bertako burua zen Mr Kurtz gaixorik omen zegoela. Egia ez izatea espero zuen. Mr Kurtz zen... Akitua eta suminkoi aurkitzen nintzen. Pikutara doala Kurtz, pentsatu nuen. Moztu nion esateko Mr Kurtzen aditzea banuela kostaldetik. «Orduan berataz hitz egiten dute hor behean,» xuxurlatu zuen berekiko. Gero atzera hasi zen, Mr Kurtz berak zeukan agenterik onena zela segurtatuz, gizon bikaina, guztiz garrantzizkoa Konpainiarentzat; beraz, bere larritasuna ulertu behar nuen. Esan zuen «oso, baina oso urduri» zegoela. Inondik ere ezin negon handiz zegoen aulkian eserita; garrasi egin zuen: «Ai, Mr Kurtz!» zigilatzekeo lakre zatia kraskatu eta ezbeharragatik harri eta zur gelditu zen, itxuraz. Hurrena jakin nahi zuen gauza ea «zenbat denbora eramango lukeen»... Berriro moztu nion. Goseak egonik, aizue, eta artean ere hanka gainean, zakartzen hasita nengoen. «Zer dakit nik? —esan nion—. Hondakinak ere ikusi gabe nago eta; hilabete batzuk bai, dudarik gabe.» Berriketaldi guzti hura hain ezereza iruditzen baitzitzaidan. «Hilabete batzuk —esan

zuen—. Bada, esan dezagun hiru hilabete berriz abiatzerako. Bai. Horrekin afera konponduta.» Airean alde egin nuen bere etxolatik (bakar-bakarrak bizi zen buztinezko etxola batean, atari moduko bat zeukana) neure artean berari buruz neukan iritzia marmarka. Hitzontzi babo bat zen. Beranduago zuzendu nuen harriduraz jabetu ahala zeinen zehazki jo zuen «aferak» behar zuen denbora.

Biharamunean ekin nion lanari, estazioari bizkarra emanik, nolabait esatearren. Horrela ez bestela iruditu zitzaidan bizitzako egintza salbatzaileei eutsita jarrai nezakeela. Hala ere, batzuetan ingurura begiratu beharra izaten da; eta orduan estazio hau ikusi nuen, gizon hauek esparruko eguzkipean hara-hona noraezean ibiliz. Batzuetan neure buruari galdetzen nion guzti hark zentzurik ote zuen. Batetik bestera alderrai ibiltzen ziren euren eskumakila luze absurdoak zeramatzatela, fedegabeko pelegin talde baten antzera, usteldutako hesiaren barrualdean sozeturik. «Marfil» hitza airean durundian, xuxurlaka, zizpuruka. Pentsa zitekeen erreguka ari zitzaizkiola. Zekenkeria ergelezko kirats bafa-

da batek kutsatzen zuen dena, hilotz baten hatsak bezala. Alafede! Hain gauza alegiazkorik ez dut neure bizitzan egundaino ikusi. Eta kanpoaldean, lurreko argiunetxo hau inguratzen zuen basatasun isilak zerbait handi eta garaiezi-naren modura erasan zidan, gaitzak edo egiak bezala, egonarriz zain ametsezko inbasio hau noiz aldenduko.

A ze hilabeteak! Baina bost axola. Gauza batzuk gertatu ziren. Arrats batean lastozko estalpe bat, kalikoz, kotoi estanpatuez, kristalezko aleez eta nik ahal dakit zer gehiagoz betea, sutan lehertu zen hain derrepentean non bazirudien lurra erdibitua zela su mendekatzaile bati zabor guzti hura kiskaltzen uzteko. Ni neure pipa lasai-lasai erretzen ari nintzen neure bapore desmantelatuaren kontra, eta argitasunean denak itzulipurdika ikusi nituen, besoak gora, eta orduantxe bibotedun gizon lodia ibairaino arrapaladan jaitsi, eskuan eztaizuzko ontzi bat zuela, mundu guztia «primeran, baina primeran» portatzen ari zela segurtatu, laurden bat edo urez bete eta atzera ere arrapaladan joan zen. Erreparatu nuen ontziak zulo bat zeukala ipurdian.

Poliki-poliki inguratu nintzen. Ez zegoen presarik. Kontutan eduki gauza hura pospolo kaxa bat bezala hartu zuela suak. Haste beretik ez zen esperantzarik. Sugarra gora hedatu zen mundu guztia atzeraraziz, den-dena argitu eta gainbehera egin zuen. Estalpea ordurako txingar pilo bat zen, erregai gori-goria. Beltz bat egurtzen ari ziren han inguruan. Esaten zuten berak eragin zuela sutea, nolabait; hala izan edo ez, modu izugarrian ari zen aieneka. Harrez gero zenbait egunetan gerizpe txiki batean eserita ikusi nuen, oso gaixo itxurarekin eta bere burua suspertu nahian: gero altxa eta joan egin zen eta oihanak zaratarik gabe bere altzoan hartu zuen berriro. Ilunetik argitasunera nola hurreratu bainintzen, hizketan ari ziren bi gizonen atzean gertatu nintzen. Kurtzen izena aitatzen entzun nien, gero hitz hauek: «Probetxua atera ezazu zoritxarreko ezbehar honetatik.» Gizonetako bat zuzendaria zen. Gabonak eman nizkion. «Ikusi al duzu inoiz horrelakorik? Eh? Sinetsi ezinezkoa da,» hori esan eta alde egin zuen. Beste gizona bertan geratu zen. Lehen mailako agente bat zen, gaztea, prestua, isil samarra, bizar motz arraildua

eta sudur gakoduna. Uzkur zen beste agentee-kin, eta hauek beren aldetik eurei salatzeko zuzendariaren espia zela zioten. Nik, berriz, ez nuen ia berarekin hitz egin ordura arte. Elkarrizketan sartu eta poliki ibiliz hondakin zartakarietatik urrundu ginen. Gero estazioko eraikuntza nagusian zegoen bere gelara gonbidatu ninduen. Pospolo bat piztu zuelarik ohartu nintzen gazte aristokrata honek zilarretan muntatutako apain kutxatila bat ez ezik, kandela oso bat ere bazuela osorik berarentzat. Tenore hartan, hain zuzen, zuzendariak bakarrik zuen kandelatarako eskubiderik. Alfonbra indioek buztinezko paretak betetzen zituzten; lantza, gezi, ezkutu eta labana bilduma bat trofeo gisa zegoen eskegirik. Tipo honen gain utzitako eginkizuna adreiluak egitea zen; hala informatu zidaten; estazio hartan, ordea, adreilu apurrik ez zegoen inon ere, eta urtebete baino gehiago zen bera han zegoela, zain. Bazirudien ezin zuela adreilurik egin zer-baiten faltan, zer ez dakit, lastoa, beharbada. Nolanahi ere, han ezin zuen aurkitu eta Europatik bidaltzea oso litekeena ez zenez, ez nuen ondo ikusten zeren zain ote zegoen. Sorkuntza

bereziko ekintza baten zain, beharbada. Dena den, guztiak zeuden —pelegrin guztiak, hamasei hogeit bat— zerbaiten zain; eta, alafede, ez zirudien eginkizun txarra zenik, ikusirik hura nola ametitzen zuten, nahiz eta etorri zitzaien gauza bakarra eritasuna izan, ikusi ahal izan nuenez, behintzat. Elkarren aurka marmarka eta azpijokoan ematen zuten denbora modu inozo batean. Azpikeriazko giro bat sumatzen zen estazioan, baina inolako ondoriorik izan gabe, jakina. Gainerako guztia bezain alegiazkoa zen, enpresa osoaren pretentsio filantropikoa bezala, euren hizkera bezala, euren administrazioa bezala, euren lan itxurak bezala. Egiazko irrika bakarra estazio baterako izendatua izatea zen, hartara marfila eskuratu eta komisioak lortzeko aukera izateko. Arrazoi horregatik bakarrik elkar hartzen, iraintzen eta gorrotatzen zuten, baina eraginkortasunez behatz bat mugitu behar zenean, bai zera. Alajaina! Azken finean zerbait dago munduan gizon bati zaldi bat lapurtzen baimena ematen diona eta beste batek, aitzitik, debekata dauka bridari begiratzea ere. Zaldi bat lapurtu, zirt-zart, oso ondo. Egina dago. Behar-

bada zaldi gainean ibil daiteke. Baina badago bridari begiratzeko modu bat, santurik urrikalgarriena ere sutan jarriko lukeena.

Ideiarik ere ez nuen zergatik agertu nahi zuen adiskidetsu, baina han solasean ari ginela bat-batean otu zitzaidan tipo hura zer edo zer lortu nahian ari zela, galdeketan, hain justu ere. Etengabe Europaren aipamena egiten zuen, han ezagutzen omen nuen jendeaz, galdera asmo-tsua eginez hiri hilobitarrean omen neuzkan ezagunei buruz, eta abar. Bere begi txikiak kuriositatez distirutzen zuten mikazko orrien antzera, nahiz eta harrotasun pittin bat ere gordetzen saiatu. Ni hasieran txundituta nengoen, baina berehalaxe kuriositate bizia sortu zitzaidan nigandik zer lortuko zuen ikusteko. Ezin nuen zinez imajinatu zer ote neukan neure baitan berari bere ahalegina justifikatzeko adina-koa. Oso polita zen nola nahastatzen zen ikustea, ze nire gorputza egiazki hotzikarez ez bestez beteta baitzegoen, eta nire buruak deus ere ez zeukan baporearen kontu madarikatu hura baino. Bistan zen lotsagabeko prebarikadore hustzat joa ninduela. Azkenean haserretu zen,

eta sumindura biziko imintzio bat disimulatzeko aharrausi egin zuen. Zutik jarri nintzen. Orduan zirriborro txiki bat erreparatu nuen, taula batean olio margotuta, emakume bat irudikatzen zuena, soinekoz jantzirik eta begiak estalirik, zuzi izeki bat zeramana. Hondo iluna zuen, beltza ia-ia. Emakumearen mugimendua sotila zen eta zuziaren efektua aurpegian parte txarrekoa.

Arreta deitu zidan eta bera gizabidez egon zen zutik, pinterdiko xanpain botila huts bati (botika bizkorgarriak) oratuta, kandela bertan ahokatua. Nire galderari erantzun zion Mr Kurtzek margotua zela —estazio honetan bertan urtebete baino lehenago— bere estaziora joateko garraioaren zain zegoen bitartean. «Aizu, mesedez —galdegin nion— nor da Mr Kurtz hori?»

«Barne Estazioko burua.» erantzun zuen brastakoan, niri begiratzeke. «Mila esker —esan nion barrezka—. Eta zu Erdi Estazioko adreilugilea zara. Mundu guztiak daki hori.» Isilik egon zen pixka batez. «Prodigio bat da —esan zuen azkenean— errukiaren mezulari bat da, eta zientziarena, eta progresoarena eta deabruak daki

zer gehiagorena. Hona guk zer nahi dugun — deklamatzan hasi zen bat-batean— Europak gure gain utzi duen eginkizuna gidatzeko, nola-bait esatearren, adimen argiagoa, begikotasun zabalagoa, xede bakartasun bat.» «Nork esaten du hori?» galdetu nion. «Hango askok eta askok —ihardetsi zidan—. Batzuek idatzi ere egin dute; eta halatan bera honantz dator, gizaki berezi bat, jakin behar zenukeenez.» «Zergatik jakin behar nuke?» moztu nion zeharo harrituta. Ez zidan jaramonik egin. «Bai. Gaur estaziorik oneneko burua da, datorren urtean zuzendariordea izango da, bi urte gehiago eta... baina, uste dut badakizula bi urte barru zer izango den. Zu talde berrikoa zara, bertutearen taldekoa. Bera bidali zuen jende berberak zu ere propio gomendatu zintuen. Ez, ez esan ezetzik. Begiak dauzkat ikusteko.» Argi agertu zitzaidan. Nire izeba maitatearen influentziazko harremanek harrigarritzko eragina izan zuten gazte harengan. Ia algara batean lehertu nintzen. «Konpainiako gutun konfidentzialak irakurtzen dituzu?» galdegin nion. Esateko hitzik ez zuen. Asko libertitu nintzen. «Mr Kurtz Zuzendari Nagusia denean —jarraitu

nuen serio—, ez duzu horrelako aukerarik izango.»

Kandelari tupustean putz egin zion eta kanpora irten genuen. Ilargia goian zegoen. Irudi beltzak noraezean ibiliz baldarka, ura isuriz txingarretara; ilargiaren argitan lurruna goraka; beltz jipoitua nonbait aieneka. «Zer iskanbila sortzen duen astakirten horrek! —esan zuen gizon bibotedun asperrezinak gure aldamenean azalduz—. Horrela ikasiko du. Okerra-zigorradanba! Gupidagabe. Gupidagabe. Ezin bestela. Beste suterik ez da egongo geroan. Zera esaten nion zuzendariari...» Nirekin zegoena ikusi eta burumakur geratu zen bat-batean. «Oheratu gabe oraindik —esan zuen halako morroi alaitasun batez—. Normala da. Hara! Arriskua, nahas-mendua.» Desagertu zen. Ibai ertzera abiatu nintzen eta bestea atzetik jarraiki zitzaidan. Marmar mingarri bat belarriratu zitzaidan. «Artaburu alaenak! Aire!» Pelegrinak ikusi nituen taldeka, imintzioka, eztabaidan. Batzuek oraindik beren eskumakilak zeuzkaten. Oheratu ere, pertika horiekin oheratzen zirelakoan nago, zinez. Hesiaz bestaldean oihana mamu izugarri baten

antzera altxatzen zen ilargiaren argitan, eta lurraren isiltasuna hostoen ikara lausoan barna, esparru negargarri hartako hots moteletan barna, bihotzaren erdiraino barrentzen zitzaion bati, bere misterioa, bere handitasuna, bere bizitza estaliaren errealitate harrigarria. Beltz zauritua han nonbait ahulki ari zen hasperenka, eta gero arnas sakon bati jaregin zion nire urratsen norabidea aldaraziz. Esku bat beso azpitik sartzen nabaritu nuen. «Ene lagun maitea —esan zidan tipoak—, ez nuke nahi zuk gaizki ulertzerik, zuk batik bat, aurki Mr Kurtz ikusiko duzun horrek, nik atsegin hori izan baino askoz lehena-go, hain zuzen. Ez litzaidake gustatuko nire jarreraz uste okerrik izan dezan...»

Bere hitzontzikeria aspergarriarekin jarraitzen utzi nion kartoi-harrizko Mefistofeles hari, eta irudipen hauxe izan nuen, alegia, neure behatz zuzenarekin alderik alde zulatzen ahalegintzera, ez nukeela bere baitan ezer ere aurkituko, ez bazen zikinkeria beratz pixka bat, agian. Bera, ikusten duzuen bezala, handik lasterrera orduko zuzendariaren ordezkoa izateko planak egiten aritua zen eta ikusten nuenagatik Kurtzen eto-

rrerak ez zituen bi haiek gutxi kezkatu. Arrapata-
ka hitz egiten zuen eta nik ez nuen geldiarazten
ahaleginik egin. Bizkarra etzanda nengoen neure
baporeko hondakinen kontra, aldapan gora
arrastaka eramana izan zena ibaiko animalia
handi baten hezurdura bailitzan. Basatza usaina,
antzinako basatza usaina alafede! sudur zuloet-
an neukan; antzinako oihanaren gelditasun
garaia begien aurrean neukan; isla distiratsuak
zeuden ibai golkoaren gainean. Iretargiak zilar-
mintza fin batez ihinzatu zuen ororen gaina,
belar oparoaren gaina, basatzaren gaina, tenplu
bateko murrua baino gorago altxatzen zen lan-
daretza bihurritzko murruren gaina, ibai handia-
ren gaina, dir-dir ikusten nuena ebakidura ilun
batean barrena, dir-dir, zabal-zabal jariatuz mur-
muriarik gabe. Hori dena ikusgarri, erne, mutu
zegoen, gizonak bere buruaz murduskatzen
zuen bitartean. Neure artean galdezka ari nin-
tzen gu bioi begira zegokigun baztergabetasuna-
ren aurpegiko soseguak dei bat ala mehatxu bat
esan nahi ote zuen. Zer ote ginen gu, han galdu
ginenok? Gauza isil hura geuk menderatuko ote
genuen, ala berak menderatuko ote gintuen gu?

Nabaritu nuen zein handia zen, zein ikaragarri handia, gauza hura, hitz egiterik ez zuena eta agian gorra ere bazena. Zer zeukan barruan? Marfil pixka bat ikus nezakeen handik irteten eta aditua nuen Mr Kurtz hor barruan zegoela. Zera, nahikoa aditua nuen kontu hura, Jainkoarren! Ez dakit zergatik baina berarekin batera irudirik ez zekarren, han barruan aingeru edo deabru bat zegoela esan balidate baino gehiago ez. Nik hura sinetsi, zuetako batek Martitz planetan biztanleak daudela sinetsi dezakeen modu berean sinetsi nuen. Behin batean ontzi oihalgile eskoziar bat ezagutu nuen, etsita zegoena, guztiz ziur, Martitzen jendea badagoela. Eskatzen bazenion haien itxuraz eta izaeraz ideia bat emateko, lotsati eta ahapeka esango zuen «lau hankan ibiltzea»ri buruzko zerbait. Zuk irribarre-rik txikiena egitera ere, bera —hirurogei urteko gizona izanagatik— erronka jotzeko prest agertuko zitzaizun. Ni Kurtzengatik ez nintzen erronka jotzeko punturaino iritsiko, baina beragatik gezurra esateko puntuan egon nintzen. Zuek badakizue gezurra esateari gorroto eta higuina diodala, jasanezina gertatzen zaidala, eta ez

gutako inor baino zuzenagoa naizelako, bai zera, izugarrizko beldurra ematen didalako baizik. Gezurrak herio kutsu bat dauka, hilkortasun zapore bat, eta hori da, hain zuzen ere, munduan gorroto eta higuinik handiena diodana, ahaztu nahi dudana. Nahigabetu egiten nau, gaitxotu, zerbait ustelari koska egiteak bezala. Izaera kontua, pentsatzen dut. Bada, gezurra esateko puntuak egon nintzen, izanez ere, hango gazte txoroari Europako nire influentziaz pentsatu nahi zuen guztia sinesten utzi bainion. Istant batez pelegin soretatuak bezain itxurati bilakatu nintzen. Zeragatik bakarrik, Kurtz horri nolabait lagungarri gertatuko zitzaiola iruditu zitzaidalako, hura anartean ikusi gabea banintzen ere, ulertzen? Bera niretzat hitz bat baino ez zen. Izenean ez nuen gizona ikusten zuek baino gehiago. Zuek ikusten duzue? Istorioa ikusten duzue? Zerbait ikusten duzue? Iruditzen zait amets bat kontatu nahian ari naizela, alferrik ahalegintzen, alegia, ze amets bat kontatzean ezin baita ametsaren sentrazioa adierazi; absurdo, sorpresa eta aztoramenezko nahas-mahas hori errebolta bortitzeko dardara batean, ametsen funtsa bera

den sinesgaiztasunak harrapatua izanaren sentsazio hori...»

Isilik gelditu zen une batez.

«...Ez, ezin da; ezin da nork bere izatearen aldi jakin batez duen bizitzazko sentsazioa adierazi; bere egiatasuna, bere zentzua, bere funts fin eta sarkorra ematen dion hori. Ezin da. Bizi gara amets egiten dugun bezalaxe: bakarrik...»

Berriro gelditu zen gogoetan bezala, ondoren gaineratu zuen:

«Noski, lagunok, zuek gehiago ikusten duzue nik orduan ikusi ahal nuena baino. Zuek ni ikusten nauzue eta ezagutzen nauzue...»

Ilunbea hain beltz bilakatua baitzen, entzule ginenok apenas elkar ikusten genuen. Aspalditik bera, aparte eserita zegoelarik, ahots bat besterik ez zen guretzat. Hitzik ere ez zuen inork esan. Bazitekeen besteak lo egotea, baina ni esna nengo. Ni entzuten ari nintzen, narrazio honek iradokitako gorabehera mantsoaren giltza emango zidan esaldiaren, hitzaren zain. Bazirudien berez gorpuzten zela giza ezpainik gabe ibai gaineko gaugiro astunean.

«...Bai, jarraitzen utzi nion —berriz hasi zen Marlow—, eta atzean neuzkan botereen gainean gogo zuena pentsatzen utzi nion. Hori egin nuen! Eta atzean ezer ere ez neukan! Ezertxo ere ez neukan bizkarra etzanda nengoen zaharkitutako bapore elbarri madarikatu hura baino, eta berak anartean atertu gabe hitz egiten zuen honela zioela «mundu guztiak aurrera egin behar du. «Eta hona etortzen bazara, ez da, noski, ilargiari begira egoteko.» Mr Kurtz «jenio unibertsal» bat zen, baina jenio batek ere aiseago lan egingo zuen «lanabes egokiekin: gizon argiekin.» Ez zuen adreilurik egiten. Zergatik? Horretarako ezintasun fisiko bat zegoelako, ondo jakinean nengoenez; eta zuzendariarentzat idazkari lanak egiten bazituen zeragatik zen «gizon zentzudun batek ez duelako bere goragokoen konfiantza nahita errefusatzeko.» Ikusten nuen? Ikusten nuen. Zer gehiago nahi nuen bada? Nik egia esan errematxeak nahi nituen, Jainkoarren! Errematxeak. Lanarekin jarraitzeko, zuloa estaltzeko. Errematxeak nahi nituen. Halakoez betetako kaxak erruz zeuden kostaldean, kaxak pilaka, lehertuta, zarrakatuta! Urratsa eman orduko

errematxe erori batekin topo egingo zenuen malkarrean zegoen estazio hartako esparruan. Errematxeak herioaren basoraino itzulipurdika amilduak zeuden. Poltsikoak errematxez beteko zenituen makurtu beste lanik gabe; ostera, errematxe bat bakarra aurkitzerik ez zegoen bere premia zegoen tokian. Burdin xaflak bagenituen baliatzeko modukoak; haiek zerekin finkatu ez, ordea. Eta astero-astero abiatzen zen mandataria, beltz bakarti bat, karta-zorroa bizkarrean, eskuan makila, gure estaziotik kostalderantz. Eta asteen hainbat aldiz karabanak iristen ziren kostaldetik traturako merkantziekin: kaliko arrunki ezkoztatua, begiratu hutsarekin hotzikarak eragiten zituena, kristalezko ale bitxiak penike bat koartoa balio zutenak, kotoizko musuzapi pikart zatarrak. Eta errematxerik ez. Hiru garraiari aski ziren baporea igerian jartzeko behar zen guztia ekartzeko.

Isilkari ari zitzaidan orain, baina uste dut nire jarrera uzkurak azkenean ernegarazi edo egingo zuela, ze beharrezkotzat jo baitzuen niri jakinaraztea inori ere ez ziola beldurrik, ez Jainkoari, ez deabruari, eta are gutxiago gizon soil bati. Nik

esan nion hori oso ondo ikusten nuela, baina nik nahi nuena errematxe kopuru jakin bat zela eta errematxeak zirela Mr Kurtzek egiazki nahi zituenak, hori jakinez gero, alegia. Bada, eskutitzak astero joaten ziren kostaldera... «Jauna! —oihu egin zuen— esanera idazten dut.» Errematxeak exijitzen nituen. Bazegoen modu bat... gizon argi batentzat. Jarrera aldatu zuen; oso hotz bihurtu zen eta hitzetik hortzera hipopotamo batez mintzatzen hasi zitzaidan; ea enbarazurik egin zidan baporearen barruan lo egiten nengoenean (gau eta egun tinko eusten nion neure salbamenduari). Hipopotamotxo xahar bat omen zegoen, gauetz ur ertzera irten eta estazioko lurretatik usnan ibiltzeko ohitura txarra zuena. Pelegrinak bat eginik kanporatu eta eskumenera eduki ahala errifle hustu ohi zituzten bere gainera. Berगतik gaubeila egindakorik ere bazen. Energia guzti hura alferrik galduta, ordea. «Animalia hori soreztatuta dago —esan zuen—, baina hori piztiez bakarrik esan daiteke herrialde honetan. Ez da gizon bat ere, aditu?, ez da gizon bat ere soreztatuta dagoenik.» Bertan geratu zen pixka batez ilargiaren argitan bere sudur mako fin

pixka bat okertuarekin eta bere mikazko begiak diz-diz kliskadarik ere gabe; ondoren, Gabon zakar batekin, urrats luzeka alde egin zuen. Ikusi ahal izan nuen minduta eta zeharo nahastuta zegoela eta horrek baikorrago sentiarazi ninduen egun askotan egon nintzena baino. Guztiz altxagarria izan zen tipo harengandik influentziadun lagunarengana itzultzea, alegia, latorrizko nire bapore kolpatu, bihurrikatu, hondatuarengana. Ontzira igo nintzen. Nire oinpean kirrizka egiten zuen hala nola Huntley & Palmers gaileta kaxa huts batek erretenean barrena ostikoz bidaliak; egituraz ez zen hain sendoa eta nahiko itsusiagoa itxuraz; hala ere, maitagarri izateko adina lan gogorra eskainia nion. Inongo lagun influentziadunik ez zitzaidan baliagarriago gertatuko. Nire burua apur bat ezagutzeko parada eman zidan, zer egiteko gauza nintzen jakiteko. Ez, lana ez dut gogoko. Nahiago dut aisian ibili eta egin litezkeen gauza eder guztietan pentsatu. Lana ez dut gogoko, inork ere ez du gogoko; bai, ordea, gogoko dut lanaren baitan dagoena, zeure burua aurkitzeko abagunea, hain zuzen. Zeure errealitatea —zeure ikuspegitik, ez beste-

renetik—, beste inork sekula jakiterik ez duena. Bestek ezin dute antzezpen hutsa besterik ikusi eta ezin dute sekulan esan egiazki zer esan nahi duen.

Ez nintzen harritu norbait ikusi nuenean txopako gainaldean eserita, hankak basatza aldera zintzilik zituela. Zera, nahiago nuen estazioan zeuden mekanikari banaka haiekin kidedu, beste pelegrinek mespretxatzen zituztenak, noski, manera desegokiak zituztelako, pentsatzen dut. Honako hau kontramaisua zen —lanbidez galدارakina—, langile on bat. Gizon ximel bat zen, argal, aurpegi horixka hezurtsua eta begi handi biziak zituena. Kezkati itxura zuen eta burua nire esku ahurra bezain soildua; ilaiak, ordea, bazurdi erorkeran kokotsari atxiki eta kokaleku berrian hazi egiten zela, ze bizarra gerriraino luzatzen baitzitzaion. Alargunduta zegoen sei seme-alaba txikirekin (bere arreba baten kargu utzi zituenak hara joateko) eta bere bizitzako pasioa uso zaletasuna zen. Zale porrokatua eta ezagutzaille aditua zen. Usoekin txoratuta zegoen. Inoiz lanorduen ondoren bere etxolatik bisita egiten zidan bere seme-alabez eta bere usoez

berriketan aritzeko; lanean ari zela, bestalde, basatzen baporearen kroskotik arrastaka ibili behar zuenetan, bere bizar hura serbiletan antzeko zapi zuri batean biltzen zuen, horretarako propio ekarria. Begizta batzuk zituen belarrietan ipintzeko. Ilunabarrean han ikusten zitzaion ur bazterrean kokoriko, babesgarri hura arreta handiz bustitzen, eta gero lehertzeko sasi baten gainean solemneki zabaltzen.

Bizkarrean txapaka egin eta garrasika esan nion: «Aurki errematxeak izango ditugu!» Bera salto batez zutitu eta oihu egin zuen: «Ez esan! Errematxeak!» belarriei sinetsi ezinean bezala. Gero ahots apalez «Zuk... eh?» Ez dakit zergatik txoro moduan ari ginen. Behatza sudur hegalean ipini eta buruari modu misteriosu batean eraginez baieztatu nuen. «Bejondeizula!» garrasi egin zuen eta eskuekin kriskitin jo buruaren gainetik, hanka bat altxatuta zeukala. Dantza bat entseatu nuen. Zilipurdika ibili ginen ontziaren burdinazko gainaldean. Berebiziko dunbota sortu zen hezurdura hartatik, eta uraz bestaldeko oihan zarratuak atzera bidali zuen durundi burrunbatsuan estazio lokartuaren gai-

nera. Horrek, antza, pelegrienen bat jaikiarazi zuen estalpeetan. Irudi ilun batek zuzendariaren etxolako ate argitua lausotu zuen, desagertu zen; gero, segundo batera edo, atea bera ere desagertu zen. Gelditu egin ginen eta gure oin zanpatzeak uxaturiko isiltasuna atzera ere jariatzen lurreko bazterretatik. Landarezko murru garaia, nahaspilatutako enbor, adar, hosto, besanga eta zintzilikarioen anabasa oparo hura, ilargiaren argitan geldi, bizitza mutuaren oldar bortitza bezalakoa zen, landarezko olatu kiribildu bat, bulartua, gandortua, ibaiaren gainera erortzeko zorian, gizon kaxkar guztiok geure izate kaxkarretik erauzteko. Eta ez zen mugitzen. Palastada eta bafada biziko eztanda moteldu bat iritsi zitzaigun urrundik, ibai handian ictiosaurus bat distira bainu bat hartzen ari izan balitz bezala. «Azken batean —esan zidan galdarakinak arrazoizko doinu batez—, zergatik, bada, ez genituen errematxeak lortu behar?.» Zergatik ez? Arraioa! Ez lortzeko arrazoirik ez nuen ikusten. «Hiru aste barru iritsiko dira,» esan nuen konfiatuta.

Baina ez ziren iritsi. Errematxe beharrean erasoaldi bat etorri zen, zigorraldi bat, ikustaldi bat. Sailka etorri zen hurrengo hiru asteetan, sail bakoitzaren buru asto bana, gainean gizon zuri bana zeramatela jantzi berritan eta zapata ondutan, garaitasun hartatik ezker eskuin agur eginez pelegrin txundituei. Astoaren orpotik beltz aldra suminkoi bat zetorren oin lehertuekin eta bekozko ilunez; denda, kanpainako aulki, latorrizko kaxa, ontzi txuri eta fardel nabar pilo bat lurrera botatzen zuten esparruan, eta misteriozko giroa pixka bat sakonagotzen zen estazioko nahas-menduaren gainean. Halako bost segizio etorri ziren, nahas-mahasean ihes egindakoen aire absurdo harekin, ezin konta ahala jantzi eta janari biltegitako hornidurak zeramatzatela, halako eran non batek pentsa bailezake lapurreta egin ondoren oihanean barrena zamatzen ari zirela bertan hainbanaketa egiteko. Bereizi ezinezko nahaspila bat osatzen zuten berez itxurazkoak baina giza eromenaren eraginez harrapakinak ziruditen gauza haiek.

Lantalde saiatu honek bere buruari Eldorado Espedizio Esploratzailea deitzen zion eta nire

ustetan sekretua gordetzeko zin eginak ziren. Haien hizkera, aitzitik, pirata gordinen hizkera zen: mutiria baina bipiltasunik gabea, zekena baina azartasunik gabea, ankerra baina kemen-tasunik gabea; talde osoan aurreikuspen edo deliberamendu apurrik ere ez zegoen, eta ez ziruditen jakinaren gainean munduan ibiltzeko gauza horiek beharrezkoak direla. Haien desira lurraren errailetatik altxorrak erauztea zen, lapur-rek kajafuerte bortxatzean dutenaz beste kezka moralik gabe. Enpresa noblearen gastuak zeinek ordaintzen zituen ez dakit, baina gure zuzendariaren osaba zen talde horren buruzagi.

Itxuraz bazter auzo pobre bateko harakin baten antza zuen eta begiek lo erdiko maltzurke-ria ukitu bat zuten. Bere zilbor lodiaren zama nabarmen eramaten zuen bere hanka laburren gainean eta bere koadrilak estazioa infestatu zuen denbora guztian ilobari beste inori ez zion hitz egin. Eguarte osoan hortik zehar ikusiko zenituen elkarren aldamenean famili kontseilu amaigabe batean.

Ni errematxeez kezkatzeari utzita nengoen. Norberaren gaitasuna halako erokeriatarako nor-

berak uste baino mugatuagoa da. Esan nuen: Pikutara! eta gauzak joaten utzi nituen. Pentsaketan aritzeko astiarekin nengoen eta aldian behin Kurtzengan ipintzen nuen gogoia. Berataz oso interesaturik ez nengoen. Ez. Hala ere, kuriositatea nuen nolabaiteko ideia moralez jantzita etorri zen gizon hura azken buruan gailurrera igoko ote zen eta hartaraz gero nondik nora joko ote zuen.

II

Arratsalde batean neure baporeko gainaldean luze etzanda nengoela, ahots batzuk entzun nituen hurbiltzen: eta osaba-ilobak ziren ur ertzean zehar paseatzen. Berriro burua besoren gainean etzan eta lo arinak hartzeko zorian nengoela, norbaitek nire belarrira ia-ia, honela hitz egin zuen: «Hanka gorri bat bezain otzana naiz, baina ez zait gustatzen inork aginduak ematerik. Zuzendaria naiz ala ez naiz? Gizona hara bidaltzeko agindu zidaten. Sinestezina da hau.»... Ohartu nintzen biak ibaiertzean zutik zeudela baporearen aurrealdearen parean, nire buruaren azpian bertan. Ez nintzen mugitu; ez zitzaidan mugitzerik gogoratu: logale nintzen. «Gogaikarria, benetan,» marmaratu zuen osabak. «Administrazioari eskatu dio hara bidaltzeko —esan zuen besteak—, zer egiteko kapaz den frogatzeko asmoz; eta niri hala jokatzeko agindua eman zidaten. Pentsa zer influentzia ez ote duen edukiko gizon horrek. Gehiegizkoa da hau, ezta?» Biak bat etorri ziren hura gehiegizkoa

zela, gero komentario arraro batzuk egin zituzten: «Euria eta eguraldi ederra egitea... gizon bat... Kontseilua... bere gogoak eman bezala», esaldi absurdoen zatiak, loa galarazi zidatenak; hala, bada, burua ia argiturik neukala osabak hauxe esan zuen: «Hemengo klima hau zure eragozpenaren konponbidea izan liteke. Bera bakarrik al dago han?» «Bai —erantzun zuen zuzendariak—; bere laguntzailea ibaian behera bidali zuen niretzako ohar bat ekarriz, honela zioena: «Bota ezazu herrialdetik gizagaixo hau, eta ez ezazu honelakorik gehiago bidaltzen nekerik hartu. Nahiago dut bakarrik egon zuk eskura ditzakezun moduko gizonak aldamenean eduki baino.» Hori orain urtebete baino gehiago izan zen. Lotsagabekeria handiagorik, aizu!» «Berririk ez, geroztik?» galdegin zuen besteak ahots marrantarekin. «Marfila —hitzetik hortzera ilobak—, pila bat, primerakoa gainera, pilaka, gogaikarria oso bere aldetik.» «Eta horrekin?» galdetu zuen ahots garratzak. «Faktura.» izan zen, erantzuna disparatua, nolabait esanda. Ondoren isiltasuna. Kurtzetaz aritu ziren solasean.

Ni jada guztiz esna, baina patxada ederrean etzanda nengoenez, geldirik egon nintzen, posturaz aldatzeko eragingarririk ez nuen eta. «Nola egin du marfilak bide luze hau?» marruskatu zuen gizonetan zaharrenak, oso erresuminduta, zirudienez. Besteak azaldu zuen kanoa flota batekin etorria zela, berarekin zeukan enplegatu ingeles mestizo baten kargu, Kurtz berbera itzultzen saiatu omen zela, estazioa tenore hartan merkantziez eta hornidurez gabetua baitzegoen, baina hirurehun milia ibili ondoren bat-batean bira ematea erabaki eta egin ere, halaxe egin omen zuela berak bakarrik piragua txiki batean lau arraunlari lagun zituela, mestizoari marfilarekin ibaian behera jarraitzen utziz. Bi tipoek lilurata ziruditen halako gauza bat burutzen inor ahalegindu izanaz. Hori egiteko arrazoi funtsezko bat aurkitzeko gauza ez ziren. Niri dagokidanean, aldiz, iruditu zitzaidan Kurtz estreinakoz ikusi nuela. Irudi argia zen: piragua, lau basatiak arraunean, eta gizon zuri bakartia bat-batean bizkarra emanez egoitza nagusiari, segurantzia-ri, etxera itzultzeko asmoari; aurpegi emanez oihanaren barrenari, bere estazio huts eta isola-

tuari. Arrazoa ez nekien. Agian, gizon fin bat baino ez zen, bere lanari lanagatik isuria. Bere izena, konturatu baldin bazarete, ez zuten behin ere aipatu. Bera «gizon hori» zen. Mestizoa, ikusi nuenagatik bidaia arriskutsu bat zuhurtasun eta bipiltasun handiz burutu zuena, «doilorkume hori» bezala aipatzen zuten beti. «Doilorkumea»k informatu zuenez «gizona» oso gaixo egon omen zen, ondo bizkortu gabe omen zegoen... Orduan nire azpian zeuden bi tipoak urrats batzuk urrundu eta atzera-aurrera ibili ziren hurbil samarretik. Aditu nuen: «Postu militarra... medikua... berrehun milia... bakar-bakarrik orain... ezinbesteko atzerapenak... bederatzi hilabete... berririk ez... zurrumurru arraroak.» Atzera hurbildu ziren, zuzendaria hauxe esaten ari zenean: «Inor ere ez, nik dakidala, bakar-bakarrik trafikari antzeko ibiltari bat, tipo nazkagarri bat, indioei marfila harrapatzen diena.» Zeinez ari ote ziren orain? Zatietatik atera nuen, Kurtzen barrutian bide zegoen gizon bat omen zen eta zuzendariaren gustukoa ez zena. «Konpetentzia desleialetik ez gara libratuko tipo horietako bat urkatu arte, ikasbidea emateko.»

esan zuen. «Bai, ba! —marmaratu zuen besteak—. Urkatu dezatela! Zergatik ez? Herrialde honetan edozer gauza egin liteke, edozer gauza. Nik zera diot: inork ere ezin du hemen, ulertzen? hemen, zure postua arriskutan jarri. Eta zergatik? Zuk klimari eusten diozu, zuk denak garaitzen dituzu. Arriskua Europan dago; han, ordea, ni irten baino lehen badaezpada...» Pixka bat alboratu eta xuxurlaka aritu ziren; baina ondoren ahotsa berriro goratu zuten. «Hainbat atzerapen izatea ez da nire errua. Nik ahaleginak egin nituen.» Gizon lodiak hasperen bat bota zuen. «Tristeia, benetan.» «Eta bere hizkera absurdo eta nazkagarriak —segitu zuen besteak—, erabat gogaitzen ninduen hemen zegoenean. “Estazio bakoitzak faro bat ahalakoa behar luke izan aurrerabidearen gidaritzan; bilgune bat merkataritzarako, baiki, baina orobat gizakintzarako, hobekuntzarako, irakaskuntzarako.” Pentsa, astakirten halakoa! Eta zuzendaria izan nahi du! Ez, zera da...» Hemen itobeharrean gehiegizko suminduragatik eta nik burua doi-doi altxatu nuen. Harritu nintzen nigandik hain gertu zeudela ikusteaz, nire azpian bertan. Haien sonbrei-

ruen gainera tu egin nezake. Lurrari begira zeuden, gogoetan sorgortuak. Zuzendaria adaxka fin batekin hanka ganean jotzen ari zen: bere ahaide maltzurak burua altxatu zuen. «Ondo egon zara oraingo honetan atera zinenetik?» galdegin zuen. Bestea asaldatu egin zen. «Zein? Ni? Primeran. Bai, primeran. Baina besteak, Ene Jaungoikoa! Denak gaixorik. Gainera, hain azkar nola hiltzen diren, herrialdetik kanpora bidaltzeko astirik ere ez dut izaten, sinestezina da!» «Hum. Bai, horixe —murmuratu zuen osabak—. Ai, mutila! Honetan konfiatu, aizu, honetan konfiatu.» Bere beso motza zabaltzen ikusi nuen, oihana, ugaldea, basatza eta ibaia hartzen zituen keinu batean; bazirudien eguzkiak argitutako lurraren aurpegiaren aurrean, herio zelatariari, ezkutuko gaitzari, bere bihotzeko ilunbe sakonei, desohorezko imintzio batekin iruzurrez deitzeko sinua egiten ziela. Hain zen ikaragarria non salto batez zutitu eta burua jiratuz oihanaren ertzari so egin nion, konfiantzazko agerpen beltz haren aurrean nolabaiteko erantzuna espero banu bezala. Badakizue zer burutapen zoroak etortzen zaizkion bati batzuetan. Baretasun

garaiak bere parte txarreko egonarriarekin aurpegi ematen zien bi irudi horiei, inbasio bitxi hau noiz aldenduko zain.

Biok batera ozenki birao bat bota, izuaren izuz, uste dut, eta gero niri ez ikusiarena eginez, estazio aldera itzuli ziren. Eguzkia behean zegoen eta maldan gora besoz beso aurrerantz makurturik zihoazela, bazirudien luzera ezberdineko beren bi itzal barregarriak atzetik nekez arrastaka zeramatzatela belar luzearen gainetik, astiro, printza bakar bat ere tolestu gabe.

Egun gutxiren buruan Eldorado Espedizioa oihan egonarritsuan barrendu eta hura gainean hertsu zitzaien, murgilkari bati itsasoa gainean hesten zaien bezalaxe. Handik puska batera asto guztiak hil zirelako albistea etorri zen. Ez dakit ezer balio gutxiagoko animalien patuaz. Horiek, dudarik gabe, guk denok bezala, merezi zutena aurkitu zuten. Ez nintzen galdezka aritu. Orduan urduri xamar nengoen laster batean Kurtzekin gertatu behar nuelako. Laster batean diodanean konparazio batera diot. Hain zuzen ere, bi hilabete iragan baitziren ugaldea utzi genuen egunetik

Kurtzen estazio azpiko hegi aldera iritsi ginen arte.

Ibai hartan gora joatea atzera ere munduaren lehenengo hastapenetara bidaiatzea bezala zen, landaretza lurrean multzokaturik zuhaitz tantaiak errege zireneko aldietara. Isurbide mortua, isiltasun betea, oihan barrenezina. Airea epel, lodi, astun, geldoa zen. Eguzki argiaren briluan alaitasunik ez. Ubideko bitarte luzeak desertuki aurreratzen ziren, gerizaturiko distantzien goibeltasunerantz. Zilarrezko hondartzetan hipopotamoek eta kaimanek elkarren ondoan eguzkia hartzen. Urak, zabaldu ahala, zuhaitzezko uhar-te mordo batean zehar jariatzen ziren; ibai horretan basamortuan bezala galduko zenuen bidea eta egun osoan ibiliko hondar-pilekin estropezuka ubidea aurkitu nahian, harik eta liluraturik, behinola, antza, oso urrunean, beste bizialdi batean, apika, ezagutu omen zenituen gauza guztietatik isolatuta sentituko zinen arte. Noizik behin iraganaldia atzera etortzen zitzazun, zeure buruari une bat ere eskaintzekorik ez duzunean gertatu ohi den bezalaxe; etorri, ordea, landare, ur eta isiltasunezko mundu harri-

garri honetako errealitate nahastaileen artean txundimenez oroitzen duzun amets asaldagarri eta zaratatsu baten itxuran etortzen zen. Eta bizitzazko gelditasun honek bakearen antzik apurrena ere ez zuen. Asmo sumaezin baten hausnarketan diharduen indar gupidagabe baten gelditasuna zen. Mendekua hartzeko itxuraz begiratzen zizun. Gero ohitu egin nintzen; ez nuen gehiago ikusten; astirik ez nuen. Bidea asmatzen jarraitu behar nuen; urpeko hondar-pilen zantzuak hautematen, inspirazioz gehiengatzen; hondoratutako harriei adi; hortzak kolpetik estutzen ikasten ari nintzen bihotzak bularretik ihes egin ez ziezadan estalitako oztopo zahar zitelen bat txiripaz libratzen nuenean, latorrizko baporeari bizia erauzi eta pelegin guztiak itoko zituen; erne egon behar egur lehorraren aztarrenik non ikusiko, gauean ebaki eta biharamu-
nean galdaran erabiltzeko. Arreta horrelako gauzatan, ur gaineko gorabehera soiletan ipini behar duzunean, errealitatea —errealitatea diotsuet— lausotu egiten da. Zure barneko egia ezkutuan dago, zorionez, zorionez. Nik, ordea, berdin-berdin sumatzen nuen, sarritan bere gel-

ditasun misteriotsua nire pailazokeriatan begira zegokidala sumatzen nuen, zuei ere, lagunok, zeuen soka gaineko saioan begira dagokizuen bezala, zenbatean? korona erdia itzulipurdi bakoitzeko.»

«Mesedez, ez zaitetz horren gordina izan, Marlow» —marruskatu zuen ahots batek, eta halatan jakin nuen entzule bat gutxienez esna zegoela nire aldamenean.

Barkamena eskatzen dizuet. Ahazten nuen prezioaren barne dagoen samina. Izan ere, zer axola prezioa, saioa ondo egina baldin bada? Zuek oso ondo egiten dituzue zeuen saioak. Eta nik ere ez nuen gaizki egingo, ze neure lehen bidaian ez bainion baporeari hondoa joarazi. Oraindik ere harritzen zait. Imajinatu gizon bat begiak estalita kamino eskas batetik furgoneta bat gidatzen. Izerdia dezente bota nuen istorio horrekin eta ikaratu ere majo ikaratu, benetan, aizue. Azken batean, marinel batentzat bekatu barkaezina baita bere manupean dagoen bitarte guztian ustez igeri egin behar duen gauzaren azpialdea arrakalatzea. Beharbada inork ez du jakingo, baina zuri zarrastada ez zaizu sekula

ahaztuko, eh? ukaldi bat bihotzaren erdian. Horrekin gogoratzen zara; horrekin amets egiten duzu; gauerdian esnatu eta horretaz pentsatzen duzu —handik urte batzuetara— eta gorputza izerditan eta hotzikarez nabaritzen duzu. Ez dut esan nahi bapore hau betiere igerian ibili zenik. Behin baino gehiagotan pixka batez ibian igaro beharra izan zuen, hogeit hamar inguruan txipli-txaplaka eta bultzaka. Horietako batzuk tripulazio gisara sartu genituen. Jende fina —kanibalak— euren tokian. Gizon horiekin lan egin zitezkeen, eta aintzakotzat hartzen ditut. Eta azken finean ez zuten elkar jaten nire begien aurrean: bidekotzat hipopotamo okela ekarri zuten aldean, usteldu egin zitzaienta eta oihanaren misterio kirastua nire sudurrari usnarazi. Puf! Oraindik usaintzen dut. Ontzian zuzendaria neraman, baita ere hiruzpalau pelegrin euren esku-makilekin, koadrila osoa, beraz. Noizean behin hegitik gertu estazioen bat topatzen genuen, ezezagunaren magalari itsatsia eta txabola zarpail batetik gizon zuriak kanporatzen ziren, keinu handiak egiten pozez eta harrimenez eta abegi onez; oso bitxiak ziruditen; aztikeria batek ber-

tan gatibatuta edukitzeko itxura zuten. Marfil hitzak airean durundian eta gero isiltasunera itzultzen ginen, eremu hutsetatik zehar, bihurtzune mantsoak biratuz, gure bide bihurriaren murrugarien artetik, txopako errotaren palastatze unatuak txalokada moteletan durundan. Zuhaitzak, zuhaitzak, milioika zuhaitz, sailka, eskergak, gorantz metatuak; eta haien oinetan, hegiaren ertzetik joanez uraren kontra, baporetxo belztua arrastaka, hala nola kakalardo nagibat arkupe itzel bateko zorutik arrastatzen. Horrek oso ttikia sentiarazten zizun, oso galdua; sentipen hori, hala ere, ez zen erabat deprimentea. Zena zela, ttikia izanik ere, kakalardo likitsa aurrerantz arrastatzen zen, horixe egitea nahi zenuen eta. Norantz uste zuten pelegrinek arrastatzen zela, hori ez dakit. Egingo nuke zerbait eskuratzea espero zuten lekuren batetarantz. Niretzat Kurtzengana soilki arrastatzen zen; baina lurrun hodiak jarioka hasi zirenean astiro-astiro arrastatu ginen. Ibai-arteak aurretik zabaldu eta atzetik hertsu egiten zitzaizkigun, oihana tipi-tapa uretan barrendu bailitzan guri itzulera-ko bidea eragozteko. Gero eta barrenago sar-

tzen ginen ilunbeen bihotzean. Isiltasun handia zegoen bertan. Gaez inoiz zuhaitzezko gortinaren atzetik danbor hotsa ibaian goratu eta bertan luzaroan gelditzen zen ahulki, dilindan bezala goiko airean, gure buruen gainean, eguna urratu arte. Bere esanahia gerra, bakea edo otortza ote zen, ezin esan genezakeen. Goiz-albak gelditasun hozkirri baten beheraldiak iragartzen zituen; egurgileak lo; euren suak ahiturik; adaxka baten kirrikak ere asaldatu egingo zintuen. Erromes ginen antzinako lurraren gainean, planeta ezezagun baten tankerako lurraren gainean. Iduri genezakeen nahigabe larriaren eta lan neketsuaren ordainetan menperatu beharra dagoen oinordetza madarikatu batez jabetzen lehen gizonak ginela. Hala ere, supituki, bihurgune bat nekez biratzen genuenean, instant batez ihizko paretak begiztatzen genituen, belarrezko teilatu zorrotzak, intzirizko eztanda bat, besozango beltzezko zurrunbilo bat, nahas-mahasen eskuak txaloka, oinak zanpaka, soinak zambuluka, begiak jiraka, hostaia astun eta geldia- ren abaroan. Baporea emeki iragaten zen, aztoramen beltz eta ulertezin baten ertzetik. Antzi-

nako gizonak birao, otoi ala abegi egiten zигun, zeinek daki? Gure ingurunearen ulerkuntzatik isolatuta geunden; fantasmak bezala lerratuz igarotzen ginen, txunditurik eta isilean ikaraturik, eroetxe bateko biztualdi gartsu baten aurrean gizon zuhurrak egongo liratekeen bezalaxe. Ezin genuen ulertu urrunegi geundelako eta ezin genuen oroitu lehen aldietako gauean bidaiatzen ari ginelako eta aldi horiek joanak dira, doi-doi zantzu bat utziz; oroitzapenik ez, ordea.

Lurrak ez zirudien lurtarra. Menderatutako munstro katigatu baten itxuran ikusten ohituta gaude; han, aitzitik, munstrozko gauza aske baten gisan ikusten zenuen. Ez zen lurtarra, eta gizonak ere ez ziren... Bai, gizatiarrak ziren. Bada, aizue, horixe zen okerrena, gizatiarrak ote ziren susmoa, alegia. Hori pixkanaka ernetzen zitzaion bati. Oihu eta jauzi egiten zuten, eta birak ematen, eta aurpegi ikaragarriak jartzen; baina benetan bihotz erdiragarri gertatzen zitzaizuna haien gizatasunean —zurea bezalako— pentsatzea zen; harrabots basati eta grinatsu harekiko zenuen ahaidetasun urrunean

pentsatzea. Itsusia. Bai, itsusi samarra zen; baina nahiko gizona bazinen, aitortu behar zenuen zeure baitan bazegoela erantzun baten arrastorik ttipiena ere zarata haren egiatasun izugarriaren aurrean, susmo ilun bat, zarata hartan esanahi bat bazegoela, zuk —lehen aldieta-ko gauetik hain urrun zeundenak— ulertzeko modukoa. Eta zergatik ez? Giza gogoia edozertarako gai da, bere baitan gauza guztiak daudela-ko, nola iragana hala etorkizuna. Zer zegoen han bada? Poza, beldurra, nahigabea, jaiera, kementa, amorrua —zeinek daki?—: alabaina, egia, denboraren estalgarriaz erantzitako egia. Ergela asalda eta hunki bedi; gizonak, aldiz, jakin bada-ki, eta kliskada bat ere gabe beha dezake. Behar du izan, baina, kostaldeko horiek bezain gizon gutxienez. Egia hori bere egiarekin alderatu behar du, jatorrizko bere indarrarekin. Printzipio-ek ez dute balio. Eskurapenak, jantziak, zarpail politikak, lehen astinaldi ederrean eroriko ziren zarpailak. Ez, fede deliberatua behar duzu. Niretzako dei bat dagoela demoniozko zalaparta horretan? Oso ondo; entzuten dut; onartzen dut, baina nik ere badut ahots bat, eta onerako nahiz

txarrerako nirea ezin isilaraz daitekeen hitzaldia da. Noski, ergela, bere izuarekin eta bere sentimendu onekin, beti salbu dago. Zein ari da hor marmarrean? Zergatik ez nintzen lehorreratu oihu eta dantza egitera? Egia da; ez nuen egin. Nire sentimendu onak diozue? Pikutara sentimendu onak. Ez nuen astirik. Galdu behar izan nuen lurrun hodi pitzatu haiek berun zuriarekin eta lanazko manta txatarrekin estaltzen laguntzeko, horrexegatik. Lema zaindu behar nuen, eta oztopo haietatik begiratu eta latorrizko potea zart edo zalapart ibiltzea lortu. Gauza horien azalean bazegoen gizon jakintsuago bat ere salbatzeko adina egia. Eta bien bitartean galdarazain zegoen basatia zaindu behar nuen. Espezi-
men hobeagotu bat zen; zutikako galdara bat pizteko gai zen. Han zegoen bera nire azpian eta, zinez diotsuet, berari begiratzea txakur bat galtza motzetan eta lumadun sonbreiruz jantzita atzeko hanka gainean tente ibiltzeko parodia batean ikustea bezain altxagarria zen. Horra hor prestakuntzako hilabete gutxi batzuek zer bilakatu zuten mutil bikain hura. Ausardiazko ahalegin nabariarekin aztertzen zituen lurrunaren

manometroa eta uraren maila; eta gainera, hortzak limatuta zeuzkan gizagaixoak, eta bere kas-kamotzeko ilea era bitxian afeitatua eta masailetan hiruna orbain apaingarri. Ibaiertzean egon behar zukeen eskuak txaloka eta oinak zanpaka; alabaina, gogor ari zen lanean, aztikeria harrigarri batek gatibaturik, probetxuzko jakituriaz hornitua. Gai zen irakatsi egin zitzaiolako; eta berak hauxe zekien, baldin eta gauza garden hartako ura agortzen bazen, galdara barruko izpiritu gaiztoa haserretu, biziki egarritua baitzegoen, eta mendeku ikaragarria hartuko zuela. Halatan, izerditu eta sua piztu eta kristalari izututa begiratu egiten zuen (besoari lotuta kuttun bat zuela, trapuz egindakoa eta beheko ezpainean zeharka sartuta, hezur zati leundu bat, erloju baten tamainakoa) eta bizkitartean hegi basotsuak geldiro lerratzen zitzaizkigun, zarata txikia gibelean utzia zegoen, isiltasunezko milia amaigabeak, eta gu arrastaka gindoazen Kurtzenganantz. Baina, oztopoak zitalak ziren, ura engainagarria eta txikia, galdarak egiatan zirudien barruan deabru erretxin bat zeukala eta ez galdarazainak

ez nik ez genuen astirik gure pentsamendu bel-
durgarriei begira egoteko.

Barne Estaziotik berrogeita hamar bat milia
beherago kanaberazko txabola bat deskubritu
genuen, masta okertu eta malenkoniatsu bat,
zintzilikaturik egondako bandera klaseren baten
piltzar itxuragabeak zituena, eta ondo antolatu-
tako egur meta bat. Hori ezustekoa zen. Lehorre-
ra egin eta egur pilaren gainean ohol pusketa
bat aurkitu genuen lapitzez idatzitako zirriborro
bat zeukalarik. Hura deszifratu eta hauxe zioen:
«Egurra zuentzat. Azkar ibili. Kontuz hurbildu.»
Sinadura bat zegoen, baina irakurtezina zen,
Kurtz ez, baina hitz askoz ere luzeago bat. Azkar
ibili. Nora joateko? Ibaian gora? «Kontuz hurbil-
du». Ez genuen hala egin. Baina oharrak ezin
adieraz zezakeen hurbildu ahala bakarrik aurki-
litekeen leku bat. Zerbait gaizki zebilen goial-
dean. Baina zer? Eta zenbateraino? Hori zen
auzia. Komentario gaitzesgarri batzuk egin geni-
tuen estilo telegrafiko haren pellokeriaz. Inguru-
ko sastrakak ez zioen ezer ez eta oso urrutira
begiratzen ere ez zigun uzten. Kotoi gorrizko
gortina tarratatu bat zegoen ate ondoan zintzilik

eta goibelki ikaritzen zen gure aurpegietan. Bizitokia hutsik zegoen, baina begi-bistakoa zen gizon zuri bat ez oso aspaldi bertan bizi izan zela. Mahai zakar bat gelditzen zen, xafla bat bi zutoinen gainean; zabor pilo bat txoko ilun batean lagata eta atetik gertu liburu bat eskue-taratu nuen. Azalez gabetua zegoen, eta orrialdeak eskuztatzearen poderioz zeharo zikinduak eta bigunduak; bizkarra, aldiz, kotoizko hari zuriarekin maitekiro birjosia, artean ere garbi itxurarekin. Berebiziko aurkikundea zen. Izenburua *Nabigazio alor batzuei buruzko ikerketa bat*, egilea Tower, Towson, edo antzeko izen bat, Bere Maiestatearen Itsas Armadako Kapitaina. Gaiak aspergarri samarra zirudien irakurtzeko, irudizko adibideez eta zenbaki taula higuin-garriez hornitua, eta aleak hirurogei urte zeuzkan. Zaharkin harrigarri honi ahalik eta maitasunik handienarekin heldu nion, ez ahal zitzaidan eskuartearen desegingo. Barruan, Towson edo Towserrek taxuzko ikerlana jorratzen zuen ontzietako katea eta apailuen etendura indarrak eta horrelako beste gai batzuetaz. Ez zen oso liburu interesgarria; baina lehen begiratuan

asmo bakar bat ikus zenezakeen han, kezka jator bat lanari ekiteko modu egokiari buruz, hainbeste urte lehenago idatzitako orrialde xume hauei argi profesionalaz bestelako argiez distirarazten ziena. Marinel zahar xaloak, katea eta apailuen gaineko bere istorioarekin, oihana eta peleginak ahaztarazi zizkidan, dudarik gabe egiazkoa zen zerbait aurkitu nuelako sentsazio zoragarria sortaraziz. Han halako liburu bat ego- tea nahiko harrigarria zen, baina oraindik txundi- garriagoak ziren ertzean lapitzez idatzitako oha- rrak, eta testuari zegozkion zuzeneko aipame- nak zirenak. Ezin nien neure begiei sinetsi! Len- goaia zifratuan zeuden! Bai, lengoaia zifratuaren antzekoa zen. Imajinatu gizon bat aipatutakoa bezalako liburu bat inongo bazter honetara aldean ekartzen, hori ikasten eta oharrak egiten, lengoaia zifratuan, aizue! Misterio bitxia zen.

Zarata gogaikarri batez erdi oharturik egon nintzen pixka batean, eta begiak altxatzearekin batera ikusi nuen egur pila desagertua zela, eta zuzendaria, pelegin guztien laguntzaz, ibaier- tzetik deiadarka ari zitzaidala. Liburua patrikan gorde nuen. Egiatan esaten dizuet, irakurtzeari

uztea adiskidetasun zahar eta sendo baten babespetik bereiztea bezala izan zen.

Motor karrankaria martxan jarri nuen. «Trafikari txatxu hori da, sobra ere, intruso hori,» oihukatu zuen zuzendariak, atzean utzitako tokiari gaizto begirada botaz. «Ingelesa izan behar du.» esan nuen nik. «Horrek ez du salbatuko arazoak izatetik kontuz ibiltzen ez bada,» ilunki marmaratu zuen zuzendariak. Itxurazko xalotasunez ohartarazi nion inor ez dagoela mundu honetan arazoetatik salbu.

Ura lasterrago zetorren orain, baporeak azken arnasan zirudien, txopako errota indarge palastatzen, eta ni ontziaren taupada berri bakoitzari jakin-minez adi aurkitu nintzen, zeren eta, egia esateko, traste penagarri hark une batetik bestera pot egingo zuela espero bainuen. Bizitza baten azken dardarari so egitea bezala zen. Baina artean arrastatzen ginen. Inoiz bidean aurreraxeago zuhaitz bat begiz jotzen nuen Kurtzengananzko gure aurrerapena neurtzeko, baina betiere haren paretik igaro aurretik galtzen nuen. Begiak gauza baten gainean finkatuta hain luze edukitzea gehiegi da gizonaren

pazientziarako. Zuzendariak etsipen galanta agertzen zuen. Ni urduri jartzen nintzen eta amorrarazita eta nire buruarekin eztabaidan ea Kurtzekin argi eta garbi hitz egingo nuen ala ez; baina inolako konklusiorik atera ahal izan aurretik bururatu zitzaidan nire hitz egitea edo nire isiltzea, alegia, nire ezein egintza, hutsaren hurrengo gertatuko zela. Zer axola batek zekienak edo ez zekienak? Zer axola nor zen zuzendaria? Inoiz halako barne argialdiak izaten ditu batek. Afera honen mamia azaletik aski sakon zegoen, nire eskumenaz harantzago, eta nire sartzeko botereaz harantzago.

Bigarren eguneko iluntze aldera Kurtzen estaziotik gutxi gora behera zortzi miliatara geundela jo genuen. Nik aurrera egin nahi nuen; zuzendariak, berriz, bekozko iluna jarri eta esan zidan handik gora nabigatzea hain zela arrisku-tsua, non komeniko bailitzateke, ordurako eguzkia sartzear zegoenez, geunden lekuan bertan biharamun goizera arte itxarotea. Bestalde azpimarratu zuen kontuz hurbiltzeko oharrari jarraitu behar bagenion, egun argitan hurbildu behar genuela, ez ilunabarrean edo gauean. Hori nahi-

ko zentzuzkoa zen. Zortzi milia ia hiru orduko bidaia zen guretzat, gainera uhin susmagarriak ikusi nituen ibai-tartearen amaieran. Hala eta guztiz ere, ezin esanezko moduan nengoen ernegatua atzerapenagatik, eta arrazoi izpirik gabe gainera, ze gau bat gehiago hutsa baitzen hainbeste hilabeteren buruan. Egurra ugari genuenez eta leloa kontuz ibiltzea zenez, ibai erdian bota nuen aingura. Ibai-tartea meharra zen, zuzena, hegiak gora, trenbide bateko ezponda bezala. Inularra habailduz sartu zen, eguzkia artean ezkutatu gabea zela ere. Ibaiak ur laua eta lasterra zekarren, baina hegietan gelditasun mutua zetzan. Zuhaitz bizidunak sastrakako igokariekin elkarri estekatuak, harrien ordeztaldak zitezkeen, baita adaxkarik mendreena, historik ezdeusena ere. Ez zen loa, ez zirudien naturala, trantze egoera bat bezala. Soinurik motelena ere ez zen inondik aditzen. Zur eta lur begiratzen zenuen eta gortuta ote zeunden susmatzen hasi; orduan gaua supituki jausi, eta itsututa ere uzten zintuen. Goizaldeko hirurak aldera arrain handi batek salto egin eta txaplastada ozenak arma baten tiro hotsak bezala asal-

datu ninduen. Eguzkia altxa zenean laino zuri bat zegoen, epel-epela eta itsaskorra, gaua baino ere itsugarriagoa. Ez zen mugiten, ez ikaritzen; hantxe zegoen, egon ere, geldirik, norbera inguratuz zerbait sendoa bezala. Zortzietan edo bederatzietan, apika, pertsiana bat bezala altxa zen. Istant batez zuhaitz tantai ugariak begiztatu genituen, nahaspilaturiko oihan esker-ga, honen ganean eguzkiaren bolatxo dirdaitsua zintzilikaturik, dena geldi-geldi, eta ondoren pertsiana zuria berriro eraitsi zen, aiseki, koipeztaturiko errailetatik labainduz bezala. Katea, jasotzen hasiak ginena, berriro aska zezaten agindu nuen. Karranka sorrarekin korritzeaz gelditu aurretik, oihu bat, oso oihu zolia, ezin samingarriagoa, aire sarriaren baitan astiro hegaldatu zen. Isildu zen. Aldarri arranguratsu batek, disonantzia basatietan modulaturia, belarriak gaineztu zizkigun. Erabateko ustekabetasunak ilea tentearazi zidan gorra azpian. Nik ez dakit besteei zer nolako bihotz zirrara eragin zien, niri behintzat ganduak berak garrasi egin izan balu bezala iruditu zitzaidan, hain bat-batean sortua baitzen eta itxuraz alde orotatik batera etorria deiadar

zalapartatsu eta auhenagarri hura. Gehiegizko eta ia jasanezinezko irrintzien eztanda zalapartari batekin bukatu zen, kolpetik isildu zena, gu postura barregarri ezberdinetan utzita, kasik hain lazgarria eta gehiegizkoa zen isiltasunean belarria setati ipinita. Jaungoikoa! Zer esan nahi...» hitz totalka esan zuen nire aldamenean pelegin batek, gizontxo potolo bat, ile horia eta loki gorriak zituena, gomazko zoladun botaz jantzia eta pijama arrosa galtzerdi barrenetan sartua. Beste bi aho zabalik geratu ziren minutu oso batez, gero kabinatxoaren barrura oldartu eta berehalaxe itsumustuan kanporatu ziren zutik gelditzeko begirada ikaratiak botaz, Winchesterrak eskuetan prest zituztela. Gure inguruko baporea baino ezin genuen ikusi, bere ertz lausotuak, urtzeko zorian bezala, eta ur zerrenda lanbrotsu bat, bi oin bete zabal, beharbada, bere jiran, eta hori zen guztia. Munduaren gainerakoa ez zen inon, gure begi-belarriei zegokienez bederen. Inon ere ez. Aldendua, desagertua, garbitua izan zen atzean xuxurla bat edo itzal bat utzi gabe.

Aurrera joan eta katea motz jaso egoteko agindu nuen, hartara aingura goratu eta baporea berehala abiatzeko prest egon zedin, behar izanez gero. «Eraso egingo ote dute?» xuxurlatu zuen ahots ikarati batek. «Txikizioa egingo digute laino honekin!» marmaratu zuen beste batek. Aurpegiak larriagatik zurrunduta, eskuak dardarra txikian, begiak kliskatzeaz ahaztuta. Oso bitxia zen aurpegien kontrastea ikustea gizon zurietatik gure tripulazioko beltz jendera, hauek ibaiaren alde honetan gu bezain arrotzak zirelarik, nahiz eta etxea handik zortziehun miliatara baizik ez eduki. Zuriek, noski, arrunt deseginda, bazuten gainera halako iskanbila asaldagarriak minez hunkituta egoteko itxura kurioso bat. Besteek espresio ernai eta interesatua zuten, jakina; baina beren aurpegiak lasai zeuden, egon ere, baita katea jaso bitartean irribarrez ari ziren bizpahiru haienak ere. Batzuen batzuk esaldi laburrak trukutzen zituzten purrustaka, agi zenez arazoa beren gogara konponduz. Euren buruzagia, beltz gazte bulartsu bat, urdin ilunez azpildutako jantziez arrunki apaindua, sudur zulo izugarriak eta ilea kizkur koipetsutan artezki antola-

tua, nire aldamenean zegoen. «Eta?» esan nion adiskidetsu agertzeko asmo hutsarekin. «Harrapa itzazu —zirt-zart bota zidan, bere begi odoltsuak zabalduz eta bere hortz zorrotzak distiraziz—. Harrapa itzazu. Guri eman.» «Zuei, eh? —galdegin nuen— Eta beraiekin zer egiteko?» «Jateko.» lehor esan zuen, eta ukalondoa barandaren gainean ipiniz lainoaren barrenan so gelditu zen duintasunez beteriko jarrera gogoetatsu batean. Ni izu laborriak hartuko nindukeen dudarik gabe, baldin eta berak eta bere lagunak gose handiz egon behar zutela otu ez balitzait, gero eta gose handiagoz egon ere, azken hilabete honetan batik bat. Sei hilabeterako kontratatuak zeuden (ez dut uste haietako bakar batek ere denboraren ideia garbirik zuenik, ez guk bezala behintzat hainbeste menderen buruan. Haien denboraren hasierakoak ziren, atzean ere; alegia, erakutsiko zien esperientziarik ez zuten heredatu), eta, jakina, ibaiaren behealdean egitako lege irrigarri bat edo besteren arabera idatzitako paper puska bat zegoen bitartean, Inon ez zitzaion bururatu ere egiten beraien bizimoduaz kezkatzea. Egia da aldean hipopotamo

haragi ustela ekarri zutela, edozein modutara oso luze iraungo ez ziena, ez eta peleginek, harramantza hunkigarri baten erdian, mordoxka bat kareletik bota ez balute ere. Nagusikeriaz jokatzea iduri lezake, baina egiazki nork bere buruaren defentsako kasu bat zen. Ezin duzu hipopotamo hilaren kiratsa usnatzen egon esnatzean, lo egitean eta jatean, eta aldi berean bizitzari diozun atxikimendu badaezpadakoari eutsi. Gainera, astero latoizko hiruna alanbre zati ematen zizkieten, bakoitza bederatzi ontzako edo, eta moneta harekin teoriar euren hornidurak erosi behar zituzten ibai ertzeko herrixketan. Ikusten duzue lana nola zegoen antolatuta. Edo herrixkarik ez zegoen, edo jendea etsai zitzaien, edo zuzendariak, guk denok bezala poteak, eta aldian behin eskupeko aker zaharren bat jaten zuena, ez zuen baporea gelditu nahi ageriko nahiz ezkutuko arrazoiren bategatik. Beraz, non eta alanbrea bera irensten ez bazuten, edota arrainak harrapatzeko laxo modura moldatzen, ez dut ikusten soldata arlote hark zertarako balio ote ziezaiekeen. Esan beharra dago merkatal konpainia handi eta ohoragarri baten dinako

erregulartasunez ordaintzen zitzaiela. Osterantzean, eskuartean ikusi nien jateko gauza bakarra —itxuraz jangaitz samarra bazen ere— erdi egositako ore antzeko sustantzia baten zati banaka batzuk ziren, labanda zikinaren kolorekoak, hostoetan bilduta gordetzen zituztenak, eta noizean behin pixkaka jaten zutena, hain gutxika, ordea, ze gauzaren itxuragatik egina zela baitzirudien, elikatzeko asmo serioagatik baino. Zergatik gosearen deabru eztenkari guztien izenean ez ote zitzaizkigun gainera erori —hogeita hamar ziren bosten aurka— eta behingoz sikiera betekada eder bat hartu, orain ere harritzen zait horrekin pentsatzen dudanean. Gizakote mardulak ziren, ondorioak neurtzeko gaitasun handirik gabekoak, adorea zutenak, indarra zutenak, artean ere, nahiz eta zegoeneko azalaren fintasuna eta giharren gogortasuna galduak eduki. Eta ikusi nuen, eusten zien zerbait, probabilitatea desafiatzen duten giza sekretu horietakoren bat, jokoan sartua zela. Derrepentean geroz eta interes handiagoarekin begiratzen nien, ez otu zitzaidalako luze gabe beharbada jan egingo nindutela, nahiz eta zuei

aitortu behar orduantxe ohartu nintzela —argi berri batez edo— pelegirinek zein itxura jangaitza zuten eta espero nuen, bai, benetan espero nuen, nire itxura —nola esango nuke?— gustagarriagoa edo izatea: alegiazko harrotasun ukitu bat, tenore hartako egun orotan nagusi zitzaidan amets sentrazioari ongi egokitzen zitzaiona. Agian sukar pixka bat ere banuen. Batek ezin du bizi beti behatza pultsuaren gainean duela. Sarri izaten nuen «sukar pixka bat», edo beste gauza batzuen ukitu pixka bat: oihanaren atzaparkada jostalariak, bere egunean etorri zen eraso bortitz larriagoaren aurreko huskeria iragarlea. Halaxe da, bai, begiratzen nien zuek edozein gizoni derrigorrezko premia fisiko baten froga jartzean begiratuko zenioketen bezalaxe, jakin-minez haien bihozkada, eragingarri, gaitasun eta ahulezien aurrean. Eutsi! Nola eutsi ordea? Zer ote zen, superstizioa, nazka, eramanarria, beldurra ala antzinako gizalege motaren bat? Beldurrik ez da goseari atzera egingo dionik, eramanarririk ez da gosea berdinduko duenik, nazka izatez ez da, gosea dagoenean; eta superstizioari dago-kionez, sinesmenak, eta printzipioak deitzen die-

gunak, galautsa brisapean baino ezdeusago dira. Badakizue zer den etengabeko ahuleziaren deabrukeria, bere oinaze sumingarria, bere pentsamendu beltza, bere basakeria ilun eta ikaragarria? Bada, nik bai. Gizonak jatorrizko indar guztia behar du gosearekin behar bezala borrokatzeko. Izatez aiseago jasaten da dolumina, desohorea eta norberaren arima galtzea, halako gosete luzea baino. Tristeia, baina egia. Eta tipo horiek, gainera, arrazoi mundutarrik ez zuten inolako eskrupulorik izateko. Eutsi! Guda zelaiko hilotzen artetik usnan ari den hiena batengandik hala eustea espero liteke. Baina egitatea han aurrean neukan, egitate liluragarria, begi-bistan, aparra bezala itsasoko sakonen gainean, uhin bat bezala igarri ezinezko enigma baten gainean, lainoaren zurtasun itsugarriaren atzean ibai bazterraren gainetik ziztu bizian igaro zitzaigun harrabots basati haren baitan zegoen ondikoeko etsipen nota bitxi, adierazezina baino misterio handiago bat, hartaz pentsatzen dudanean.

Bi pelegin txutxu-mutxu larrian ari ziren eztabaidaka hegiei buruz. «Ezkerretara.» «Ez, ez; hori esatea ere! Eskuinetara, eskuinetara,

noski.» «Oso serioa da hau —esan zuen zuzendariaren ahotsak nire atzean—. Nahigabe handia hartuko nuke Mr Kurtzi gu iritsi aurretik zerbait gertatuz gero.» So egin nion eta egiati zela duda izpirik ere ez nuen izan. Justuki itxurak gorde nahi lituzkeen gizon klasea zen. Hori zen bere eustea. Ordea, berehala abiatzeari buruzko zerbait marmaratu zuenean, erantzuteko lanik ere ez nuen hartu. Banekien, eta berak ere baze-kien, ezinezkoa zela. Hondoko finkagarria askatu orduko aire hutsean ginateke, espazioan. Ez ginateke gauza izango norantz —ibaian gora, behera edo zeharka— gindoazen ere esateko, hegi batarekin zein bestearekin topo egin arte, eta orduan ere bietako zein zen ez genuke jakin-go hasieran. Jakina, ez nintzen mugitu. Ez behar bat gertatzeko gogorik ez nuen. Naufragio baterako toki malapartatuagorik ez zenukete imajinatuko. Bertan ito edo ez, gauza segurua zen batera nahiz bestera azkar asko hilko ginela. «Nire baimena duzu ahalik eta gehiena arriskatzeko,» esan zuen isilune labur baten ondoan. «Ez dut inolako arriskurik nahi.» lehor esan nion; berak espero zuen erantzuna, hain zuzen ere,

nahiz eta doinuak apika harritu egingo zuen. «Ongi da. Zure iritzira makurtu beharra daukat. Zeu zara kapitaina,» esan zuen adeitasun nabariarekin. Onerizpen ezaugarritzat bizkarra eman nion eta lainoaren barrenera ikusmiratu nuen. Zenbat iraungo ote zuen? Ikusmirarik etsituena zen, etsitua bazen. Sastraka madarikatuan marfil miaketa gartsuan ari zen Kurtz horrengana hurreratzea, ipuinezko palazio batean lo lego-keen printzesa xarmangarri bat izan balitz bezain arriskutsua zen. «Eraso egingo dutela uste al duzu?» galdetu zuen zuzendariak doinu konfidentzial batez.

Nik ez nuen uste eraso egingo zutenik, bistako arrazoi desberdinengatik. Bata zen laino trinkoarena. Hegia utzi eta euren kanoetan ibairatuz gero ber-bertan galduko ziren, guri gertatuko litzaigukeen bezalaxe mugitzen saiatuko bagina. Bestalde, bi hegietako oihana guztiz barrenezintzat joa nuen; alabaina, begiak zeuden bertan, eta begi horiek ikusi egin gintuzten. Ibai ertzeko sasitza itsu-itsua zen, izatez; atzealdeko laharpea, berriz, bistan zen barrengarria zela. Ostera, igoera laburrean zehar ez nuen ibai-tartean

kanoarik ikusi, baporearen parean ez, bederen. Baina erasoaren ideia gertaezin irudiarazten zidana zarataren, entzun genituen oihuen nola-kotasuna zen. Berehala borrokari ekiteko asmoa iragartzen duen ankertasunik ez zuten. Ezustekoak, basatiak eta bortitzak nola izan baitziren, nahigabezko irudi bizia eragin zidaten. Baporea ikusteak arrazoiren bategatik neurrigabeko bihozminez bete zituen basati haiek. Arriskua, etortzekotan, azaldu nien, lehertutako giza jaidura bortitz batetik hurbil egotetik letorkiguke. Bihozminik larriena ere, azken buruan, bortizkeriaren bidez asaska daiteke; gehienetan, ordea, gogogabetasunaren itxura hartzen du...

Pelegrinen begirada txunditua ikusi behar zenuten! Ez zuten bihotzik ez barre egiteko, ez niri irainak botatzeko ere, baina uste dut erotzat hartu nindutela, izuagatik, agian. Egundoko hitzaldia bota nien. Ene lagunok, alferrik zen sumintzea. Erne egon? Bada, pentsa lainoari begiratzen niola ea altxatzeko seinalerik ote zegoen, katuak saguari begiratzen dion bezala; baina gainontzean, begiek ere ez ziguten balio kotoi meta batean miliatako sakoneran barren-

duak egon bagina baino gehiago. Sentsazioa ere berdintsua zen: estugarria, epela, itogarria. Bestalde, esan nuen guztia, arlotekeria ematen bazuen ere, egia borobila zen, izan ere. Geroago eraso bat bezala aipatu genuen hura egiazki errefusatze saio bat izan zen. Ekintza ez zen inondik ere oldartzailea, ez eta defendatzailea ere, ohizko zentzuan: etsipenaren larrian gauzatu eta funtsean babestailea baino ez zen.

Hori gertatu zen lainoa altxa eta handik bi ordutara, esango nuke, eta Kurtzen estaziotik beherago milia t'erdira edo zegoen toki batean izan zuen hasiera. Ez al genuen aldaroka eta makurka bihurgune bat biratu, uhartetxo bat ikusi nuen, belar berde biziko muino soil bat, korrontearen erdian. Tankera hartako gauza bakarra zen; baina bidea gehiago zabaldu genuenean hondar-pila luze baten burua zela erreparatu nuen, edo sakonera txikiko hondar gune kate bat hobeki, ibai erdian behera luzatzen zena. Kolorgeak ziren, urak gaineztuak, eta lerro osoa urpean doi ikusten zen, gizon baten bizkarrezurra larruazalaren azpitik ikusten den bezalaxe. Orduan, ikusten nuenez, bere ezkerre-

tik berdin eskuinetik joan nintekoen. Bi ubideak ezezagunak zitzaizkidan, noski. Hegiak itxuraz nahiko antzekoak ziren, sakonera berdina agertzen zuten; baina estazioa mendebaldean zegoela informatu zidatenez, jakina, sartaldeko pasabidera jo nuen.

Artean ere guztiz sartu gabeak ginelarik, nik uste baino meharragoa zenaz ohartu nintzen. Ezkerretara baxa luze jarraitua genuen eta eskuinetara, aldiz, hegi gora malkartsua, sastraka itsuaz mukuru betea. Sastrakaren gainetik zuhaitzak maila hertsietan goratzen ziren. Adarrak astunki zintzilikatzen ziren uraren gainera, eta tarteka-marteka zuhaitz baten besanga luzea irmoki aurreratzen zen uraren erdiraino. Zegoeneko arrats beheara zen, oihanaren aurpegia beldurgarria, eta uretara jada itzal zerrenda zabal bat amildua zegoen. Itzal horren baitan aurreratzen ginen, astiro-astiro, pentsatuko zenutenez. Dena lehorrera biratu nuen, hegiaren ondoan baitzegoen urik sakonena, zunda hagak adierazten zidanez.

Nire kide goseti eta eramankorretako bat brankan zundaketan ari zen, nire azpian bertan.

Bapore hau ontzigainadun gabarra baten berdin-berdina zen. Ontzigainean teka zurezko bi etxetxo zeuden, ate-leihoak zeuzkatenak. Galdara aurrealdeko muturrean zegoen eta makineria zuzen txopa aldean. Guzti horien gainetik sabai azal bat zegoen, zutoinez sostengatua. Tximinia sabai horretan gora altxatzen zen eta tximinia-aren aurrean xafla azalez eraikitako kabina txiki batek lematokitzat balio zuen. Barruan kamaina bat, kanpainako bi aulki, kargatutako Martini-Henry bat txoko batean zutik ezarria, mahai txiki bat eta errubera zeuzkan. Aurrealdean ate handi bat zuen eta alboetan leihatila zabal bana. Horiek denak beti zabal-zabal egoten ziren, jakina. Nik sabaiaren aurrealdeko muturrean igota ematen nituen egunak, atearen aurrean. Gaez kamainan lo egiten nuen, edo saiatzen nintzen, behintzat. Beltz gihartsu bat, kostaldeko triburen batekoa eta nire aitzindari dohakabeak hezitakoa, lemazain zegoen. Latoizko belarritako pare batez apaindua, gerritik txorkatiletaraino estaltzen zuen oihal urdin bat zeraman eta bere buruaz oniritzi handia zeukan. Egundo ikusiduran txoribururik aldakorrena zen. Trebeziaz

gobernatzen zuen baporea bere ondoan zeunden; baina bistatik galtzen zintuenean, berehalaxe izu laborriak jo eta bertan uzten zuen bapore elbarri hura bere gisara.

Goitik zunda hagari begira nengoela eta saio berri bakoitzean uretatik gero eta gehiago irriten zela ikusiz suminduta sentitzen ari nintzela, hara non ikusi nuen zundazainak tupustean bere eginkizuna bertan behera utzi eta ontzigainean luze etzaten zela, bere haga jasotzeaz ere arduratu gabe. Hagari helduta segitzen zuen, hala ere, eta hura uretan ildokatzen zen. Aldi berean, labezainak, neure azpian ere ikusi nuena, bere labearen aurrean plausta eseri eta burua erortzera utzi zuen. Ni txundituta nengoen. Orduan ez bat eta ez bi begiratu beharra izan nuen, ubidean oztopo bat zegoen eta. Ziriak, ziri txikiak, inguruan hegaldatzen ziren, saldoka: firrindan nire sudurraren paretik, nire azpian erortzen, zirti-zarta jotzen nire atzean lematokiaren kontra. Denbora guzti horretan, ibaia, hegia, basoak, isil-isilik zeuden, isiltasun osoan. Bakar-bakarrik entzuten nuen txopako errotaren txipli-txaplako kolpatze astuna, eta gauza haien burrun-

dara. Baldarki saihestu genuen oztipoa. Geziak, Jainkoarren! Geziak jaurtikitzen zizkiguten! Ziztu batean barruratu nintzen lehor aldeko leihatila ixteko. Lemazain txoro hura, eskuak erruberaren kirtenetan zituela, belaunak gora eta beheraka ari zen, oinak zanpaka, ahoa klaskaka, zaldi bridatu baten antzera. Babo arraioa! Eta gu zealdoka ari ginen hegitik hamar oin betera edo. Burua asomatu behar izan nuen leihatila astuna erakartzeko, eta aurpegi bat ikusi nuen hostoen artean buruz buru, ankertasunez begira-begira zegokidana; ondoren, derrepentean begietatik errezela bat kendu izan balidate bezala, goibeltasun nahaspilatsuaren barrenean, bular biluziak, besoak, hankak, begi distiratsuak haute-man nituen: sastraka giza atal mugikorrez borboraka ari zen, dirdirka, brontzearen kolorekoak. Abarrak inarrosi, kulunkatu eta kraskatzen ziren, haietatik geziak hegaldatzen eta orduantxe itxi nuen leihatila. «Zuzen jarraitu!» esan nion lemazainari. Burua tente eduki zuen, aurpegia aurrea; baina begiak jira-biraka zeuzkan, oinak emeki gora eta behera jarraitu zuen; ahotik lerre pixka bat zerion. «Egon geldi!» esan nion sutan. Hori

esan edo zuhaitz bati haizearekin ez kulunkatze-ko esan berdin-berdin. Arrapataka kanporatu nintzen. Nire azpian oinen zirrin-zarran handia zebilen burdinazko zoruaren gainean; deiadar nahasiak, ahots batek oihuztatu zuen: «Ezin duzu buelta eman?» V formako uhin bat begi eman nuen aurrealdean ur gainean. Zer? Beste oztopo bat! Tiroketa bat lehertu zen nire oinen azpian. Pelegrinek euren Winchesterrak dantzatu zituzten eta sastrakaren barrenera beruna parrastatzen baino ez ziren ari. Ke mando bat sortu zen eta ezarian-ezarian aurrerantz hedatu. Birao bat bota nuen. Orain ezin nuen ikusi ez uhina ez oztopoa ere. Ate ondoan zutik geratu nintzen, aurrea aztertzen, eta geziak samaldaka zetozen. Bazitekeen pozonduak egotea, baina euli bat akabatzeko gauza ere ez zirela ematen zuten. Sastraka uluka hasi zen. Gure egurketa-riek gerra oihu bat jaurti zuten; errifle baten danbatekoak nire atzean bertan gortuta utzi ninduen. Sorbaldaren gainetik azkar begiratu eta lematokia anartean zarataz eta kez betea zegoela ziztu batean erruberari heldu nion. Beltz zoroak dena bertan behera utzi zuen leihatila

zabaltzeko eta Martini-Henry harekin tiratzeko. Irekidura zabalaren aurrean zutik zegoen, hase-
re begiratzuz, eta nik atzera joateko oihukatu
nion, anartean baporearen tupusteko zeihardura
zuzentzen nuela. Buelta emateko lekuri ez
zegoen, hala nahi izan banu ere; oztopoa han
aurrean nonbait zegoen oso gertu ke arraio
haren baitan; ez zegoen galtzeko denborarik,
beraz, lehorrera jiratu nuen, lehorreraino berta-
raino, han ur sakona zegoela banekien eta.

Poliki aurreratu ginen zintzilikaturiko landare-
tzan barrena, abar hautsien eta hosto hegaldar-
ien zurrunbilo batean. Beheko tiroketa berehala
gelditu zen, nik aurreikusia nuen bezalaxe xixtak
hustuko zirenean. Burua atzera bota nuen firrin-
da distiratsu baten aurrean, lematokia zeharka-
tu zuelarik leihatila zulo batetik sartuz eta beste-
tik irtenez. Errifle hustua inarosten eta lehorre-
ra oihukatzen ari zen lemazain txoro haren gai-
netik begiratu nuenean giza irudi lausoak ikusi
nituen korrika gerritik makurtuta, jauzika, ezku-
tuka, bereizezinak, osatugabeak, aienakorrak.
Zerbait handia azaldu zen airean leihatilaren
aurretik, erriflea kareletik erori eta gizonak atze-

ra pauso bizkor bat eman zuen, sorbaldaren gaineretik azkar begiratu zidan modu harrigarri, sakon, ezagun batez eta nire oinetara ziplo erori zen. Bere buruaren albo batek errubera bi aldiz jo zuen, eta kanabera luze bat zirudien gauza haren muturrak inguruan tarrapataka eta kanpainako aulki txiki bat lurretik irauli zuen. Bazirudien gauza hura lehorreko norbaiti indarrez erauzitakoan oreka galdu balu bezala. Ke arina aienatua zen, oztopoa saihestua genuen eta aurrera begiratzuz ikusi nuen handik ehun iardartara edo hegitik desbideratzeko modua izan nezakeela; baina oinak hain epel eta hezeak nabaritzen nituen, non behera begiratu beharra izan nuen. Gizona bizkarraren gaineretik itzulikatu eta finko begiratzen zidan; bi eskuek tinko helitzen zioten kanaberari. Lantza baten kirtena zen, irekiduran barrena jaurtikia edo bultzatua albo batean harrapatu zuena, saihets hezurren azpian, hain justu ere; eztena bistatik desagertzera barrendu zitzaion, ebaki izugarri bat eragin ondoren; zapatak blai neuzkan; odol putzu bat zegoen geldi-geldi, gorri ilunez diz-diz erruberaren azpian; begiek brilu harrigarri batez

distiratzen zuten. Tiroketa atzera lehertu zen. Arranguraz so egiten zidan, lantzari oratuta zerbait preziatua bailitzan, hura harrapatzen saiatuko nintzen beldurrez bezala. Ahaleginak egin behar izan nituen neure begiak bere behakotik apartatzeko eta lemazaintzaz arduratzeko. Esku batekin buruaren gainetik lurrun txilibituaren soka haztatu eta tira egin nion itsumustuan txistu eta txistu eraginez. Oihu haserre eta gerrarien zalaparta deblauki isildu zen eta gero oihanaren sakonetik halako auhen dardarati eta luze bat sortu zen, beldur beltzekoa eta etsipen soberazkoa, lurreko azken esperantzaren ihesari ustez jarraituko liokeena bezalakoa. Aztoramen handia izan zen sastrakan; gezi jasa atertu zuen; tiro xirripa bakan batzuek zorrozki hots egin zuten; gero isiltasuna eta bere baitan txopako errota-
ren palastatze geldoa argiro belarriratu zitzaidan. Erruberari dena istriborrera eragin eta orduantxe pijama arrosadun gizona ate ondoan agertu zen, arrunt berotua eta asaldua. «Zuzendariak bidaltzen nau... —doinu ofizial batez hasi zen eta kolpetik isildu—. Jaungoikoa!» esan zuen, zauritutako gizonari begi emanez.

Bi gizon zuriok zutik geunden bere aurrean eta bere begirada distiratsu eta galdetzaileak biok bildu gintuen. Egiatan, begiratzen zigun une batetik bestera galdera bat hizkuntza ulertezin batean egingo baligu bezala; oster, hil zen soinurik motelena jaulkitzeke, gorputz adarrik mugitzeke, giharrik uzkuratzeke. Azken unean bakarrik, guk ikusi ezinezko seinaleren bati, guk aditu ezinezko xuxurlaren bati erantzunez bezala, bekainak astunki zimurtu zituen eta zimurdu-ra horrek bere heriozko maskara beltzari izugarrizko espresio ilun, gogoetatsu eta mehatxagarria eman zion. Begiraldi galdetzailearen distira beirazko hustasunaren baitan aienatu zen supituki. «Erruberari helduko diozu?» galdegin nion agenteari lehiatsuki. Duda-muda handian zirudien, baina besotik heldu nion eta segituan uler-tu zuen erruberari nahi eta nahi ez heltzeko esan nahi niola. Egia esango badizuet, zapatak eta galtzerdiak aldatzeko irrika bizian nengoen. «Hilda dago,» marmaratu zuen tipoak arras hun- kituta. «Hori seguru —esan nuen zapata lokarriei ero moduan tira eginez—. Hain zuzen, Mr Kurtz ere, honez gero hilda egongo dela uste dut.»

Ordukoz hori zen iritzi nagusia. Gehiegizko etsipen sentrazio bat nuen, guztiz funsgabeko zerbaiten atzetik lehiaz ahalegindu nintzela konaturatu izan banintz bezala. Nahigabe txikiagoa hartuko nukeen bide guzti horretan Mr Kurtzekin hitz egiteko asmo bakarrarekin bidaiatu izan banintz. Mr Kurtzekin hitz egiteko... Zapata bat kareletik bota eta ohartu nintzen horixe zela desiratzen egon nintzena: Mr Kurtzekin hizketan aritzea. Harrigarriro deskubritu nuen Kurtz ez nuela inoiz imajinatu ekinean, aizue, solasean baizik. Neure buruari ez nion esaten: «Orain ez dut inoiz ikusiko» edo «Orain ez diot inoiz eskua emango», baizik eta «Orain ez diot inoiz entzungo.» Gizona ahots bat bezala agertzen zen. Ez da ere, noski, ekintza moduren batekin lotzen ez nuenik. Esan ez zidaten egin, bada, bekaizkeria eta miresmen doinu guztietan, berak bakarrik marfil gehiago bildu, trukatu, maulatu edo ebatsi zuela beste agente guztiek batera baino? Hori ez zen gakoa. Gakoa zen, kreatura dohatsua zela, eta bere dohain guztietatik gehien nabarmentzen zena, egiazko agerraldiaren sentrazioa ematen zuena, bere hitz egiteko gaitasuna zela,

bere berbak, mintzamenaren dohaina, liluragarria, argigarria, goragarriena eta arbuigarriena, argi etorri taupakaria, edo barrenezinezko ilunbeen bihotzetiko jario gezurtaria.

Beste zapata deabruzkoa ibai hartaraino hegaldatu zen. Pentsatu nuen, arraioa! Kito. Beranduegi iritsi gara; Kurtz desagertu da, dohaina desagertu da, lantza, gezi edo zarta bat dela medio. Azkenean ez dut tipo horren hizketarik entzungo, eta nire atsekabeak harrigarritzko hunkipena zuen, sastrakako basati haien atsekabe ulukarian antzeman nuenaren antzekoa. Ez nintzateke nolabait honen bakarrik eta nahigabeturik egongo, sinesmen batez gabetu izan banindute edota bizitzako xedean erratu izan banu... Zergatik ari zara intzirika modu izugarri horretan, nornahi zaren hori? Absurdoa? Konforme, absurdoa. Jauna! Edo gizon batek ezin du inoiz...? Ala, tabakoa emadazue...»

Isiltasun beteko geldiene bat izan zen, gero pospolo bat piztu zen eta Marlowen aurpegi argala ageri, ahitua, hondoratua, zimurdurez arraildua eta betazalak erorita, gogoeta sakoneko itxura zuela; eta bere pipari ahokada sendoak

eman ahala bazirudien gauean atzera-aurrera ari zela sugar ttipiaren ikara erregularraren argipean. Pospoloa itzali zen.

«Absurdoa! —oihu egin zuen—. Hauxe du okerrena kontatzen saiatzeak... Zuek denok hemen zaudete, bakoitza bina amarrarekin ondo lotuta, itsasontzi bat bi aingurarekin bezala, etxe kantoi batean harakina, polizia bestean, apetitu bikaina eta temperatura normala, aditu?, normala urte osoan zehar. Eta esaten duzue: absurdoa! Pikutara doala zuen absurdoa! Absurdoa! Ene lagunok, zer espero dezakezue urduriaren urduriz zapata pare berri bat kareletik bota berri duen gizon batengandik? Orain pentsatzen dudala, harritzen zait negarrik ez egina. Oro har, neure osotasunaz harro nago. Eztenkada bizia ematen zidan Kurtz dohatsuari entzuteko pribilegio neurrigabea galdu nuela pentsatzeak. Jakina, oker nengoen. Pribilegioa zain neukan. Bada, bai, aski eta sobera entzun nuen. Eta zuzen nengoen baita. Ahots bat. Apenas zen ahots bat baino gehiago. Eta berari entzun nion, bere ahotsa, beste ahots batzuk, horiek denak apenas ziren ahotsak baino gehiago, eta aldi hartako

oroipenak nire inguruan darrai, ukiezin, berri-
ta atergabe, txoro, anker, gordin, basati edo sin-
pleki zikoitz, inolako zentzurik ez zuen hilzoriko
dardara bat bezala. Ahotsak, ahotsak, baita
neska bera ere... orain...»

Puska batean isilik egon zen.

«Azkenean gezur batekin uxatu nuen bere
dohainen mamua —ekin zion bat-batean—.
Neska! Zer? Neska bat aipatu dut? Beno, neska
aparte dago, guztiz. Horiek —emakumeak, ale-
gia— aparte daude, aparte egon behar zuten.
Euren mundu eder horretan gera daitezen lagun-
du behar diegu, baldinba gurea okerragotuko ez
zaigun. Bai, neskak aparte egon behar zuen. Mr
Kurtzen gorpu desehortziari entzun behar zenio-
ten esanez: «Nire maitea.» Orduan berehala
ulertuko zenuten nola neska guztiz aparte zego-
ela. Eta Mr Kurtzen kopetezur gorena! Ileak
batzuetan hazten jarraitzen omen du, hau...
espezimen hau, izugarri burusoila zen. Oihanak
eskua burutik pasatu zion eta, begira, bola bat
bezalakoa zen, marfilezko bola bat; laztandu
zuen eta, horra hor, gizona ihartu egin zen; oiha-
nak bereganatu egin zuen, maitatu, besarkatu,

bere zainetan sartu, mamia xurgatu, eta bere arima berearekin bat egin, deabrukerien hastapenezko zeremonia sinestezinen bitartez. Kurtz bere mainatua zen eta bere maite kuttuna. Marfila? Hala izango zen. Mordoka, pilaka. Buztinezko estalpe zaharra gainezka zegoen. Pentsa liteke letagin bakar bat ere ez zela geldituko ez lur gainean ez azpian herrialde osoan. «Fosila gehienbat,» erdeinuz azpimarratua zuen zuzendariak. Ni baino fosilagoa ez zen; baina beraiek fosila deitzen diote lurpean dagoenean. Agidanez, beltz horiek lurperatu egiten dituzte batzuetan; baina bistan da sorta hau ezin izan zutela Mr Kurtz dohatsua bere patutik salbatzeko bezain sakon lurperatu. Baporea marfilez bete eta mordo bat ontzi gainean pilatu behar izan genuen. Hartara berak ikusten ahal zuen eta ikusi ahal bitartean gozatu, zeren fabore honen hobespenak azkeneraino lagundu baitzuen. Entzun behar zenioten esaten: «Nire marfila.» Bai, bai, nik entzun nion: «Nire maitea, nire marfila, nire estazioa, nire ibaia, nire...» dena zen bere. Arnasa geldiarazten zidan oihanari barre zantzoez lehertzen entzuteko zain, izar finkoak

euren tokietan dardarazteraino. Dena zen bere, baina hori huskeria bat zen. Kontua zen jakitea bera zerena zen, ilunbetako zenbat boterek eskatzen zuten beretzat. Gogoeta hori zen gorputza dardarizoan jartzen zizuna. Ezina zen — eta norberarentzat ere ez zen ona— imajinatzen saiatzea. Berak goi jarki bat hartu zuen lurraldeko deabruen artean, literalki esan nahi dut. Zuek ezin duzue ulertu. Nola ulertuko zuek, oinpean zoladura sendoa duzuenok, auzokide maitagarriez inguratuta zaudetenok zuen atseginerako edo zuen gainera erortzeko, harakinaren eta poliziaren artean poliki zabilzatenok, eskandaluaren eta urkabearen eta eroetxeen izu laborri sailduaren menpe? Nola imajinatuko duzue lehen aldietako zein eskualde zehatzetara eram dezaketen gizon bat bere hanka libreek bakardadearen eraginez —bakardade osoa, poliziarik gabe— isiltasunaren eraginez —isiltasun osoa, non auzokide maitagarri baten ahots kontseilaria iritzi publikoaz xuxurlaka entzuterik ez dagoen? Gauza txiki horiek markatzen dute alde handia. Horiek desagertu direnean zeure jatorrizko indarraz baliatu beharra daukazu, zeure

leialtasunerako gaitasunaz. Jakina, okerbidetik joateko bezain ergela izan zaitezke, baita ilunbetako botereek erasotzen zaituztela ez jakiteko bezain motza ere. Seguru nago ez dagoela erge-lik bere arima deabruari inoiz saldu dionik: edo ergela ergelegia da, edo deabruegia deabrua, ez dakit zein. Edota ikuskari eta soinu zerutarra ez den ororen aurrean guztiz gor eta itsu izateko bezain kreatura burubero izan zaitezke. Lurra orduan egoteko toki bat baino ez da zuretzat eta hala izatea zure kalterako edo zure mesederako den ez naiz esatera ausartzen. Baina gutako gehienok ez gara ez bata ez bestea. Guretzat lurra bizitzeko toki bat da eta bertan ikuskariak eta soinuak jasan behar ditugu, eta usainak ere bai, alajaina! hipopotamo hila usnatu, esaterako, eta kutsatua izan gabe. Eta hortxe sartzen da zure indarra, ikusten? zure gaitasunerako fedea ezkutuko zuloak egiteko barruan gaia lurperatze-ko, zure deboziorako ahalmena, ez zurekiko, baizik eta enpresa ilun eta nekoso batekiko. Eta hori nahiko zaila da. Egiatan, ez naiz ari neure burua desenkusatu edo azaldu nahian, nire buruari Mr Kurtz, Mr Kurtzen itzala zuritu nahian

ari naiz. Ezerezaren baitatik sortutako anima erratu ikasi honek erabat desagertu aurretik harrigarriko bere konfiantzarekin ohoratu ninduen. Hori izan zen nirekin ingelesez hitz egin zezakeelako. Jatorrizko Kurtz erdizka Ingalaterran hezitakoa zen eta —bera aitortzeko gauza zenez— bere sinpatiak behar zuten tokian zuden. Ama erdi ingelesa zuen; aita, berriz, erdi frantsesa. Europa osoak lagundu zuen Kurtz egiten eta geroxeago jakin nuenez, Ohitura Basatien Ezabaketarako Nazioarteko Elkarteak, oso egokiro, txosten bat idazteko eginkizuna utzi omen zuen bere gain, etorkizunean gidaritzat balio ziezaion. Eta idatzi ere idatzi zuen. Ikusita daukat nik. Irakurrita daukat. Elokuentea zen, elokuentziaz zirraragarria; sutsuegia, ordea, nire ustez. Hamazazpi orrialde trinko idazteko beta ere izan zuen! Baina hori zera gertatu baino lehen izan behar zuen, bere nerbioek —nolabait esateko— hutsegin eta gauerdiko dantza batzuetan buru izatera bultzarazi aurretik, ezin adierazizko erritoekin amaitzen zirenak eta —behin baino gehiagotan entzundakotik desgogara atera nuen konklusioaren arabera— berari

eskainiak zirenak —ulertzen?— Mr Kurtz berberari. Guztiarekin ere, idazki ederra zen. Hasierako pasarteak, ostera, geroagoko informazioaren argitan, parte txarreko zirrara eragiten dit orain. Abiapuntuko argudioan zioenez guk zuriok, lortu dugun garapen mailagatik, «naturaz gaindiko gizakien antza izan behar dugu beraientzat (basatientzat); jainkoen adinako ahalmenarekin hurreratzen gatzaizkie» eta abar, eta abar. «Gure borondatea erabiltze hutsarekin, botere ongile ia mugagabea izan dezakegu» eta abar, eta abar. Hortik aurrera gora egiten zuen eta ni berarekin eramán ninduen. Amaiera bikaina zuen, nahiz gogoratzen zaila, badakizue. Onginahi txit agurgarri baten agindupeko Baztergabetasun exotiko baten irudipena ematen zidan. Gogo beroz dardarazi ninduen. Hauxe zen elokuentziaren —hitzen— hitz suhar prestuen botere mugagabea. Esaldien jario magikoa etengo zuen aipu praktikorik ez zegoen, non eta ohar antzeko gauza bat azken orrialdearen oinean, bistan zenez askoz beranduago esku ikarati batez zirriborratua, metodo baten azalpenez ikusten ez den. Oso sinplea zen, eta sentimendu

altruista orotarako aldarrikapen erdiragarri horren amaieran itsutu egiten zintuen, argitsu eta lazgarri, oinaztargiak zero oskarbian bezala: «Basatar guztiak akabatu!» Kuriosoena zen nola posdata baliotsu hura ahaztu bide zuen, zeren eta, beranduago, bere senera etortzean edo, arren eta arren eskatu baitzidan «nire panfletoa» (hala deitu zion) ondo zaintzeko, ziur baitzegoen etorkizunean eragin onuragarria izango zuela bere lanbidean. Ni informazioz beteta nengoen gauza horiei buruz, eta gainera neroni gertatu zitzaidan bere txostena zaindu beharra. Nahikoa egin dut horren alde eta, beraz, eskubide ukaezina daukat, hala aukeratzen badut, hura betiera guztirako progresoaren zakarrontzira, zibilizazioaren simaur artera, eta irudizko zentzuan, zibilizazioaren katu hil guztien artera botatzeko. Baina, ikusten duzueenez, ezin dut aukeratu. Bera ez da ahaztua izango. Zernahi zela ere, ez zen arrunta. Bere ohoretan azti dantza sumingarri bat egin zezaten landugabeko arimak soreztatu edo ikaratzeko ahalmena zuen; aldi berean, pelegrienen arima kaxkarrak gogan behar garratzez bete zitzakeen: lagun leial bat

zeukan gutxienez eta munduan ez landugabea ez berekoikeriaz usteldua ez zen arima bat konkistatu zuen. Ez; bera ezin dut ahaztu, nahiz eta ez nagoen prest esateko beraganaino heltzen galdu genuen bizitzaren duin zenik ere. Nire lemazain zenaren hutsune ikaragarria nabaritzen nuen, bere hutsunea lematokiaren barruan gorpu zetzanean ere nabaritzen nuen. Harrigarri samarra irudituko zaizue beharbada basati batenganako dolumin hau, Sahara beltz batean hondar ale bat baino gehiago ez zenarenganako. Bada, begira, berak zerbait egin zuen, lemazaintzan aritu zen, hilabetetan neure atzean eduki nuen: laguntza bat, tresna bat. Lankidetzan mota bat zen. Berak niretzat lematzen zuen, nik bera zaindu behar nuen, bere hutsez arduratzen nintzen eta horrela lotura mehe bat sortu zen, supituki etena izan zenean bakarrik erreparatu nuena. Eta zauria hartu zuenean zuzendu zidan begirada haren sakontasun lagunkoiak gaurdaino iraun du nire oroimenean, une goren batean egiaztaturiko ahaidetasun urruneko baieztapen bat bezala.

Ai txoro koitadua! Leihatila hura bakean utzi izan balu... Bere buruari eusten jakin ez, ordea, —Kurtzek bezalaxe—, haizeak kulunkaturiko zuhaitz bat. Zapatila lehorrak jantzi bezain laster, arrastaka atera nuen kanpora, lantza saihestetik brastakoan erauzi eta gero, eta aitortzen dut operazio hori begi itsuka burutu nuela. Orpoken biak batera bote txiki bat eman zuten ate ondoko koskaren gainean; bere sorbaldak bulartea estutzen zidan; etsi-etsian besarkatu nuen atzetik. Ai! Pisua zen, oso pisua, lurreko edozein gizon baino pisuagoa, nire irudiko. Ondoren, beste zalapartarik gabe kareletik irauli nuen. Korronteak atzeman zuen belar izpi bat bailitzan, eta ikusi nuen nola gorpuak bi jira eman zituen bistatik betirako galdu aurretik. Pelegrin guztiak eta zuzendaria orduan sabaiaren gainean batzartuak zeuden lematokiaren ondoan, elkarrekin marra-marra, aztoratutako erroi saldo bat bezala, eta eskandaluzko zurrumurru bat egon zen nire arinkeria bihozgabeagatik. Gorpua hortik zehar bueltaka ibiltzea zertarako nahi zuten ez dakit. Baltsamatzeko, agian. Baina beste zurrumurru bat ere entzun nuen, eta oso parte

txarrekoa, behealdean. Nire lagun egurketariak halaber eskandalizatuta zeuden eta itxurazko arrazoi hobea zutela, nahiz eta onartzen dudan arrazoia izatez nahiko onartezina zela. Izugarria! Zinez erabakita neukan nire lemazain zena inorkan behar bazuen, arrainek ez bestek jango zutela. Segundako lemazaina izan zen bizi artean, baina orain hilik zegoela primerako tentazio bihur zitekeen, eta seguru aski arazo larriren bat sortu. Gainera, erruberari heltzeko irrikitan nengoen, ze pijama arrosadun gizonak esperantzarik gabeko ezdeustasuna agertu baitzuen zeregin horretan.

Horixe egin nuen hileta xumea amaitzeaz bat. Abiadura erdian gindoazen, ibai erditik zuzen jarraituz eta nik inguruko hizketaldia entzuten nuen. Galdutzat ematen zuten Kurtz, galdutzat ematen zuten estazioa; Kurtz hilda zegoen eta estazioa su emanda, eta abar, eta abar. Pelegrin ilegorria bere onetik irtenda zegoen Kurtz dohakabea gutxienez behar bezala mendekatua izan zelakoan. «Aizue! Sekulako txikizioa egingo genuen sastrakan, ezta? Zer uste duzue? Bai, ezta?» Dantza eta guzti egiten zuen

ile gorriko arlote txiki odolzaleak. Eta ia alditxarra ematen dio gizon zauritua ikusi zuenean! Ezin eutsi nion gogoari hau esateko: «Sekulako ke piloa egin duzue, egitez gero.» Nik ikusi nuen, sastraka gaina parrastatu eta inarrosteko moduagatik, tiro gehienak oso goitik joanak zirela. Ezin duzu ezer jo ez baduzu sorbaldatik apuntatzen eta disparatzen; tipo hauek, ordea, gerrialdetik eta begiak itxita disparatzen zuten. Erretirada, nire iritziz, —eta zuzen nengoen— txilibituaren txistukadak eragina zen. Hori zela eta, Kurtz ahaztu eta oihuka hasi zitzaizkidan erresuminez kexuka.

Zuzendaria erruberaren ondoan zegoen isilka marmaratuz ibaian behera albait gehiena urrundu behar genuela, ilundu aurretik nolana ere, eta orduantxe urrutira soilgune bat ikusi nuen ibai ertzean eta eraikuntza motaren baten silueta. «Zer da hori?» galdegin nuen. Eskuekin txalo egin zuen harriduraz. «Estazioa!» oihukatu zuen. Berehalakoan bazterrera jo nuen, abiadura erdian joanez artean ere.

Neure katalejuen bidez muino baten malda ikusi nuen, zuhaitz arraroez zipriztindua eta sas-

trakaz erabat soildua. Gailurrean eraikuntza luze lardaskatu bat zegoen erdi lurperatua belar luzearen barruan; teilatu zorrotzaren zulo handiak aho zabalka urrunetik; oihanak eta basoek osatzen zuten hondoa. Ez zegoen inolako itxitura edo hesi motarik, baina zirudienegon zen bat, zeren etxetik gertuan dozena erdi bat zutoin mehe gelditzen baitziren ilaran, zakarki landuak eta puritan zizeldutako bola borobilak zituztela apaingarri. Langak, edo haien tarteetan egongo zirenak, desagertuak ziren. Jakina, hori dena oihanak inguratua. Ibai bazterra garbi zegoen eta ur ertzean gizon zuri bat ikusi nuen orga gurpilaren antzeko sonbreiru baten pean besagainka imintzioak eginez etengabe. Basoaren ertza goitik behera aztertutik nahiko ziur nengoen higidura batzuk ikusi nituela, giza errainuak hantzen lerratuz. Baporea gizonaz harantzago zuhurki eramane, makinak gelditu eta urak behe-
ra bultzatzen utzi nuen. Hegiko gizona deia-
darka hasi zen, lehorrera egiteko premia-
tuz. «Eraso egin gaituzte!» garrasi egin zuen zuzen-
dariak. «Badakit. Badakit. Dena ondo dago —
ihardetsi zion besteak oihuka, zuek gogo duzuen

bezain alaiki—. Etorri. Dena ondo dago. Asko pozten naiz.»

Bere itxurak lehendik ikusitako zerbait gogorarazi zidan, nonbait ikusitako zerbait xelebrea. Saiheska lehorreratzeko maniobratan ari nintze-la neure artean galdetzen nuen: «Zeren antza du tipo honek?» Supituki jakin nuen. Arlekin bat ematen zuen. Bere jantziak seguru aski holanda marroia izandako oihal batez eginak ziren, baina nonahi adabakiz estalita zeuden, adabaki distiratsuak, urdinak, gorriak eta horiak: adabakiak atzean, adabakiak aurrean, adabakiak ukalondotan, belaunetan; koloretako zerrenda bat jakaren inguruan, gorri biziko azpildurak galtza barrenetan, eta eguzkiaren argiak itxura txit alaitsua ematen zion eta arras txukuna bestalde, ikus baitzitekeen zeinen ederki adabatua zegoen hura guztia. Haur aurpegi bizargabea, oso atsegina, aipatzeko moduko ezaugarririk ez, sudur larrutua, begi urdin ttikiak, barre-iduriak eta kopetilunak elkarri segika musu zabal hartatik, hala nola eguzkia eta itzala haizeak astinduriko lautada batean. «Kontuz, kapitaina! —garrasi egin zuen—. Oztopo bat dago hortxe bardanik

trabatua.» Zer! Beste oztopo bat? Aitortzen dut lotsagabeki biraoka hasi nintzela. Neure ontzi elbarria arrakalatzeko zorian egon nintzen, txango zoragarri haren amaiera gisa. Hegiko arlekinak bere sudur zapala goratu zuen niregana. «Ingelesa?» galdetu zidan irribarretsu. «Eta zu?» garrasi egin nion erruberatik. Barre-iduria ezkutatatu eta burua astindu zuen nire mukerragatik penatuta bezala. Gero aurpegia alaitu zitzaion. «Ez dio inporta!» oihu egin zuen adoretzu. «Garaiz iritsi gara?» galdegin nion. «Hor goian dago bera» erantzun zuen buruarekin muinoaren gaina seinalatuz eta derrepentean beltzuri jarritz. Bere begitartea udazkeneko zerua bezalako zen, orain eguzki orain laino.

Zuzendaria, pelegrinek eskoltatua, hauek denak leporaino armatuta, etxe aldera irten zenean, mutil hori ontzira igo zen. «Aizu, hau ez zait gustatzen. Indio horiek sastrakan daude.» esan nion. Zinez segurtatu zidan dena ondo zegoela. «Jende sinplea da —gaineratu zuen—; zera, pozten naiz zuek etortzeaz. Neure denbora guztia erabili dut urrun egon daitezene.» «Ez al duzu esan, ba, dena ondo zegoela?» garrasi egin

nuen. «Zera, ez zuten minik eman nahi.» esan zuen; eta txundituta begiratu nionez zuzendu egin zuen. «Ez justu.» Ondoren, bizitasunez: «Alafede! Zure lematokia garbitu eder bat behar du!» Arnasa hartu gabe esan zidan galdaran badaezpada lurrun nahikoa eduki nezan txilibitua jo ahal izateko, arazorik sortzen bazen. «Hobe duzu txistukada on bat, zure errifle guztiak baino. Jende sinplea da.» errepikatu zuen. Hain barra-barra hitz egiten baitzuen nahastatu ere egiten ninduen. Bazirudien isilaldi luzeak kitatu nahian ari zela eta barrez adierazi zidan, izan ere, halaxe zela. «Ez al duzu hitz egiten Mr Kurtzekin?» esan nion. «Gizon horrekin ez da hitz egiten, entzun egiten zaio.» ihardetsi zuen serio eta sutsu. «Orain, orde...» beso bat astindu zuen eta begien itxi-ireki bat orduko tristurarik beltzenean murgilduta zegoen. Istantera suspertu zen berriro salto batez, bi eskuak bereganatu zizkidan eta gelditu gabe inarrosten zituen, honela murduskatuz: «Marinel anaia... ohorez... adeitasunez... atsegin handiz... hona hemen... errusiarra... artzipreste baten semea... Tamboveko Gobernua... Zer? Tabakoa! Tabako ingele-

sa! Tabako ingeles paregabea! Aizu, hau bai anaitasuna. Nik erre? Ez da marinelik erretzen ez duenik.»

Pipak sosegatu zuen eta pixkana-pixkana jakin nuen eskolatik ihes egin zela, itsasontzi errusiar batean itsasoratua zela; beste behin ihes egin zuela; bolada batean itsasontzi ingelesetan lan egin zela, orain artziprestearekin baketua zegoela. Behin eta berriz aipatu zuen hori. «Baina bat gaztea denean gauza horiek ikusi behar ditu, esperientzia bildu, ideiak; gogoia hedatu.» «Hemen!» moztu nion. «Zeinek daki! Hemen Mr Kurtz aurkitu nuen,» esan zuen gaztetasunaren solemnitaterik eta akarrez. Horren aurrean ez nuen tutik esan. Agidanez kostaldeko merkatal etxe holandar bat limurtu zuen bideko- ez eta merkantziez horni zezan eta barrualderako bideari lotu zitzaion bihotza pil-pil eta zer gerta lekioken umegorri batek baino gutxiago zekiela. Bi urtez edo ibilia zen ibai haren ingurumarietan alderrai bera bakarrik, nornahi eta zernahitik bakartua. «Ez naiz ematen dudan bezain gaztea. Hogeita bost urte ditut —esan zuen—. Hasieran Van Shuyten zaharrak pikutara joateko

esaten zidan —atsegin gozoz kontatu zuen—; baina aspergarri jarri nintzaion, hitz eta pitz, eta azkenean sekulam sekulorum hitz egingo ote nuen beldurrez, zirtzileria eta zizpa bakan batzuk emanda esan zidan nire aurpegia sekula berriro ez ikustea espero zuela. Holandar jatorra, Van Shuyton zaharra. Orain dela urtebete marfil sorta txiki bat bidali nion, hortaz, ezin dit litxarrerero deitu itzultzen naizenean. Espero dut jasoko zuela. Eta gainontzean ez naiz kezkatzen. Egur pixka bat neukan zuretzat pilatuta. Hori nire etxe zaharra zen. Ikusi duzu?»

Towsonen liburua eman nion. Musu ematekoa egin zidan baina gogoari eutsi zion. «Gelditzen zitzaidan liburu bakarra, eta galdu nuelakotan nengoen —esan zuen, sor eta lor begiratur—. Aizu, hainbeste ez behar gertatzen zaio hortik zehar bakarrik dabilen gizon bati. Batzuetan kanoak iraultzen dira, bestetan lehenbailehen hanka egin behar izaten duzu jendea haserre jartzenean.» Liburua orrikatu zuen. «Zuk egin dituzu oharrak errusieraz?» galdetu nion. Buruarekin baietz esan zuen. «Uste nuen zifratuan idatzita zeudela,» esan nion. Barre egin zuen, gero

kopetilun jarri zen. «Arazo asko izan ditut jende hori uxatzen,» esan zuen. «Zu hiltzeko ahalegi-
nik egin zuten?» galdetu nion. «Ez, ez!» oihuka-
tu eta mutu gelditu zen. «Zergatik eraso zigut-
ten?» berriz ekin nion. Pixka bat dudatu eta gero
lotsaturik esan zuen: «Ez dute nahi bera joan
dadin.» «Ez dute nahi?» esan nuen jakin-minez.
Buruarekin baiezeko keinu bat egin zuen miste-
rioz eta jakituriaz betea. «Benetan esaten dizut
—oihukatu zuen—, gizon horrek gogoia hedatu
dit.» Besoak zabaldu zituen, niri finko begira,
borobil-borobilak ziren bere begi ttiki urdinekin.

III

Zur eta lur begiratu nion. Han zegoen bera nire aurrean, koloretsu, bufoi talde batetik ihes egin balu bezala, gogotsu, zoragarri. Existitzea bera ere gertaezina zen, adierazezina eta guztiz ulergaitza. Problema konponezin bat zen gizon hura. Pentsaezina zen nola existitu zuen, nola erdietsi zuen hain urrun iristea, nola moldatu zen irauteko, zergatik ez zen istantean desagertu. «Pixka bat urrunago joan nintzen —esan zuen—, gero pixka bat urrunago oraindik, eta azkenean hain urrun joan naiz, ez baitakit inoiz itzuliko naizen ere. Ez dio inporta. Denbora sobera daukat. Moldatuko naiz. Lehenbailehen eraman ezazue Kurtz, aizue, lehenbailehen.» Gaztetasunaren xarmak bere zarpail koloretsuak, bere arlotezeria, bere bakardadea, bere ibilera hutsalen funtsezko lazeria inguratzen zituen. Hilabeteak, urteak joan ahala bere bizitzak ez zuen balio lau zorri; eta bera han zegoen ausarki eta axolagabeki bizirik, suntsiezin, itxura guztien arabera, bere gaztetasunaren eta bere burugabeko azar-

tasunaren dohain hutsengatik. Liluratu ninduen miresmen antzeko zer bait, inbidia sentitzeraino. Xarmak bultzatzen zuen, xarmak gordetzen zuen onik. Seguru aski ez zion oihanari ezer eskatzen, arnasa hartzeko eta aurrera egiteko lekua baizik. Bere beharrezana existitzea zen eta aurrera jarraitzea ahalik eta arriskurik gehienekin eta gabetasunik handienarekin. Inoiz erabateko menturazaletasun hutsak, kalkulatu gabeak, ameslariak, gizonik menderatu badu, gazte adabatu hau menderatu du. Iaugar apa eta argi honen jabetza inbidiatzen nion. Bazirudien berari buruzko pentsamenduak hainbeste-raino agortu zituela, non zuri hitz egiten ari zitzaitzun bitartean ere, ahazten baitzenuen bera zela —zure begien aurreko gizona— gauza hauek bizi izan zituena. Aitzitik, ez nion inbidiatzen Kurtzenganako debozioa. Ez zuen horri buruzko gogoetarik egin. Etorri egin zitzaion eta berak halako fatalitate sutsu batez onartu zuen. Esan behar dut nire irudiko egundaino suertatu zitzaion gauzarik arriskugarriena zela, inondik ere.

Halabeharrez ziren elkartuak, hala nola bi itsasontzi, bata bestearen ondoan baretu eta besoz beso ukituka dautzanak. Suposatzen dut Kurtzek entzulegoa behar zuela, zeren eta behin batean, oihanean kanpaturik zeudenean, gau osoan hitz egin omen zuten edo seguru asko Kurtzek hitz egin zuen. «Denaz hitz egin genuen —esan zuen, gomutak nahiko eramanda—. Logura deitzen zaion gauza bat zegoenik ere ahaztuta nengoen. Gauak ordubete bakarrik iraun zuela iruditu zitzaidan. Denaz! Denaz!... Maitasunaz ere bai.» «Kontxo, maitasunaz hitz egin zizun!» esan nion nik txantxetan. «Ez da zuk uste duzuna —oihu egin zuen aski grinaturik—. Orokorki izan zen. Agerian jarri zidan zenbait gauza... zenbait gauza.»

Besoak goratu zituen. Une horretan ontzi gainean geunden, eta nire egurketarien buruzagiak, inguruan ibilian zebilena, bere so astun eta distiratsua egotzi zion. Inguruari begiratu nion, eta ez dakit zergatik, baina zinez diotsuet, egundaino ez zitzaizkidan iruditu lurraldea, ibaia, oihana, zeru irazekiaren sabai goiena bera ere, hain etsigarri eta hain ilunbetsu, hain barrenezin giza

gogoarentzat, hain errukigabe giza ahuldadearentzat. «Eta harrez gero, berarekin egon zara noski,» esan nion nik.

Alderantziz. Badirudi beraien arteko adiskidetasuna sarritan hautsi zela, arrazoi desberdinegatik. Moldatu omen zen, harro jakinarazi zidanez, Kurtz bi gaixoalditan zaintzen (hori aipatzen zuen egintza arriskutsu bat bailitzan), baina eskuarki Kurtz bakarrik ibiltzen omen zen, urruti, oihanaren barrenean. «Asko eta askotan, estazio honetara etorri eta egunetan itxaron behar izaten nion bera azaldu aurretik —esan zidan—. Ai, pena merezi zuen itxarotea! Batzuetan.» «Zertan aritzen zen? Esploratzen ala?» galdegin nion. «Bai, ba; jakina;» Herrixka pilo bat deskubritu omen zuen, aintzira bat ere bai —ez zekien zehazki zein norabidetan; arriskutsua omen zen galdera gehiegi egitea—; baina bere espedizioek normalean marfila zuten xedetzat. «Baina sasoi hartan ez zuen merkantziarik tratuan aritzeko,» arrapostu nion. «Kartutxo mordo bat gelditzen da oraindik,» erantzun zuen niri begiratu gabe. «Garbi hitz eginda, herrialde osoa xahutu zuen,» esan nion nik. Baietz egin zuen. «Bera bakarrik

ez, noski!» Zerbait murmuratu zuen aintzira horren inguruko herrixkei buruz. «Kurtzek bere atzetik jarraiarazi zion tribuari, ezta?» iradoki nion. Pixka bat urduritu zen. «Adoratu egiten zuten,» esan zidan. Hitz horiek hain doinu harri-garria zuten, non begirada aztertzaile bat zuzendu bainion. Bitxia zen Kurtzetaz hitz egiten zue-nean irrika eta ezaxolazko nahasketa ikustea. Gizon hark bizitza betetzen zion, pentsamenduak okupatzen, emozioak kontrolatzen. «Zer esperoko duzu? —lehertu zen—; trumoi eta tximistekin etorri zitzaien, badakizu, eta haiek ez zuten inoiz antzekorik ikusi, eta ikaragarritzkoa zen. Bera izugarria izan zitekeen. Ezin duzu Kurtz edozein gizon bezala epaitu. Ez, ez, ez! Begira, —ideia bat emateko—, ez zait inporta zuri esatea, behin batean niri ere disparatu nahi izan zidan, baina nik ez dut epaitzen.» «Zuri disparatu! —garrasi egin nuen—. Zergatik, baina?» «Zera, nik banuen marfil pixka bat, nire etxetik gertu dagoen herrixkako buruzagiak emana. Ehi-zan ibiltzen nintzen, ba, beraiantzat. Bada, berak hura nahi zuela eta, ez zuen arrazoirik entzun nahi. Esan zuen disparatu egingo zidala baldin

eta marfila berari eman eta ondoren herrialde-
ospa egiten ez banuen, berak hori egin zezakee-
lako, eta kapritxo hori zuelako, eta munduan
ezertxo ere ez zegoelako gogoak ematen ziona
hiltzea galaraziko zionik. Eta hori, egia zen, gai-
nera. Marfila eman nion. Zer axola niri! Baina ez
nuen ospa egin. Ez, ez. Ezin nuen bera utzi. Kon-
tuz ibili behar izan nuen, jakina, atzera aldi bate-
rako adiskidetu ginen arte. Orduantxe izan zuen
bere bigarren gaixoaldia. Geroago bere irispide-
tik kanpo ibili beharra izan nuen; baina, ez zidan
ardura. Denbora gehiena aintziraren inguruko
herrixka haietan ematen zuen. Ibaira jaisten
zenean batzuetan begikotzat hartzen ninduen;
bestetan, berriz, hobe izaten nuen kontuz ibili.
Gizon horrek gehiegi sufritzen zuen. Hau dena
gorrotatzen zuen eta ezin zuen alde egin edo.
Aukera izan nuenean arren eskatu nion ahalegin
bat egiteko eta alde egiteko garaiz zegoen
artean; neure burua eskaini nion berarekin itzul-
tzeko. Eta berak baietz esan eta gero bertan gel-
ditzen zen; beste marfil bilaketa batera jotzen
zuen; astetarako desagertzen zen; bere buruaz
ahazten zen jende horren artean, bere buruaz

ahaztu, aizu.» «Hara! Erotuta dago,» esan nuen. Erresuminduta protestatu zuen. Mr Kurtz ezin zitekeen erotuta egon. Hitz egiten entzun izan banio, bi egun lehenago bakarrik, ez nintzateke horrelako gauza bat esatera ausartuko. Hizketan ari ginela katalejuak hartu eta lehorrera begiratzten ari nintzen, oihanaren ertza miatzen etxearen albo bakoitzetik eta atzealdetik. Sastraka hartan, hain isil, hain lasai —muinoko etxe porrokatua bezain isil eta lasai— jendea zegoela sumatzeak ondoeza sortzen zidan. Naturaren aurpegian zantzurik ere ez zegoen kontakizun harrigarri honetaz, kontaktzen baino gehiago iradokitzen ari zitzaidana, oihu samingarriez, sorbalda uzkurraldiekin osatuak, esaldi etenez, hasperen sakonekin amaituriko aieruez. Basoak geldi-geldi zeuden, begiratzen zuten maskara batek bezala —astunki, espetxeko ate hertsia bezala— ezkutuko jakituriaren, eramanarrizko aditasunaren eta isiltasun mukerraren jabe izateko aire batekin. Errusiarra azaltzen ari zitzaidan ez oso aspaldi jaitsi zela Kurtz ibaira, berekin batera aintzira horretako tribuaren gizon gerrari guztiak ekarriz. Zenbait hilabetez kanpo-

an egon omen zen —bere buruaren adoragarri, suposatzen dut— eta ustekabean jaitsi omen zen, itxura zenez ibaiaz bestaldean edo ibaian behera sarraldi bat egiteko asmotan. Bistan denez marfil gehiagoren gosea nagusitu egin zitzairen aspirazio —nola esango nuke?— ez hain materialei. Ostera, hagitz gaizkitu omen zen bat-batean. «Aitu nuen ohean ezinduta zegoela, hortaz, gora igo eta neure aukeraz baliatu nintzen —esan zidan errusiarrak—. Ai! Gaizki dago, oso gaizki.» Katalajuak etxe aldera zuzendu nituen. Ez zegoen bizitza arrastorik, baina han zeuden teilatu hondatua, buztinezko horma luzea belarraren gainetik kukulduta, bere leiho moduko hiru zulo karratu txikiekin, hirurak neurri desberdinetakoak: hau guzti hau nire esku-menera erakarria edo. Eta orduan derrepentean mugitu nuen eta desagertutako hesitura hartatik gelditzen ziren zutoinetarik bat nire katalajuen ikuspegira ernatu zen. Gogoratuko duzue nola kontatu dizuedan arreta deitu zidatela distantziara halako apaindura saio batzuek, aski nabarmenak hondamendi itxurako leku hartan. Orain bat-batean hurbilagotik ikusi nituen eta

lehenengo erreakzioa burua atzera botatzea izan zen, kolpe baten aurrean bezala. Gero katalejuekin poliki zutoinez zutoin joan eta nire hutsaz jabetu nintzen. Kirten borobil haiek ez ziren apaingarriak, sinbolikoak baizik; adierazkorrak eta txundigarriak ziren, zirrargarriak eta asaldagarriak, gogoetarentzako bazka, baita putreentzat ere, baten bat zero gainera begira egon balitz; baina nolana ere hagatik gora egiteko bezain langile izango ziren inurrientzat. Erdiragarriagoak izango ziratekeen oraindik zurrakaitzen gaineko buru haiek, baldin aurpegia etxe aldera begira ez balute. Bat bakarra zegoen, lehenbizi hauteman nuena, nire aldera begira. Ez zidan zuek pentsa ahalako zarrastadarik eman. Egin nuen atzera saltoa, izan ere, harridurazko mugimendu bat baino ez zen izan. Bertan zurezko kirten bat ikustea espero nuen, ulertzen? Nahita aurrea ikusi nuenera itzuli nintzen, eta hantxe zegoen, beltz, lehor, abaildua; betazalak bilduta; buru hark lotan zirudien makilaren puntan eta ezpain lehor zartatuek hortzen lerrokada txuri estu bat erakusten zutelarik, irribarrez ere

ari zen, etengabe irribarrez betiereko loaldi hartako amets amaigabe eta barregarriren batekin.

Ez naiz inolako merkatal sekreturik plazartzen ari. Alegia, zuzendariak geroago esan zuen Mr Kurtzen metodoek barrutiari porrot eragin ziotela. Horri buruzko iritzirik ez daukat, baina garbi ulertarazi nahi dizuet ez zuela inolako etekinik ematen buru haiek han egoteak. Zera besterik ez zuten frogatzen, Mr Kurtzek bere hainbat gutizia asetzeko orduan bere buruari eusteko gauza ez zela, zerbaiten eskas zela, bere premia larria zegoenean elokuentzia bikainaren azpian aurkitzerik ez zegoen txikikeriaren bat. Bere eskasia honetaz jabeturik zegoenez ez dakit. Jabetasuna, uste dut, azkenean etorri zitzaion, azken buruan bakarrik. Baina oihanak berehala antzeman zion eta berarengan mendeku ikaragarria hartu zuen alegiazko inbasioagatik. Nik uste bere buruaz ez zekizkien gauzak xuxurlatu zizkiola, bere bakardade handiari aholkua eskatu zion arte pentsatzen ez zituen gauzak, hain zuzen, eta xuxurla biziki liluragarria gertatu zitzaion. Durundi ozena egin zuen bere baitan, funtsean hutsik zegoelako... Katalejuak utzi

nituen eta hitz egin ahal izateko bezain gertu ageri zen burua bazirudien supituki nigandik helduezinezko distantzia batera salto egina zela.

Mr Kurtzen mireslea pixka bat burumakur zegoen. Ahots larri, nahasi batez hasi zitzaidan esaten ez zela ausartu sinbolo horiek edo eraistera. Ez zen indioen beldur; horiek ez zuten zirkinik ere egingo Mr Kurtzek agindua eman artean. Bere aginpidea izugarria zen. Jende horren kanpamenduak hango inguru guztian zeuden eta buruzagiak egunero etortzen ziren Mr Kurtz ikustera. Arrastaka etortzen ziren... «Ez dut ezer jakin nahi Mr Kurtzengana hurreratzeko erabiltzen dituzten zeremoniez,» oihukatu nion. Gauza kuriooa da nola eman zidan sentsazioa, xehetasun haiek jasanezinagoak gertatuko zitzaizkidala Mr Kurtzen leihopeko zutoinen gainean lehorturiko buru haiek baino. Azken finean, hori ikuskari basati bat baino ez zen eta ni, aldiz, bazirudien jauzi batez izugarrikeria finezko lurralde ilun baten barrenera eraman nindutela, non basakeria hutsa, berez, benetako aringarri bat zen, eguzkipean bizitzeko eskubide ukaezina duen zerbait delako. Gazteak harrituta begiratu zidan.

Suposatzen dut ez zitzaiola okurritu Mr Kurtz nire idoloa ez zela. Ahaztuta zegoen nik ez nituela bakarrizketa zoragarri haiek entzun, zertaz? maitasunaz, zuzenbideaz, jokabideaz edo dena dela-koaz. Kontua baldin bada Kurtzen aurrera arrastaka etortzea, orduan bera ere basatietan basatiena bezainbeste arrastatu zen. Egoeraren berri ez nekiela esan zuen: buru horiek erreboltarien buruak ziren. Nire algarak gehitxo asaldatu zuen gizona. Erreboltariak! Zein izango litzateke hurrengo definizioa? Zegoeneko etsaiak, kriminalak, langileak egon ziren eta hauek erreboltariak ziren. Niretzat buru erreboltari haiek ondo menderatuak zeuden euren makiletan. «Ez daki-zu ondo bizimodu honek zer pasada ematen dion Kurtz bezalako gizon bati,» oihukatu zuen Kurtzen azken dizipuluak. «Bai, eta zuri?» esan nion. «Ni! Ni! Ni gizon simple bat naiz. Nik ez dut pentsaera apartekorik. Nik ez dut inorengandik ezer espero. Nola konparatzen nauzu...?» Bere emozioa gehiegizkoa zen hitz egiteko eta bat-batean pot egin zuen. «Nik ez dut ulertzen, —intzirika—. Neure ahalegin guztiak egin ditut bizirik gorde-tzeko eta hori nahikoa da. Guzti honetan ez dut

zerikusirik. Nik ez dut gaitasunik. Hilabetetan ez dugu hemen botika tantarik edo gaixoentzat mokadurik eduki. Lotsagarria da nola abandonatu duten. Hau bezalako gizon bat, pentsaera horrekin. Lotsagarria! Lotsagarria! Nik... nik... hamar gau badira lo egiten ez dudala...»

Bere ahotsa arrastiriko baretasunean galdu zen. Oihanaren itzal luzeak muinotik behera lerratu ziren hizketan ari ginen bitartean, estalpe hondatuaz gaindi joanak ziren, makilen errenkada sinbolikoaz gaindi. Hau dena ilunbetan zegoen; gu, berriz, eguzkiaren argitan geunden artean ere, eta soilgunearen aurreko ibai-tartea erlantz mantso eta itsugarri batez distiratzen zen, goian-behean bihurtune laiotz eta abarotsu bana zeukalarik. Lehorrean arimarik ez. Sastrakan hosto firfirarik ez.

Halako batean etxe ingurutik gizon talde bat agertu zen, lurretik erne balira bezala. Gerrirainoko belarretan barrena herrestatzen ziren, batasun trinkoan, erdian inprobisatutako anda bat zeramatela. Une berean, lurraldearen soiltasunean, oihu zoli bat goratu zen aire geldia urratuz, lurraren bihotzeraino zuzen hegaldaturiko

gezi zorrotz bat bezala; eta aztikeriaz edo, giza-kiak uholdeka, gizaki biluziak, eskuetan lantzak, uztaiak, ezkutuak, begirada ankerrak eta mugimendu basatiak, gaineztatzen ari zen soilgunera oihanaren bekozko ilun eta gogoetatsua. Sastraka inarrosi, belarra une batez kulunkatu eta dena gelditasun erne batean geratu zen.

«Orain, hitz egokia esaten ez badie, gureak egin du,» esan zuen errusiarrak nire aldame-
nean. Anda zekarren gizaldra ere geldirik zen, baporera bidean, harri bihurtuta bezala. Ikusi nuen nola anda gaineko gizona agontzen zen, hezur eta azal, eta beso bat gora, garraiarie-
n sorbalden gainetik. «Espero dezagun maitasunaz orokorki hain ondo hitz egiten duen gizonak oraingoan barkatzeko arrazoi bereziren bat aurkitzea,» esan nuen. Garrazki sumintzen ninduen gure egoeraren arrisku absurdoak, mamu ikaragarri haren eskumendean egotea desohorezko premia bat izan balitz bezala. Ez nuen hotsik aditzen, baina neure katalejuen bidez ikusi nuen beso argala agintzaile luzatzen, behe baraila eragiten, agerkari haren begiak ilunki distiratzten, imintzio irrigarriekin mugitzen zen buru

hezurtsu hartan hondoraturik. Kurtz, Kurtz, horrek motza esan nahi du alemaneraz, ezta? Bada, izena bezain egiazkoa zuen dena bere bizitzan... eta heriotzan. Gutxienez zazpi oin bete luze zirudien. Estalkia erorita zeukan eta gorputza hil-jantzi batetik bezain penagarri eta lazgarri ernetzen zitzaion. Bere saihets kaiola dardara batean antzeman nezakeen, bere besoko hezurak ikaraz. Esan liteke marfil zaharrez landutako herioaren irudi bizidun bat aritu zela eskua mehatxuka astintzen brontze ilun eta distiratsuz eginiko gizalde geldi baten aurrean. Ikusi nuen ahoa zabal-zabal irekitzen: harrigarriko itxura gosetia ematen zion, aire guztia, lur guztia, aurrean zituen gizon guztiak irentsi beharrean bezala. Ahots sakon bat apalki heldu zitzaidan. Garrasika ari zen, nonbait. Tupustean bizkarrere erori zen. Anda dardaratu egin zen garraiarriak berriro aurrerantz zabunkatu zirenean eta aldi beretsuan ohartu nintzen nola basa taldea desagertzen ari zen erretiradazko mugimendu nabaririk gabe, oihanak hain derrepentean egoztitako gizaki haiek atzera xurgatu balitu bezala,

arnasgora luze batean hatsa xurgatzen den modura.

Pelegrin batzuek andaren atzetik bere armak zeramatzen —bi eskopeta, errifle astun bat, eta errepetizioko karabina arin bat— Jupiter penagarri haren tximistak. Zuzendaria bere gainera makurtu zen, marmarrean bere buruaren aldamenetik zebilela. Kabina txikietako batean eraitsi zuten; kamaina bat eta kanpainako aulki pare batentzako tokia besterik ez zuen gela bat, badakizue. Bere gutun atzeratuak ekarriak genizkion eta azal urratuak eta orrialde zabalduak zeuden ohe gainetik erruz barreiatuak. Eskua indarge zebilkion paper horien artetik haztamuka. Hunkitu ninduten bere begien sugarrak eta bere behakoaren hildura sosegatuak. Ez zen hainbeste eritasunaren ahuldadeagatik. Ez zirudien oinazetan. Itzal honek asebeste eta lasai itxura zuen, ordukoz emozio guztiez bete-betea balego bezala.

Gutun haietako bat inarrosi eta aurpegira finko begiratzen zidala hauxe esan zuen: «Asko pozten naiz.» Norbait niri buruz idazten aritu zitzaion. Errekomendazio famatuak berriro ager-

tzen ari ziren. Doinuaren ozentasunak, esfortzurik gabe, ia ezpainak mugitzeko nekea ere hartu gabe jaulkitakoak, liluratu egin ninduen. Hura zen ahotsa, hura! Lodia zen, sakona, zolia, eta gizonak xuxurla baterako gauza ere ez zirudien. Hala ere, indar nahikoa bazuen —alegiazkoa, noski— ia gureak egiteko, aurki entzungo duzuen bezala.

Zuzendaria isilean azaldu zen ate ondoan; ni bertatik kanporatu nintzen eta berak nire atzetik itxi zuen gortina. Errusiarra, pelegrinek kuriositatez begiratzen ziotena, lehorrera finko begira zegoen. Bere behakoaren norabideari jarraitu nion.

Urrunean giza errainu ilunak antzeman zitezkeen, lausoki iheska oihanaren ertz ilunbetsuaren kontra, eta ibai ondoan brontzezko bi irudi, lantza luze banari eutsita, eguzkiaren argitan zutik zeuden, larru pikartezko buruko ikusgarrien azpian, gerrari antza eta hala ere estatuazko gelditasunean. Eskuinetik ezkerrerantz ibaiertz argituan barna emakume baten agerraldi basati eta sotila mugitu zen.

Urrats neurtuekin zebilen, marra eta litsakiko oihaletan bildua, lurra arranditsu zapalduz, basa apaindurak doi-doi dilindan eta dirdirka. Burua tente zeraman, adatsa kasko baten erara zeukan orraztua; latoizko galtzerdiak zituen belauneta-raino, latoi alanbrezko eskularruak ukondoeta-raino, orizta gorrimin bat matrail beltzaranean, kristalezko aledun koilare sorta bat lepo inguruan; gauzaki bitxiak, kuttunak, azti gizonen opariak, soinetik zintzilika, dirdirka eta dardarka urrats bakoitzean. Zenbait elefante letaginen balioa eraman behar zuen aldean. Basati eta harroxkoa zen, bikain eta begi zorrotz; zerbait ikaragarria eta goresgarria zegoen bere ibilera pausatuan. Eta negargarrizko lurralde osoaren gainera supituki amildutako isiltasunean, oihan eskergak, bizitza emankor eta misterioitsuaren gorputz tantaiak bazirudien berari begiratzen ziola, pentsakor, bere arima ilunbetsu eta grina-tsuaren irudiari begira bailegoen.

Baporearen aitzinera etorri, bertan gelditu eta so egin zigun. Bere itzal luzea ur ertzera erortzen zen. Bere aurpegiak atsekabe basati eta oinaze mutu baten itxura tragikoa eta anke-

rra zuen, borrokatzen zen gaizki definitutako erabaki baten beldurrarekin nahasia. Begira egon zitzaigun, zirkinik gabe eta, oihana bera bezala, igarri ezinezko asmo bat bilbatzen aritze-ko aire batekin. Minutu oso bat pasa eta gero urrats bat aurrera eman zuen. Dilin hots motel bat izan zen, metal horizko distira bat, litsakiko oihalen zanbulu bat, eta gelditu egin zen, bihotzak hutsegin izan balio bezala. Nire aldameneko morroi gaztea marraka. Pelegrinak nire atzean txutxu-mutxuka. Begiratu zigun bere bizitza soaren jarraitasun tinkoaren menpe balego bezala. Bat-batean bere beso biluziak zabaldu eta gogor goratu zituen buruaren gainetik, zerua ukitzeko desira biziak hartuta bezala, eta aldi berean itzal arinak lurrera oldartu ziren, ibai gainetik barreiatuz hurbildu eta baporea besarkada itzaltsu batean estutu zuten. Izugarritzko isiltasuna nagusitu zen ikuskizun hartaz.

Emeki-emeki biratu, berriro bideari lotu, ertzetik jarraikiz eta sastrakaren barrenean murgildu zen ezkerretara. Behin bakarrik distiratu ziren bere begiak guri atzera so eginez arbola-diaren iluntzean ezkutatu aurretik.

«Ontzi gainera igotzekoa egin izan balu, seguru aski bera akabatzen saiatuko nintzen — esan zuen adabakiekiko gizonak urduri—. Neure bizitza arriskatzen ibili naiz egunero hamabost egun honetan etxetik uxatzeko. Behin batean etxean sartu eta sekulako iskanbila sortu zuen arropak adabatzeko almazenean harrapatu nituen piltzar ziztrin hauek zirela eta. Ez omen nengoen dezente jantzita. Horregatik zen, antza, ze Kurtzekin ordubetez hitz egin baitzuen haserre bizitan, noizean behin niri seinalatuz. Ez dut ulertzen tribu horren hizkera. Nire zorionerako, Kurtz, uste dut, oso makal zegoen egun hartan ezertaz arduratzeko, ze bestela istiluak sortuko ziren. Ez dut ulertzen... Ez, gehiegi da niretzat. Bada, orain dena kito.»

Une horretan Kurtzen ahots sakona entzun nuen gortinaren atzean: «Ni salbatzera! Marfila salbatzera esan nahiko duzu. Ez esan. Ni salbatzera! Neuk salbatu zaitut zu eta. Orain nire planak oztopatzen ari zara. Gaixorik! Gaixorik! Zuk sinetsi nahiko zenukeen bezain gaixorik ez behintzat. Berdin da. Neure ideiak aurrera aterako ditut oraindik: itzuliko naiz. Erakutsiko dizut

zer egin daitekeen. Zu eta zure txerpolari ideia horiek; traba egiten didazu. Itzuliko naiz. Nik...»

Zuzendaria kanpora irten zen. Adeitasunez besotik heldu eta aparte eraman ninduen. «Oso oso makal dago,» esan zidan. Beharrezko iritzizion hasperen bat botatzeari, baina ez zuen asko zaindu osotasunez nahigabeturik agertzea. «Ahalegin guztiak egin ditugu beragatik, ezta? Baina ezin gertaerak desitxuratu, Mr Kurtzek mesede baino kalte gehiago egin dio Konpainiari. Ez zuen konprenitu indarrezko ekintzetarako sasoirik egokiena ez zela. Kontuz, kontuz, horra nire printzipioa. Oraindik kontuz ibili behar dugu. Barrutia itxita daukagu bolada baterako. Tamalez! Merkataritzak, oro har, sufrituko du. Ez dut ukatzen marfil kopuru dezentea ez dagoenik, fosila gehienbat. Salbatu beharra daukagu, nola edo hala; baina begira zein egoera kaxkarrean gauden, eta zergatik? Metodoa okerra delako.» «Zuk honi —esan nion, lehorrera begiratzuz— metodo okerra deitzen diozu?» «Dударик gabe —ihardetsi zidan sutan—. Zuk ez ala?».

«Inolako metodorik ez dago eta,» esan nion ahapeka handik pixka batera. «Horixe ez dagoe-

la —pozarren esan zidan—. Esan nuen nik. Erabateko burugabekeria erakusten du. Nire egin-beharra da dagokion tokian jakinaraztea.» «Bai —esan nion nik—, tipo horrek, zer izen du? Adreilugileak, txosten dotore bat prestatuko dizu.» Nahastuta geratu zen pixka batean. Iruditu zitzaidan halako giro zitala behin ere sumatu gabea nintzela, eta Kurtzengana itzuli nuen gogoan, gozagarri bila, egiatan, gozagarri bila. «Dena den, pentsatzen dut Mr Kurtz gizon aparta dela,» esan nion hitzak azpimarratuz. Asaldaturik begirada hotz astuna egotzi, lasai-lasai: «Hala zen,» esan eta bizkarra eman zidan. Akabo nire pagotxa, sasoirik egokiena ez zeneko metodoen jarraitzaileen artean sartuta nengoen Kurtzekin batera: Okerra nintzen! Ah! Baina gutxienez zerbait zen neure amesgaitzak aukeratu ahal izatea.

Nik, egiazki, oihana nuen xedetzat, ez Kurtz; zeren hori, onartzeko prest nago, lurperatuta bezala baitzegoen, egon ere. Eta une batez iruditu zitzaidan ni neu ere sekretu doilorrez betetako hilobi itzel batean lurperatuta nengoela. Nabaritu nuen pisu jasangaitz batek bulartea

estutzen zidala, lur hezearen usaina, korrupzio garailearen presentzia ikusiezinak, gau barrenezin baten ilunbeak... Errusiarrak sorbaldan txapaka egin zidan. Entzun nuen murruska eta totelka honelatsu zioela: «Marinel anaia... ezin zuri ezkutuan gorde... Mr Kurtzen izen onari kalte egin diezaioketen kontu batzuen berri ematea.» Itxaron nuen. Berarentzat, bistan zen, Kurtz ez zetzan hilobian; susmoa dut Mr Kurtz berarentzat hilezkorretako bat zela. «Eta? —esan nion azkenean—. Hitz egizu. Gertatzen da ni Mr Kurtzen laguna naizela... nolabait.»

Adeitasun handiz jakinarazi zidan «lanbide berekoak» izan ez bagina kontua beretzat gordeko zuela, ondorioetan erreparatu gabe. «Barrundatzen zuen benetako gaizkinahia zegoela berarenganako gizon zuri haien aldetik...» «Arrazoia duzu —esan nion, ezustean entzundako elkarrizketa bat gogoratuz—. Zuzendariaren ustez urkatura egon behar zenuke.» Isilpeko horren aurrean halako egonezin bat agertu zuen, hasieran libretitu egin ninduen. «Hobe dut isil-isilik eskapatu —esan zuen, benetan—. Dagoeneko ezin dut Kurtzengatik gehiago egin, eta beraiek berehala

bilatuko zuten aitzakiaren bat. Zerk geldiaraziko ditu? Hemendik hirurehun miliatara badago kanpamendu militar bat.» «Ongi. Nire iritziz —esan nion—, alde egitea duzu onena, hango inguruko basatien artean lagunik baduzu, behintzat.» «Pilo bat —esan zidan—. Jende sinplea da... eta ni ez noa ezeren bila, badakizu.» Ezpaina hozkatzzen egon zen, gero: «Nik ez dut nahi hemengo zuriei kalterik gertatzerik; baina, noski, Mr Kurtzen izen onarekin ari nintzen pentsatzen... zu, ordea, marinel anaia zara eta...» «Konforme —esan nion geroxeago—. Mr Kurtzen izen ona nirekin salbu dago.» Ez nekien ondo zeinen egia-ti mintzo nintzen.

Jakitera eman zidan, ahotsa apalduz, Kurtzek berak agindu zuela baporearen aurkako erasoaldia burutu zedin. «Batzuetan gorroto izaten zion hemendik eramana izateko ideiarri, eta gero berriz... Baina nik ez ditut gauza horiek ulertzen. Ni gizon sinple bat naiz. Pentsatu zuen beldurrez hanka egingo zenutela, amore emango zenutela, bera hildakotzat joz. Nik ezin geldiarazi nion. Ai! Oso bolada txarra pasatu dut azken hilabete honetan.» «Ederki —esan nion—. Bera ondo

dago orain.» «Ba-a-a-i,» ahapeka esan zuen, ez oso konbentzituta, nonbait. «Eskerrik asko — esan nion—; begiak erne edukiko ditut.» «Baina, ixo, eh?» erregutu zidan, artega. «Izugarria litza-teke bere izen onerako hemengo norbaitek...» Isiltasun osoa agindu nion seriotasun handiz. «Kanoa bat eta hiru lagun beltz dauzkat zain hemendik ez oso urruti. Banoa. Martini-Henry kartutxo batzuk emateko modurik bai?» Modurik banuen eta eman egin nizkion, behar bezain ezkutuan. Berak hartu zuen, begi keinu bat egi-ten zidalarik, eskutada bat nire tabakotik. «Mari-nelen artean, badakizu, tabako ingeles ona.» Lematokiko ate ondoan jiratu egin zen. «Zera, behar ez duzun zapata pare bat ez duzu izango, bada?» Hanka bat jaso zuen. «Begira.» Zolak soka korapilatsuez sandalia gisara lotuta zeuden oin biluzien pean. Pare zahar bat atera nuen nonbaitetik eta txundituta begiratzuz bere ezke-rreko galtzarbean egokitu zuen. Bere patriketa-ko bat (gorri bizia) kartutxoaz borborka, bestetik (urdin iluna) kirika «Towsonen ikerketa», eta abar, eta abar. Bazirudien oihanarekin beste topaketa berri bat izateko bere buruari ezin

hobeki hornitua irizten ziola. «Ai! Halako gizonik ez zait sekula berriro suertatuko. Poesia errezitatzan entzun behar zenion; berea zen, gainera, hala esan zidan, behintzat. Poesia!» Begiak txixildu zituen une zoragarri haiek gomutatuz. «Ai! Berak gogoia hedatu dit!» «Adio,» esan nion nik. Eskua estutu zidan eta gauean estali zen. Batzuetan neure buruari galdetzen diot ea inoiz benetan ikusi nuen, ea zitekeen gauza zen halako fenomeno bat topatzea...

Gauerdiak jo berritan esnatu nintzenean bere abisua etorri zitzaidan gogora, berekin zekarren arrisku iradokizunarekin batera, ilunbe izartsuan hain egiazkoa zirudielarik, ezen ingurutik begiratu bat emateko asmoz jaikiarazi baininduen. Muino gainean su handi bat erretzen zen, estazioko etxearen kantoian oker bat aldizka argituz. Agenteetariko bat, gure beltz banaka batzuen pikete batekin, hartarako propio armaturik, guardia egiten ari zen marfilaren ondoan; baina oihanaren barren-barrenean, argitasun gorri dardarati batzuek, itxuraz lurrean hondoratuz eta bertatik ernatuz belztasun biziko zutabe forma nahasien artean, zehazki erakusten zuten non

zeukaten kanpamendua gaubeila asaldaria burutzen ari ziren Mr Kurtzen adoratzaileek. Danborhandi baten kolpatze monotonoak astinaldi motelduez eta dardara luzatu batez betetzen zuen airea. Etengabeko soinu burrunbatsu bat, gizon ugarik harrigarriko aztikeriaren bat nork bere buruari kantatuz sortzen zutena, oihanaren murru beltz, lautik irten zen, erleen burrunba erlauntzetik irteten den bezala, eta eragin loarazle arraro bat zuten nire zentzumen erdi lokartuetan. Uste dut barandaren gainean apoiaturik lo arinak hartu ninduela, harik eta aieiezko zapart sorgor batek, ezin eutsizko aztoramen misterioitsu baten leherketa erdiragarriak, txundimen nahastaile batez iratzarri ninduen arte. Kolpetik eten zen, eta durundi behereak isiltasun entzungarri eta sosegatuaren efektua sortuz jarraitu zuen. Halabeharrez kabina txikiaren barrura begiratu nuen. Argi bat piztuta, baina ez zegoen Mr Kurtzik bertan.

Uste dut zalapartaka hasiko nintzela neure begiei sinetsiz gero. Baina hasieran ez nien sine-tsi, hain ezinezko gauza baitzirudien. Kontua da ni erabat ikaratuta nengoela, izu laborrizko

terrore abstraktu hutsez, arrisku fisikoaren inolako forma ezagunekin zerikusirik ez zuena. Emozio hau hain jasanezin bihurtu zuena zen —nola definituko nuke?— hartu nuen bihotz zarrastada, alegia, guztiz munstrozko zerbait, adimenarentzat eramanezina eta arimarentzat gorrotagarria, ustekabez gainean ezarri izan balidate bezala. Honek, noski, segundo baten zatirik txikiena iraun zuen, eta gero herio arriskuaren ohizko sentsazio ezaguna, bat-bateko erasoaldiaren eta triskantzaren egokiera, edo horrelako zerbait, gain-gainean ikusten nuena, benetan ongi etorria eta lasaigarria gertatu zitzaidan. Hainbeste baretu ninduen, baretu ere, ez bainuen alarma jo ere egin.

Agente bat zegoen ontzi gainean goraino botoituriko longain batean bildua aulki batean lo, nigandik hiru oin betera. Aieiek ez zuten iratzarri; zurrunga oso txikian ari zen; bere lo betean utzi eta lehorrera salto egin nuen. Ez nuen Mr Kurtz traizionatu —aginduta zegoen inoiz ez nuela traizionatuko— idatzita zegoen leialtasuna gordeko niola nik aukeratutako amesgaitzari. Itzal horrekin bakarrean gertatzeko irrikitan nen-

goen, eta gaur ere ez dakit zergatik nengoen hain jeloskor esperientzia haren belztasun berezia inorekin partekatzeko.

Ez al nuen lehorreratu lorratz bat ikusi nuen, lorratz zabal bat belarretan barna. Gogoan dut neure baitan pozarren esan nuela: «Ezin du ibili, lau hankan arrastaka dabil, harrapatu dut.» Belarra ihintzez hezaturia zegoen. Urrats luzeka bizkor ibili nintzen ukabilak hertsita. Uste dut halako asmo lauso bat nuela, bere gainera erori eta bizkarra berotzekoa. Ez dakit. Burutapen zoro batzuk izan nituen. Katuarekin ehuntzen ari zen atsoak oroimena itsutzen zidan, honelako pasadizo baten buruan eserita egoteko pertsonarik desagokiena bailitzan. Pelegrin ilara bat ikusi nuen Winchesterrak gerrialdean airera beruna parrastatuz. Pentsatu nuen baporera inoiz ere ez nintzela itzuliko eta neure burua basoan imajinatzen nuen bakarrik eta armarik gabe bizitzen adinean sartu arte. Horrelako txorakeriak, badakizue. Eta gogoan dut nola danborraren taupada neure bihotzaren taupadarekin konfunditzen nuen, eta laket zitzaidan bere erregulartasun mantsoa.

Arrastoari jarraiki nintzaion, hala ere; gero entzuteko gelditu nintzen. Gau zohardia zegoen; espazio urdin ilun bat, ihintzez eta izarren argiez dirdirka, bertan gauza beltzak geldi-geldi zeudelarik. Mugimendu antzeko zerbait ikusi uste nuen neure aurrean. Gau hartan orotaz ziur nengoen harrigarriro. Egia esan, arrastoa utzi eta itzulinguru zabal batean korritu nuen (uste dut neure artean barrezka egiatan) eta hala ikusita neukan zirkin edo higidura antzeko haren aurrera agertu, zerbait ikusita baneukan behintzat. Haur jolas bat balitz bezala ari nintzen Kurtz inguratzen.

Bere aurrean gertatu nintzen, eta etortzen entzun ez balit, bere gainera ere eroriko nintzatekeen, baina garaiz altxa zen. Kili-kolo, luze, zurbil, lauso, lurrari zerion lurruna bezala zutitu eta pixka bat kordokatu zen, lanbrotsu eta isil nire aurrean; ordea, nire atzean suak nabaritzen ziren zuhaitzen artean eta ahots ugarien murmurio bat barreiatzen zen oihanetik. Artezki moztu nion bidea, baina egiazki bere parean nengoen neure senera etorri nintzela iruditu zitzaidan, arriskua bere neurri egokian ikusi nuen. Ez zen desagertu, hain gutxi ere. Eta garrasika has-

ten bada? Ozta-ozta zutik egoteko gauza bazen ere, ahotsean indar izugarria zeukan artean. «Alde egizu, ezkuta zaitez,» esan zidan bere doinu sakonarekin. Espantagarria zen. Begi ertzetik atzealdera begiratu nuen. Hurbileneko sua hogeita hamar iardatara genuen gutxi gorabehera. Irudi beltz bat zutitu zen, hanka luze beltzekin urrats luzeka, beso luze beltzei eraginez, argitasuna zeharkatu zuen. Adarrak zeuzkan, antilope adarrak, uste dut. Intxixu bat, azti bat, dudarik gabe: itxura zeharo deabruzkoa zuen. «Badakizu zer ari zaren?» xuxurlatu nion. «Noski,» erantzun zidan, ahotsa goratuz hitz bakar hori esateko: soinu urrun eta hala ere ozenez jo zidan belarrira, bozgorailu baten bidezko dei batek bezala. Zalaparta sortzen badu, gureak egin du, pentsatu nuen neurekiko. Bistan da mutur joka hasteko kasu bat ez zela, gainera nazka ematen zidan itzal hura jo beharrak, gauza errari eta oinazetu hura. «Galdu egingo zara —esan nion—, ezin gehiagoan galdu ere.» Batek horrelako inspirazio-aldiak izaten ditu batzuetan, badakizue. Gauza egokia esan nuen, zeren ezin baitzuen une hartantxe zegoena

baino galduago egon eta une horretantxe gure intimitatearen zimentarriak ezartzen ari ziren, irauteko, irauteko, azken bururaino ere, harantzagoraino ere.

«Sekulako planak neuzkan,» murmuratu zuen zalantzakor. «Bai —esan nion nik—; baina garrasi egiten saiatzen bazara burua kraskatuko dizut zerarekin...» Inguruan ez zegoen ez egurrik ez harririk. «Lepoa bihurrituko dizut.» zuzendu nuen. «Gauza handien atarian nengoen.» arranguratu zen, oroi-minezko ahots batez, hain doinu etsigarritz, ze odola gatzatu egin zitzaidan. «Orain, berriz, doilorkume txotxolo horrengatik...» «Zure arrakasta European segurtatuta dago nolana ere,» zuhurki esan nion. Ez nuen nahi lepoa bihurritu beharrean egoterik, ulertzen? Gainera horrek ezer gutxi balioko zuen inolako helburu praktikorako. Aztikeria hausten saiatu nintzen —oihanaren aztikeria pisutsua, mutua—, bera bere bihozgabeko altzora bereganatu nahian zirudiena, berarengan sen ahandi eta aberekoiak berpiztuz, munstrokeriazko grina asebetek oroitaraziz. Horrek ez bestek, etsita nengoen, eraman zuen oihanaren ertzera, sas-

trakara, suen argitasunera, danborren taupadara, konjuru harrigarrien burrunbara; horrek ez bestek liluratu zuen bere arima debekatua baimendutako xedeen mugaz haraindi joatera. Eta, aizue, egoeraren izu laborria ez zetzan kaskarreko bat hartu ahal izatean —nahiz arrisku horren sentsazio bizi-bizia ere banuen—, baizik eta gizon bati aurre egin behar niola eta horrekin ezeren goragarri edo beheragarriren izenean jotzerik ez nuela. Nik ere, beltzek bezalaxe, bera inbokatu beharra nuen, bere galdukeria asaldari eta sinestezina. Ezer ere ez zegoen bere gaine-tik edo bere azpitik, eta nik banekien hori. Ostikoka askatu zen lurretik. Gizon arraioa! Ostikoka txikitu zuen lurra bera ere. Bakarrik zegoen bera, eta ni bere aurrean ez nekien lur gainean edo airean flotatzen nengoen. Esan genuena kontatzen aritu natzaizue —erabili genituen esaldiak errepikatzen— baina zer balio du? Eguneroko hitz arruntak ziren, bizitzara jaiotzen den egun bakoitzean trukutzen diren hots ezagunak, lausoak. Bai, eta? Atzetik, nire irudiko, ametsetan entzundako hitzek, amesgaitzetan adierazitako esaldiek ohi duten liluramendu beldurgarria zeu-

katen. Arima! Inor bada inoiz arima batekin borrokatu denik, neu naiz gizon hori. Eta ez nintzen txoriburu batekin ere eztabaidan ari. Uste ez baduzue ere, adimena guztiz argia zeukan; bere baitara bizitasun ikaragarriarekin bildua, egia da, hala ere, argia; eta hortxe nuen aukera bakarra —non eta, jakina, ber-bertan hiltzen ez nuen, hain komenigarria ere ez zena, ezinbesteko zarata zela eta—. Baina bere arima erotuta zegoen. Oihanean bakarrik egonik, bere baitara begiratu zuen eta, alajaina! Erotu egin zen, aizue. Neronek ere —neure bekatuengatik, suposatzen dut— bere baitara begiratzeko froga pasatu behar izan nuen. Ezein elokuentziak ezingo zukeen norberak gizatasunarekiko duen fedea hala agortu, nola bere azkeneko leherketa egiatiak. Bere buruarekin ere borrokatzen zen. Ikusi nuen, entzun nuen. Ikusi nuen ez bridarik, ez federik ez beldurrik ezagutzen ez bazuen ere, bere buruarekin itsu-itsuan borrokatzen zen arima baten misterio pentsaezina. Nahiko ondo eutsi nion neure buruari; baina azkenez kamainan eratzan nuenean, bekokia xukatu nuen, hankak neure azpian dardarka nituela, muino harta-

tik behera tona erdi bat bizkarrean garraiatu izan banu bezala. Eta hala ere, heldu besterik ez nion egin, bere beso hezurtsua lepo ingurua estutzen zidala, eta haur bat baino askoz pisua-goa ere ez zen.

Biharamun eguerdian partitu ginenean, gizaldea, horren presentziaz zuhaitzeko gortinaren atzean guztiz kontziente izana bainintzen, basoetatik atzera isuri zen, soilgunea gaineztu, malda brontzeko soin biluzi arnaskari, dardarkarien nahaspila batez estali. Lurrunaren presioa pixka bat igo eta ondoren ibaian behera biratu nuen, eta bi mila begik jarraitu zituzten ibai deabru ankerraren mugimenduak txaplaka, danbada, urari kolpeka bere isats ikaragarriarekin eta airera ke beltza jarioka. Aurreneko ilararen aitzinean, ibai ertzean zehar, hiru gizaseme, burutik oinetara buztin gorrimenez basituta, fanfarroi zebiltzan harat-honat urduri. Berriz ere haien parera iritsi ginenean, ibaira begiratzen zuten, oinak zanpatzen, euren buru adardunei eragiten, soin eskarlatak kulunkatzen; ibai deabru ankerraren aldera luma beltz sorta bana inarosten zuten, buztana dilindan zuen larru ezka-

biatsu bana —kalabaza lehorraren antzeko itxura zuen gauza bat—; giza hizkuntzaren soinuak ez ziruditen harrigarriko hitz parrastadak oihukatzen zituzten aldizka denak batera; eta gizaldraren murmur sakonak, supituki etenak, sata-nen letania baten erantzun modukoak ziren.

Kurtz lematokira eramana genuen: han aire handiagoa zegoen. Kamainan etzanda, finko begiratzen zuen zabaldutako leihatilatik. Zurrunbilo bat gertatu zen giza gorputzen nahaspilan eta orrazkera kasko erara eta matrail beltzarenak zituen emakumea ur ertzeraino oldartu zen. Eskuak hedatu zituen, zerbait oihukatu eta giza-bar basatiak koru burrunbatsuan jarraitu zion oihuari lengoaia artikulatu, arin eta arnasestu batez.

«Ulertzen duzu hori?» galdegin nion.

Niri erreparatu gabe kanpora begira segi zuen begi suhar eta lehiatsuz, irrikaz eta gorrotoz nahasitako aurpegierarekin. Ez zuen erantzunik eman, baina nik barre-iduri bat ikusi nuen, ezin adierazizko esanahia zuen barre-iduri bat, ezpain kolorgeetan ageri zitzaiona, horiek geroxeago dardara handian zirelarik. «Nola ez?»

esan zidan emeki, arnaska, hitzak naturaz gaindiko botere batek erauziak bezala.

Txilibituaren lokarriari tira egin nion, eta hori egin nuen ikusi nuelako nola pelegrinek ontzi gainean euren errifleak ateratzen zituzten jolas atsegingarri bat prestatzen aritzeko trazarekin. Bat-bateko txistukadaren ondorioz izu laborrizko higidura bat izan zen gorputzen nahaspila bilduan zehar. «Ez! Ez uxatu!» deskontsolaturik oihukatu zuen norbaitek ontzi gainean. Lokarriari tira eta tira egin nion. Sakabanatu egin ziren, korrika, jauzika, makurka, itzurika, soinuaren terrore hegalariai iheska. Hiru tipo gorriak zerraldo erori ziren, ahozpez ibai ertzean, tiro batek hilak bezala. Soilik emakume basatar eta harroxkoak zirkinik egiteke bere beso biluziak tragikoki luzatu zituen gureganantz ibai goibel eta distiratsuaren gainetik.

Orduantxe ontzi gaineko gizalde ergelak bere jostaketari ekin zion eta ez nuen gehiago ikustetik izan keagatik.

Ur arrea borborka zerion ilunbeen bihotzari, eta gorako bidean baino bi bider handiagoko abiadurarekin ginderaman itsasorantz; eta Kur-

tzen bizitza ere borborka zerion bere bihotzari, beheraldian, beheraldian, gupidagabeko denboraren itsasorantz. Zuzendaria gozo-gozo zegoen; ez zuen bizi kezkarik orain; begirada xamur eta atsegin batez hartu gintuen biok: «afera» nahi bezain ongi burutua zegoen. Ikusten nuen hurbiltzen ari zela «metodo okerraren» taldeko kide bakartzat geratuko nintzeneko aldia. Pelegrinek destainaz begiratzen zidaten. Hildakoen artean zenbatua nengoen, nolabait esanda. Harrigarria da nola onartzen nuen halabeharreko elkartze hau, mamu zeken eta zikoitz horiek inbaditutako lurralde ilunbetsuan bortxaz ezarri zizkidaten amesgaitzen hautapen hau.

Kurtz hizketan ari zen. Hura zen ahotsa hura! Azken-azkeneraino sakon hots egin zuen. Indarrari eutsi zion bere bihotzaren ilunbe elkorra elokuentziaren toles bikainetan ezkutatzeko. Ai, nola borrokatu zen, nola! Irudi itzaltsuek bisitazten zituzten orain bere burmuin abailduen hondarrak, aberastasun eta ospe irudiak, eskuzabal-ki itzulikatzen zirenak bere adierazmen prestu eta gorenaren dohain agortezinaren inguruan. Nire maitea, nire estazioa, nire lanbidea, nire

ideiak: horiek ziren goi sentimenduen inoizko mintzagaiak. Jatorrizko Kurtzen itzala maiz agertzen zen itxurapen hutsaren oheburuan, beronen patua udaberriko lurrustelean aurki ehortzia izatea zelarik. Baina barrendu zen misterioekiko maitasun deabruzkoa nahiz lurraz gaindiko gorrotoa, biak borrokatzen ziren antzinako emozioez asebeteriko eta gezurrezko ospearen, sasi prestutasunaren, arrakasta eta botere itxura guztien gose zen arima horretaz jabetzeko.

Batzuetan haur jokaera gogaikarria agertzen zuen. Egintza handiak burutzeko xedeaz egondako Inon ospel batetik itzultzean erregeak tren geltokietan zain edukitzea desiratzen zuen. «Froga iezaiezu zeure baitan benetan baliagarria den zerbait badaukazula eta orduan zure gaitasunaren aitortpena mugagabea izango da —esan ohi zuen—. Arrazoiak, noski, arretaz hautatu behar dituzu, arrazoi zuzenak, beti ere.» Ibai-tarte bera eta bakarra ziruditen ibai-tarte luzeak, berdin-berdinak ziren bihurgune monotonoak, baporearen pasaeran lerratzen ziren, behialako zuhaitzen ugaritasuna patxadaz begira zegoela aldaketaren, konkistaren, merkataritzaren,

sarraskien eta bedeinkapenen aitzindari zen beste mundu bateko pusketa likits honen aurrean. Nik aurrera begiratzen nuen errubera-tik. «Itxi leihatila —esan zuen behin Kurtzek bat-batean—; ezin dut eraman hau ikustea.» Halaxe egin nuen. Isilune bat izan zen. «Baina bihotza bihurrituko dizut oraindik, alafede!» garrasi egin zion oihan ikusiezinari.

Matxura bat izan genuen —nik espero nuen bezalaxe— eta ontzia konpontzeko uharte baten muturrean gelditu beharra izan genuen. Atzerapen hau izan zen Kurtzen konfiantza hunkitu zuen aurreneko gauza. Goiz batean paper sorta bat eta argazki bat eman zizkidan, horiek denak zapata lokarri batez elkarrekin bilduak. «Gorde egidazu hau —esan zidan—. Txoro zital hori (zuzendariak ari zen) kapaz da ezkutuan nire kutxak arakatzeko.» Arratsaldean ikusi nuen zuzendaria. Ontzi gainean ahoz gora etzanda zegoen begiak itxita, eta ni isilean erretiratu nintzen, baina hauxe entzun nion ahapeka esaten: «Gizalegez bizi, hil, hil...» aditu nion. Ez zen besterik izan. Bere loaldian hitzaldiren bat errepikatzen ari zen ala egunkarirako artikuluren bateko

esaldi zati bat zen? Egunkarietarako idatzi izan zuen eta berriro hasteko asmoa omen zuen «nire ideiei laguntzeko. Egin beharrekoa da.»

Berea ilunbe barrenezina zen. Eguzkiak sekula argitzen ez duen amildegri baten hondoa datzan gizon bati goitik aztertuko litzaiokeen bezala begiratzen nion nik. Baina ez nuen denbora askorik berari eskaintzeko, ze makinazainari laguntzen ari bainintzaion hondatutako zilindroak desmuntatzen, biela okertu bat zuzentzen, eta horrelako gauzak egiten. Herdoila, karraskautsa, torloju, berno, giltza, mailu eta trinketezko nahas-mahas beldurgarri baten erdian bizi nintzen, gorrotatzen ditudan gauzak, hain zuzen ere, horiekin ez bainaiz ondo moldatzen. Ontzi gainean zorionez geneukan forja txiki batean ari nintzen ni; txatar pilo madarikatu baten erdian jo eta ke lanean, baldin eta zutik egon ahal izateko hotzikara gaiztoegiak ez banituen, behintzat.

Gau batez kandela batekin sartu nintzenean zur eta lur geratu nintzen ikara doi batez hauxe zioela: «Hemen natza, ilunbetan, herioaren zain.» Argia begietatik arra betera edo zeukan. Neure burua behartu nuen ahapetik esatera:

«Txorakeriak!» eta bere aldamenean geratu nintzen, zurtuta bezala.

Begitarteak egin zuen aldaketaren antzekorik egundaino ikusi gabea nintzen eta espero dut sekula berriro ez ikustea. Ez, ez nengoen hunkituta. Liluratuta nengoen. Errezela bat urratzea bezala izan zen. Marfilezko aurpegi hartan harrotasun iluna ikusi nuen, botere errukigabea, izu laborria, amore emate bizi eta etsia. Bere bizitza atzera bizi ote zuen desira, tentazio eta etsimezko xehetasun orotan jakintza beteko une goren hartan? Xuxurla batez oihukatu zion irudiren bati, ikuskariren bati, bi aldiz oihukatu zuen, hats bat baino ez zen oihua:

«Horrorea! Horrorea!»

Putz eginez kandela emendatu eta kabinatik irten nuen. Pelegrinak jantokian afaltzen ari ziren eta nik zuzendariaren aurreko eserlekua hartu nuen; berak begiak jaso eta begirada aztertzaile bat egotzi zidan, nik poliki saihestu nuena. Atzerantz makurtu zen, patxadatsu, barre-iduri berezi hark bere zikoizkeriaren barrunbe adierazi gabeak zigilatzen zituela. Eltxo erauntsi atergabea ari zuen firrindaka lan-

pararen inguruan, mantelaren inguruan, gure esku-aurpegiaren inguruan. Halako batez zuzendaria-riaren mutilak bere buru beltz lotsagabea atetik agertu eta mespretxuzko doinu mingots batez honako hau esan zuen:

«Mistah Kurtz, bera hil.»

Pelegrin guztiak kanpora oldartu ziren ikusteko. Ni bertan gelditu eta neure afariarekin jarraitu nuen. Uste dut anker bihozgabetzat jo nindutela. Dena den, ez nuen askorik jan. Bertan lanpara bat zegoen —argia, aizue—; eta kanpoan hain zen beltza ilunbea. Ez nintzen berriro inguratu bere arimaren lurreko ibilerei buruz iritzi bat eman zuen gizon apartarengana. Ahotsa joana zen. Zer gehiago egon zen han? Baina jakitun naiz, noski, pelegrinek biharamunean zerbait lurperatu zutela zulo lohitsu batean.

Eta gero ni lurperatzeko zorian egon ziren.

Ordea, ikusten duzue, ez nintzen berehala joan Kurtzekin elkartzera. Ez horixe. Geratu nintzen amesgaitza azkeneraino bizitzeko eta Kurtzekiko neure leialtasuna beste behin frogatzeko. Patua. Nire patua! Bai gauza irrigarria dela bizitza, logika zorrotzeko gertutasun mis-

teriotso hori xede hutsal baterako. Beragandik gehienez espero dezakezuna da zeure buruaren ezagutza moduko zerbait —beranduegi iristen dena—, damukizun azkengabeen uzta bat. Heriotzarekin borrokan arituta nago. Imajina dezakezuen konbaterik epelena da. Gristasun ukiezin batean gertatzen da, oinpean ezer gabe, inguruan ezer gabe, ikuslerik gabe, auparik gabe, aintzarik gabe, garaipenerako irrika handirik gabe, galtzapenerako beldur handirik gabe, eszeptizismo epeleko giro kutsatu batean, zeure eskubidearekiko fede handirik gabe eta gutxiago oraindik zure etsaiarenarekiko. Azken buruko ezagumena era horretakoa baldin bada, orduan bizitzak gutariko askok uste baino enigma handiagoa da. Neure iritzia emateko azken aukera eskumenean eduki nuen eta lotsaturik ohartu nintzen ez nukeela seguru aski zer esatekorik izango. Horrexegatik diot Kurtz gizon aparta zela. Berak bazuen zer esatekorik. Esan zuen. Ertzera asomatu naizenez geroztik hobeki ulertzen dut bere begirada finkoaren esanahia, kandelaren sugarra ikusterik ez baina unibertso osoa besarkatzeko bezain hedakorra zena, ilun-

betan taupaka ari diren bihotz guztiak barrentze-ko bezain ebakitzailea. Berak laburpena egin zuen; berak iritzia eman zuen. «Horrorea!» Gizon aparta zen. Azken finean, hori sinesmen mota baten adierazgarri zen; xahutasuna zuen, sinesgarritasuna zuen, errebolta doinu zoli bat zuen bere xuxurlan, erdikusitako egia baten aurpegi lazgarria zuen, irrika eta gorrotozko nahasketa arraroa. Eta ez da neure une larria hobekien gogoratzen dudana: erarik gabeko gristasun ikuskari bat, oinaze fisiko betea, eta axolagabeko mespretxu bat gauza ororen galkortasunaz, baita oinazeaz ere. Ez! Bere une larria da bizi dudala iruditzen zaidana. Egia, berak azken pausoa eman zuen, ertzaren gainetik igaro zen; nik, ordea, neure oin ezbaikoa erretiratzeko parada izan nuen. Eta beharbada horretan datza alde guztia; beharbada guztizko ezagumena, eta guztizko egia, eta guztizko zintzotasuna, ikusiezina-ren ataria igarotzen dugun denbora une antze-manekin horretan trinkotuak daude, hain zuzen ere. Beharbada! Amestu nahi dut neure laburpena ez zatekeela axolagabeko mespretxu hitz bat izango. Hobe bere garrasia, askoz hobe. Baiezta-

pen bat zen, garaipen moral bat, ezin konta ahalako galtzapenez, terrore higuingarriez, gozamen higuingarriez ordaindua. Garaipen bat hala ere! Horrexegatik azkeneraino jarraitu dut leial Kurtzekiko eta geroagoraino ere, handik puska batera beste behin entzun nuenean, bere ahotsa ez, baina bere elokuentzia bikainaren oihartzuna, kristalezko malkar bat bezain gardena zen arima batek itzulia.

Ez, ez ninduten lurperatu, nahiz eta denboraldi bat dagoen, lausoki, txundimen zirrargarri batez oroitzen dudana, esperantza eta desirarik gabeko mundu asmaezin bat zeharkatu banu bezala. Atzera ere hiri hilobitarrean aurkitu nintzen, jasanezina gertatzen zitzaidalarik jendea ikustea kaleetan barrena presaka, elkarri sos banaka batzuk xixatzeko, euren janari okaztagarria irensteko, euren zerbeza kaltegarria edateko, euren amets hutsal eta leloak egiteko. Haiek pentsamenduak gainditzen zizkidaten. Intrusoak ziren eta bizitzari buruz zuten ezagutza prentzio sumingarri bat zen niretzat, hain ziur bainengoen beraiek ezin zituztela jakin nik nekizkien gauzak. Beraien portaera, euren zeregine-

tara segurantzaren osoaren ziurtasunean joaten diren gizabanako arrunten portaera baino ez zena, iraingarri zitzaidan, ulertezin gertatzen den arrisku baten aurrean erakutsi ohi den erregieria nabarmen laidogarria bezala. Horiei argia emateko gogo berezirik ez nuen, baina zail samarra gertatu zitzaidan beraien aurpegien aurrean barre egiteari eustea, harrokeria ergelez hain beteak baitzeuden. Ni seguru asko ez nengibilen oso ondo aldi hartan. Kaleak kili-kolo korritzen nituen —zenbait eginkizun zegoen betetze-ko—, pertsona txit errespetagarriei barre saminak eginez. Aitortzen dut neure jokaera barkaezina zela, baina egun haietan bakan izaten nuen temperatura normala. Nire izeba maitearen ahalginek «osasuna bizkortzeko» guztiz alferrika-koak ziruditen. Ez nuen osasuna bizkortu beharrekoa, irudimena nuen arindu beharrekoa. Kurtzek emandako paper sorta gordetzen nuen, eta ez nekien justu zer egin berarekin. Ama hil berria zuen, bere maitearen zaintzapean, esan zidatenez. Bizarra apainki egindako gizon batek, manera ofizialak zituena eta urrezaturiko euskarridun betaurrekoak jantzita, behin batean

bisitatu eta galderak egin zizkidan, inguru-min-
guraka hasieran, ondoren eztiki premiatuz, hala-
ko «agiri» batzuei buruz, berari hala deitzea
atsegin zitzaion eta. Ez nintzen harritu ze bi
matrakaldi izan baintuen zuzendariarekin han,
gai hori zela medio. Errefusatu nuen pakete
haren zatirik txikiena ere ematea eta jarrera ber-
dina hartu nuen betaurrekodun gizonarekin.
Kopetilun azkenez mehatxuka hasi zitzaidan, eta
sutan argudiatu zuen Konpainiak eskubide osoa
zuela bere «lurraldeei» buruzko informaziorik
xeheena ere izateko. Eta esan zuen: «Mr Kurtzek
nahitaez ezagutza zabala eta berezia izan behar
zuen esploratu gabeko herrialdeen gainean, kon-
tutan hartuz gizon trebea zela eta zirkunstantzia
tamalgarrietan egon beharra suertatu zitzaiola,
beraz...» Nik segurtatu nion Mr Kurtzen ezagu-
tza, zabala izanik ere, merkataritza nahiz admi-
nistraritza arazoei buruzkoa ez zela. Gero zien-
tziaren izena inbokatu zuen: «Izugarrizko galera
litzateke baldin eta...» eta abar, eta abar. «Ohi-
tura Basatien Ezabaketa»ri buruzko txostena
eskaini nion, posdata kenduta zuelarik. Lehiat-
onartu zuen, baina azkenean mespretxuzko aire

batekin errefusatu. «Hau ez da espero izateko eskubidea duguna;» adierazi zuen. «Ez ezazu besterik espero —esan nion nik—. Gutun pribatuak besterik ez dago.» Auzitara jotzeko mehatxu eginez alde egin zuen eta ez nuen gehiago ikusi; baina beste tipo bat, Kurtzen lehengusua zela zioena, handik bi egunetara azaldu eta bere ahaidearen azken uneei buruzko xehetasun guztiak entzuteko irrikitan zegoen. Bidenabar jakitera eman zidan Kurtz izatez musikari handia izan zela. «Arrakasta izugarria lortzeko gai zen,» esan zuen gizonak, organujolea omen zena, uste dut, jakaren iduneko koipetsuaren gainera zerion ile urdin tximatsua zeukana. Bere baiespena zalantzan jartzeko arrazoirik ez nuen; eta gaur ere ez naiz gauza esateko zein zen Kurtzen lanbidea, edo lanbiderik bazuen eta horixe zen bere talenturik handiena. Egunkarietan idazten zuen margolaritzat hartua nuen nik, edota margotzen zuen kazetaritzat, baina lehengusuak berak ere (elkarrizketan rape hartzen zuena) ez zuen lortu bere lanbidea zehazterik. Jenio uni-bertsal bat omen zen, eta horretan bat nentorren agure zaharrarekin, eta honek jarraian

kotoizko sudur-zapi handi batekin zaratatsuki zintz egin eta zaharren dardarizoarekin alde egin zuen, aldean garrantzirik gabeko famili eskutitz eta ohar batzuk eramanez. Atzena kazetari bat azaldu zen bere «lankide maitearen» zoriaz zer-bait jakiteko irrikitan. Bisitari honek berri eman zidan Kurtzen bere-berezko arloa politikagintza izan behar zukeela «jendetzaren gidari» bezala. Bekain zuzen iletsuak zeuzkan, ilea tente eta murrizta, monokulo bat xingola zabal batekin eta hitz-jario agertuz aitortu zidan bere ustetan Kurtzek ez zekiela pixka bat ere idazten, «baina, kontxo! Hitzun paregabea zen. Entzulego handiei zirrarrarazteko ahalmena zuen. Fedea zuen, aizu, fedea. Bere buruari edozer gauza sinetsaraziko zion, edozer gauza. Alderdi estremista bateko lider bikaina izan zitekeen.» «Zein alderditakoa?» galdegin nion. «Edozeinetakoa,» erantzun berak. «Horixe zen bera... estremista bat.» Ez al nintzen iritzi berekoa? Baietz. Ba al bane-kien, bat-bateko kuriositatea agertuz galdetu zidan, «zerk bultzatu zuen hara joatera?» «Bai,» esan nion, eta aldi berean Txosten famatua luzatu nion argitara eman zezan, egokitzen jotzen

bazuen. Presaka gainbegiratu, denbora guztian ahapeka hitz eginez, «baliagarri»tzat jo eta bere harrapaketaekin aldendu zen.

Hala, azkenean geratu nintzen gutun sorta mehe batekin eta neskaren erretratuarekin. Bere edertasunak zirraratu ninduen; esan nahi dut begikera ederra zeukala. Badakit egun argiari ere gezurra erasan dakiokela, nahiz eta batek sentitzen zuen argia eta posea nolana manipulatuta ere ezin adieraz zitekeela aurpegi hark bere baitan zuen egitasun ñabardura fina. Entzuteko prest zirudien, buru erretserbarik gabe, errezelarik gabe, beretzat pentsamendu bat ere gorde gabe. Azkenean erabaki nuen ni neu joan eta bere erretratu eta eskutitz horiek neronek itzuli. Kuriositatea? Bai; eta beste sentimendu batzuk ere bai, agian. Kurtzena izandako guztiak eskuetatik ihes egin zidan: bere arimak, bere gorputzak, bere estazioak, bere planek, bere marfilak, bere lanbideak. Bere oroitzapenak eta bere maitea bakarrik gelditzen ziren, eta horiek ere iraganaren eskuetan utzi nahi nituen nolabait, berataz gelditzen zitzaidan guztia neronek laga ahanzturari, gure patu komunaren

azken hitza den horri. Ez naiz neure burua defen-
datzen ari. Ez nuen garbi ikusten benetan zer
nahi nuen. Beharbada oharkabeko leialtasun
bultzada bat edota giza izatearen egintzetan
ezkutuan egoten diren premia ironiko horietako
baten betetzea. Ez dakit. Ezin dut esan. Baina
joan nintzen.

Nik uste nuen bere oroitzapena gizon ororen
bizitzan metatzen diren heriotzaren beste oroi-
tzapenak bezalakoa zela: itzalek euren azken
bidaia azkarrean garunera erortzen direnean
bertan uzten duten aztarren lauso bat, baina
atetzar luze gotorraren aurrean, hilerriko ibilbide
ongi zaindutako bat bezain lasaia eta txukuna
zen kale bateko etxe altuen artean, bere ikuska-
ria izan nuen anda gainean, ahoa goseki zabal-
tzen, lurbira osoa, gizadia eta guzti, irentsi beha-
rrean bezala. Orduan nire aurrean bizi izan zen;
inoiz ez bezala bizi izan zen: itxurapen bikainez
eta errealitate ikaragarriez ase ezinezko itzal
bat; gauaren itzala baino ilunagoa zen itzal bat,
elokuentzia ederraren tolesetan prestutasunez
bildua. Ikuskariak bazirudien nirekin batera sar-
tzen zela etxera: anda, mamuaren garraiarriak,

adoratzaile esanekoen gizaldra basatia, oihane-ko iluntasuna, bihurtune itzaltsuen arteko ibaia-
ren erlantz, danborraren taupada, bihotz baten
taupada bezain erregularra eta sorra... ilunbe
garaileen bihotza. Garaipen une bat zen oihana-
rentzat, oldar erasotzaile eta mendekatzaile bat,
iruditu zitzaidanez bakarrik aurre egin behar
niona beste arima baten salbaziorako. Eta han
urrutian esaten entzun nionaren oroitzapena,
irudi adardunak atzean eragiten nituela, suen
argipean, baso egonarritsuaren artean, esaldi eten
haiek atzera etorri zitzaizkidan, berriro entzun
ziren euren parte txarreko sinpletasun espanta-
garrian. Gogoratu nuen bere erregu zitala, bere
mehatxu zitala, bere desira doilorren tamaina
eskerga, bere arimaren zikoizkeria, oinazea,
estutasun grinatsua. Eta gero bere manera
geldo eta neurritsua ikusi uste nuen, behin
batean hauxe esan zuenean: «Marfil pila hau
neurea da. Konpainiak ez du ordaindu. Neronek
bildu nuen neure burua arrisku handian jarriz.
Beldur naiz ez ote diren beretzat eskatzen saia-
tuko. Hum. Kasu zail bat da. Zer uste duzu egin
behar nukeela, eutsi? Eh? Zuzenbidea besterik

ez dut nahi.»... Zuzenbidea besterik ez zuen nahi, zuzenbidea besterik ez. Txirrina jo nuen kaobazko ate baten aurrean lehen solairuan eta zain nengoela bazirudien kristalezko xaflaren barrenetik finko begiratzen zidala, unibertso osoa besarkatzen, kondentatzen eta erdeinatzen zuen begiratu zabal eta baztergabe harekin begiratu ere. Bazirudien garrasi xuxurlatua entzun nuela: «Horrorea! Horrorea!»

Ilunabarra amiltzen ari zen. Areto galant batean itxaron behar izan nuen, bertan hiru leiho luze zorutik sabairaino, argizko hiru zutabe gortinadun bailiran. Altzarien hanka-bizkar bihurri urreztatuak okergune lausotan distiratzen ziren. Marmolezko sutondo garaiak monumentu baten zurtasun hotza zuen. Piano handi bat gotorki altxatzen zen izkina batean, dirdai ilunak zituela azalera lauen gainean, sarkofago itzaltsu eta ezkoztatu baten antzera. Ate gora bat zabaldu... hertsu. Jaiki nintzen.

Neska hurreratu zitzaidan, dena beltzez, burua zurbil, ilunabarrean flotatzen niganantz. Doluz jantzita zegoen. Urtebete baino gehiago zen bera hil zenetik, urtebete baino gehiago zen

albistea etorri zenetik; bazirudien betiera guztian gomutatu eta negarreztatu behar zuela. Nire bi eskuak eskuetaratu zituen eta ahapeka: «Banekien etortzekoa zinela.» Erreparatu nion ez zela oso gaztea, esan nahi dut neskaxa bat ez zela. Heldutasuna zeukan leialtasunerako, federako, sufrimendurako. Gelak ilunagotua zirudien, arrats lainotsuaren argi goibel guztia neskaren kopetan gerizpetu bailitzan. Bere adats horaila, bere musu zurbila, bere bekoki aratza, uztai hauskara batez inguratuak bezala eta horren barrenetik begi ilunak niri begira. Haien soa egiatia, sakona, segurua eta sineskorra. Bere buru nahigabetua zermanan nahigabe horretaz harro bailegoen, hauxe esango bailuen: «Neuk bakarrik dakit berak merezi bezala negarreztatzen.» Baina artean eskuak estutzen ari ginela aurpegian halako begirasun atsekabez gaineztua ageri zitzaion, non Denboraren jolasgarri ez diren kreatura horietako bat zela ohartu bainintzen. Berarentzat bart arratsean zen hila. Eta, Jainkoarren! Hain zirrara bizia eragin baitzidan, neroni ere iruditzen zitzaidan bart arratsean hila zela, areago oraindik, minutu hartan bertan.

Biak denbora une berean ikusi nituen —bataren heriotza eta bestearen nahigabea—, neskaren nahigabea Kurtzen heriotzaren une berean ikusi nuen. Ulertzen? Biak elkarrekin ikusi nituen, biak elkarrekin entzun nituen. Neskak esan zuen, arnasari sakon eutsiz: «Bizirik iraun dut,» eta bazirudien nire belarri zorrotzek zolitasunez entzun zutela, neskaren etsipen doinu deitoragarriarekin nahasia, Kurtzen betiereko galmenaren xuxurla laburtzailea. Neure baitan galdetzen nuen zer ari nintzen ni han, bihotzean ikara sentrazio bat nuela, gizaki batek behatuak izateko desegokiak diren misterio krudel eta absurdozko toki batera amildu izan banintz bezala. Aulki bat seinalatu zidan. Eseri ginen. Neure fardela mahaitxoaren gainean poliki utzi eta berak eskua gainean ipini... «Zuk ondo ezagutzen zenuen,» murmuratu zuen doluzko isilune baten ondoan.

«Elkarren ezaguera berehala egiten da han —esan nion—. Gizon batek beste bat ezagutu dezakeen bezain ondo ezagutzen nuen nik.»

«Eta zuk miretsi egiten zenuen —esan zuen berak—. Ezinezkoa zen bera ezagutu eta ez mirestea. Ez da hala?»

«Gizon aparta zen,» esan nuen zalantzati. Gero bere soaren finkotasun galdetzailearen aurrean, nire ezpainenatik hitz gehiago entzuteko zain bailirudien, jarraitu nuen: «Ezinezkoa zen bera ez...»

«Maitatzea,» bukatu zuen berak lehiatsu, niri beldurgarrizko mututasunera isilaraziz. «Egia borobila, bai horixe! Baina, aizu, pentsatzea inork ez zuela nik bezain ondo ezagutzen! Nik bere konfiantza noble osoa neukan. Neuk ezagutzen nuen hobekien.»

«Zeuk ezagutzen zenuen hobekien,» errepikatu nuen nik. Eta beharbada hala zen. Hitz bakoitza esan ahala, ostera, gela gero eta iluntzenago ari zen, eta bere kopeta soilik, fin eta zuri, pizturik gelditzen zen fedearen eta maitasunaren argi iraungiezinarekin.

«Zu bere adiskidea zinen —jarraitu zuen—. Bere adiskidea —errepikatu zuen pixka bat ozenago—. Hala izan behar zenuen hau eman eta nigana bidali bazintuen. Sumatzen dut zurekin

hitz egitea badudala, eta, ai ene! Hitz egin beharra daukat. Esan behar dizut —bere azken hitzak entzun dituzun horri— bere duin izan naizela... Ez da harrotasuna... Bai! Harro nago, mundu honetan inork baino hobeki ulertu nuela jakiteaz, berak ere hala esan zidan. Eta bere ama hil eta gero ez dut inor... inor... zererako...»

Nik entzun egiten nuen. Ilunbea sakonago bilakatu zen. Ez nengoen seguru ez eta zegokion fardela eman zidan ere. Izanez ere, susmatzen dut beste paper sorta baten ardura eman nahi zidala, bera hil ondoren zuzendariari lanpara azpian aztertzen ikusi niona, hain justu ere. Eta neskak hitz egin egiten zuen, bere pena nire begikotasunaren segurtasunean arintzen; gizon egartiek nola edaten duten, hala hitz egiten zuen berak. Entzunda neukan bere familiak Kurtzekiko ezkon hitza gaitzesten zuela. Ez omen zen behar bezain aberatsa edo horrelako zerbait. Eta egia esan, ez dakit bere bizitza osoan ez ote zen pobre bat izan. Hara bultzatu zuena bere pobretasun konparatiboaren egonezina izan zela pentsatzeko bidea emana zidan.

«...Nor ez zen bere adiskidea izango behin hitz egiten entzunez gero? —esaten ari zen neska—. Gizonak bereganatzen zituen beraien-gan zegoen onenagatik.» Bizitasunez so egin zidan. «Hori gizon handien dohaina da;» jarraitu zuen eta bere ahots apalaren soinuak bazirudien inoiz entzun nituen misterioz, bakartasunez eta atsekabez beteriko beste soinu guztien laguntza zuela: ibaiaren zaplada, haizeak kulunkaturiko zuhaitz hostoen firfira, gizaldeen marmarra, urrundik oihuztaturiko hitz ulertezinen durundi ahula, betiereko ilunbe baten mugaz bestaldetik mintzo zen ahots baten xuxurla. «Zuk entzun egin diozu, ordea! Zuk badakizu!» oihukatu zuen.

«Bai, badakit,» esan nuen bihotzean etsipen antzeko zerbait neukala, baina gur egiten nuen bere baitan zegoen fedearen aurrean, lurraz gaindiko argiarekin ilunbetan dirdira zegien amets handi eta salbatzaile haren aurrean, ez bera ez neure burua defendatzerik izango ez nuen ilunbe garailetan.

«A ze galera niretzat... guretzat! —zuzendu zuen eskuzabaltasun ederraz; ondoren xuxurla

batez erantsi zuen:— Munduarentzat.» Arrats beheraren azken argi apaletan begiak ñir-ñir ikusten nizkion, negar malkoz beteak, eroriko ez ziren negar malkoak.

«Oso zoriontsua izan naiz, oso dohatsua, oso harro sentitzen naiz —jarraitu zuen—. Dohatsuegia. Zorionsuegia bolada labur batean. Orain, berriz, zorigaiztokoa naiz... bizitza guztirako.»

Zutik jarri zen; bere adats horailak bazirudien gelditzen zen argi guztia urrezko erlantz batera erakartzen zuela. Ni ere zutitu nintzen.

«Eta guzti horretatik —jarraitu zuen bihozminez—, bere agindu guztietatik, bere handitasun guztitik, bere izpiritu eskuzabaletik, bere bihotz prestatutik, deus ere ez da gelditzen, oroitzapena baizik. Zu eta ni...»

«Guk beti gogoan izango dugu;» esan nion azkar.

«Ez! —oihukatu zuen—. Ezinezkoa da hau dena galdu beharra, halako bizitza bat eskaini beharra ezer ere ez gelditzeko, bakarrik atseka-bea. Zuk bere plan handiak ezagutzen zenituen. Nik ere ezagutzen nituen, beharbada ezin nituen ulertu, baina beste batzuek ezagutzen zituzten.

Zerbait gelditu behar du. Bere hitzak, gutxienez, ez dira hil.

«Bere hitzak gelditu egingo dira,» esan nion nik.

«Eta bere ikasbidea —xuxurlatu zuen bereki-ko—. Gizonek berarengan itxaropena zuten; bere ontasunak ekintza bakoitzean distiratzen zuen. Bere ikasbidea...»

«Egia da —esan nion—; bere ikasbidea ere bai. Ahaztuta neukan.»

«Nik ez, ordea. Ezin dut —ezin dut sinetsi— oraindik ez. Ezin dut sinetsi ez dudala inoiz berri-ro ikusiko, inork ez duela inoiz ikusiko, inoiz ez, inoiz ez, inoiz ez.»

Besoak irudi iheskor bati jarraiki bezala luzatu zituen, beltz hedatu zituen, eta esku zuriak itxita leihotiko argitasun aienakor eta meharra gurutzatu zuen. Inoiz ez ikusi! Nik nahiko argi ikusten nuen orduan. Mamu hitz-jario hura bizi naizen bitartean ikusiko dut, eta baita ere ikusiko dut Itzal tragiko eta ezagun bat, imintzio honetan beste baten antza zeukana, tragikoa ere, eta ahalgabeko kuttunez hornitua, beso beltzaran biluziak luzatzen infernuzko ibai distira-

ren gainetik, ilunbetako ibaiaren gainetik. Bat-batean oso ahots apalez esan zuen: «Bizi bezala hil zen.»

«Bere azkena —esan nuen, neure baitan amorru motela borborka nabaritzuz—, bere bizi-tzaren duin izan zen, inondik ere.»

«Eta ni ez nengoen berarekin,» murmuratu zuen. Nire amorruak amore eman zuen neurrigabeko urrikaltasun sentimenduaren aurrean.

«Zera bakarrik egitea izan genuen...» motelki esan nion.

«Ai! Nik, ordea, munduan inork baino gehiago sinesten nuen berarengan, bere amak berak baino gehiago, berberak baino gehiago. Nire beharrear zegoen! Nire beharrear! Altxor bat bezala zainduko nukeen bere intziri bakoitza, bere hitz bakoitza, bere zeinu bakoitza, bere begirada bakoitza.»

Estura jelatu baten antzekoa nabaritu nuen bulartean. «Ez dezazula egin,» esan nuen, ahots ahularekin.

«Barkatu. Nik... nik... hain luze negar egin diot isilean... isilean... azkeneraino egon zinen berarekin? Bere bakardadearekin pentsatzen ari

naiz. Inor ez aldamenen nik ulertuko nukeen bezala ulertzeko. Beharbada Inor ez entzuteko...»

«Azken bururaino —esan nuen dudamudaz—. Bere azken hitzak entzun nituen...» izu-ikaraz isildu nintzen.

«Errepika itzazu —murmuratu zuen bihotz hautsizko doinu batez—. Nahi dut... nahi dut... zerbait... zerbait... horrekin bizitzeko.»

Garrasi egiteko zorian egon nintzen: «Ez al dituzu aditzen?» Ilunabarra etengabeko xuxurla batean ari zen haiek errepikatzen, gu zeharo inguratuz, mehatxagarri puztuz zirudien xuxurla batean, altxatzen den haizearen lehen xuxurla bezala. «Horrorea! Horrorea!»

«Bere azken hitza... horrekin bizitzeko —berriz ekin zion—. Ez duzu ulertzen maite nuela ala?... Maite nuen... Maite nuen!»

Neure indar guztiak bildu eta astiro hitz egin nuen.

«Berak esandako azken hitza izan zen... zure izena.»

Intziri mehe bat entzun nuen eta gero nire bihotza gelditu egin zen, bertatik hilda geratu

zen garrasi bozkariotsu eta ikaragarri batengatik, asmaezinezko garaipenaren eta adierazezinezko minaren garrasiagatik. «Banekien... Seguru nengoen!»... Bazekien. Seguru zegoen. Negarrez entzun nion; aurpegia eskuetan ezkutatu zuen. Iruditu zitzaidan etxeak lur joko zuela nik ihes egitea lortu aurretik, ortzia nire buruaren gainera amilduko zela. Baina ez zen ezer gertatu. Ortzia ez da amiltzen horrelako huskeria bategatik. Eroriko ote litzateke, galdetzen dut, Kurtzi zegokion zuzenbidea egin izan banio? Ez al zuen esan, bada, zuzenbidea besterik ez zuela nahi? Baina ezin izan nuen. Ezin esan. Oso iluna izango zatekeen... ilun-ilun-iluna...»

Marlow gelditu eta aparte eseri zen, lauso eta isil, Buda gogoetatsu baten planta zuela. Inor ez zen mugitu puska batean. «Itsasbeheraren hasiera galdu dugu,» esan zuen zuzendariak bat-batean. Burua altxa nuen. Bokalea hodei beltzezko atalaga batez hertsia zegoen eta lurreko bazterrik urrunenetara gidatzen zuen ubide mantsoa ilun jariatzen zen zeru goibelaren azpitik; bazirudien mugagabeko ilunbeen bihotzera gidatzen zuela.